COMEDIAS

ESCOGIDAS

ATV
10.20X

H-27253
R-15626
ATV-10.204

GABON.

IRUCHULOTAR OITUREN JOSTIRUDIA EUSKARA NASTUBAN

ETA EGINTZA BACARRAN

IZKRIBATUA

Marcelino Soroa Lasa-c.

Biltoki edo Teatro Lenendicoan olagara edo chalo ascorekin aurkeztatuba.

JUVENTUD CARMELO-PRADA
BIBLIOTECA
SAN SEBASTIAN

BIGARREN ARGITARATZA.

Bi errial.

Pozo eta C.ª-ren moldizkiran.—Fuenterrabia calian 6, lumeroan
DONOSTIAN.

ZURI.

. . . . . .

. . . . . .

. ¿ . . . . . ? . . . . .

. . . . . ¡ . .

. . . . . ! . . .

. . . . . ,

. . . . . .

. . . . . ‼ . . . . . ‼

. . . . . .

. . . . . .

Nik.

EGILLEAREN BESTE JOSTIRUDIAC.

IRIYARENA.
ANTON CAICU.
GABON. (Lenbizico argitaratza).
¡¡AU OSTATUBA!!
¡ABEC ISHTILLUBAC!
ALCATE BERRIYA.
URRUTIKO INCHAURRAK.... (1)
GABON. (Bigarren azaldea).

ARGITARATZEKO.

BARRENEN ARRA, Urnietako Euskal jayaldietan aurkeztatua olagara aundiyarekiñ Agor illaren 30^an^ 1886-ko urtean.

¡¡LAPURRAK, LAPURRAK!!

NAI, ETA EZ NAI.

LA BELLA EASO, Zirko-Biltoki edo Teatroan aurkeztatua Otzaillaren, 6^an^ 1885^garren^ urtean eta 1886-an.

UN EMPEÑO SINGULAR, Zirko-Biltokian aurkeztatua Abenduaren 18^an^ 1885^arren^ urtean.

Beste liburucho argitaruba EUSKAL NAPARREN JOAERA, EDO EMIGRACIOA, Jose Colá eta Goiti jaunaren liburutik itzulia.

---

(1) Durangoko Euskal-festetan saristatua.

GABON.

EGINTZALLEAK.

On Macario	On	José Artola.
Serenua	„	Miguel Arregui.
Mariñela	„	Norberto Luzuriaga.
Cashimiro	„	Ignacio Iribarren.
Atanashio.	„	Bruno Olazabal.
Andre Joshepa	„	Julio Mendia.
Dama Carmen.	„	José M.ª Arcelus.
Ashenchi	„	Armando Larzabal.
Prudenchi.	„	Alfredo Jaussi.
Luchi	„	Luis Larrea.
Madalen	„	Demetrio Muñoa
Anthoni	„	Justo Labayen.
Joshe Miguel	„	Enrique Mora.
Agapito	„	Juan Larrarte.
Martzelino	„	J. B. Landa.
Joshe Iñashiyo	„	Antonio Valderrama.
Erramun	„	Ramon Iruretagoyena.

Siñalatzallea edo apuntadoria

Toribio Alzaga.

Gertaera iruditzenda Donostiyan.

...Fabula, nullius veneris, sine pondere et arte, Valdiús oblectat populum, meliusque moratur, Quám versus inopes rerum, nugaeque canorae . . . . . .
. . . . . .
Ficta voluptatis caussa sint proxima veris.

(Horacio, *Epistola ad Pisones).*

Gaz-gabeco iz neurtuac baño, oyen ederqueri gabeco irudiac erriari gozoroago eta obeto denbora eman eraziten diyote . . . . . .
. . . . . .
Atzegin-garrizco asmariyuac egi antzecuac izan bear dute.

Liburuchua au legez orara egillearena da.

EGINTZA BAGARRA.

IRUDITEGIAN CALIA BRECHA ALDIAN

Egilliaren escuyetara Andre Josheparen echia. Ezkerretara on Macariorena. Burtina alchatzendanian, azaltzendira calien erdi erdiyan, dozena bat mutill biribillatubac eta Joshe Miguel barrenen dutela malkil batekin cantuban sayatzeco gizan. Batec du frasholetia, bestiac ojalatasco chilibituba eta Erramunec farola. Guztiyac umill jantziyac, blusha, boinekin ta alá. Alde batian gastaiñ ta bishigu saltzalliac.

LENBICICO IRUDIA.

I.

MUTILLAC, LUCHI, ASHENCHI ta PRUDENCHI.

LUCH. ¡Gaztain bero beruuuuac! *(ojuca)*
ASH. ¡Bishigu freshcuuuuuac!
PRUD. ¡Vizi, viziiiiiiiyac!
JOSHÉ. *Entzayazagun* bada.
GUZTIYAC. Bay, bay. *(Bulla ta zalapartan).*

JOSHÉ. ¿Guztiyac algaude?
ERRA. Sheveriano falta dec.
IÑAS. Ez dec ori etorrico, ceatic aitai sigarruac ostu ta *fumatzen* topatudic cai-arriban eta echea eamandic.
JOSHÉ. ¡Orduban agilando ederra emango zioc!
ATAN. Obe, *parte* geyago izango diagu.
IÑAS. Aizac Atanashio, ¿ecatzac chilibituba?
ATAN. ¡Ez chinistu!
IÑAS. Mutill eztiau jango.
ATAN. San Tomasetan bost cuarto *pagatu* ta ¡iretzat irukicoyat!
IÑAS. ¡Demonio caicuba!
ATAN. Caicubao aiz i.
ERRA. Cantasagun, bestela gaizuma etorricodec asi bañan len eta *tinieblac* cantatu biarco dizkiagu.
JOSHÉ. ¿Zer cantatuco degu?
IÑAS. *Dios te salve* ongi etorri.....
BESTIAC. Ez, ez.
ATAN. *En el portal de Belen*.....
JOSHÉ. Y bay agola Belenen.
ERRA. Agilanduen billa....
JOSHÉ. Ori basekiagu.
IÑAS. Erregiac datoz.....
ERRA. Etorri ta jun ere egingoditec Erregiac gu asi bañan len!
IÑAS. Atechocuan ollar bi.....
JOSHÉ. Ate chocuan pentzatzeec ic beti, sigarrua *fumatzen* egotiatic. Zortzicua.
GUZTIYAC. Bay, Bay. Zortzicua.
JOSHÉ. Tira, jarri ondo. Ala. Bat, bi, iru.
(Cantari). Echeco guztiari
gabonac emanez
gatoz zelebratzera
beterican pozez.....
¡Ishóóó mutillac!!
ATAN. Inashiyoc *desafinatzendic.*

IÑAS. ¡Emangodiat belarriondoco bat!
ATAN. Esaundec ezaicela San Vicenteco coshketan jayua.
IÑAS. Ic bay cantatzecala gaizki.
ATAN. ¿Nic?
IÑAS. Ic bay. Lorentziyoco calian ez diat i baño asto aundiyagoric icusi.
ERRA. ¡Sartusioc!
GUZTIYAC. E, e eeeeh (*ojuca*).
JOSHÉ. Tira, tira ez diau azarratubiar gabonetan. Segi aurrera.

(*Cantari*). Cantatu biardegu
gabon arratza da
umore onarekin
pasa zagun gaba.
Azoliyo bishigu
conpota gaztañac
gaur gaberaco dira
gauzaric onenac.
Echian gurasuac
semiac eskian
triste gelditu dira
suben bazterrian.
Aita pipa erretzen
ama ardatzian
¡zer afari otedegu
gabon arratzian!
Jo gora ta jo bera
gabiltza gu beti
Belena nun otedan
billa albaledi.
Diruric ez degula
gezurra diruri
¡zeñec jan alitzaken
capoi bat edo bi!
Alde guztietatic
bishigu, turroyac,
agertzendira baita

galantac capoyac.
Gu bacarrican gaude
barauric artian
diruric gabetanic
gabon arratzian.
Necatu gera eta
baguaz emendic
danac ibiltzen gera
dirubaren gatic.
Naiz diruric eman ez
borondate onetic
ez diyogu elduco
iñori lepotic.
Baguaz echecuac
gabon, gabon, gabon,
desiatzen diyogu
chilla bat urte on.
Eman biar dizcagu
oraiñ esker milla,
emen Jesus maitea
arkitu derilla.

BI GARREN IRUDIA.

II.

LENGUAC eta AGAPITO, gero ANDRE JOSHEPA.

AGAP. ¿Oi ¡¡Joshe Miel!! Subec altziñaten?
JOSHÉ. Ez; gu ez gaituc gu bestiac gaituc.
AGAP. ¡Au arrayia! ¿Cantatzea altzuaste?
JOSHÉ. Bai.
AGAP. Nire jungonac partian.
GUZTIYAC. *Bien, bien.*
AGAP. ¿Nun desute farola?
ERRA. Ona.
AGAP. ¡Oi ¡¡Itzalduba!!
ERRA. Estiau bildu oraindic candeilla eosteco ta...

AGAP. Crashcatuba zioc.
ERRA. Bai, Atanashioc bulcatunioc ta....
ATAN. Gezurra. Bishigu baten ezurrian chirristatu ta erori indec.
AGAP. Obelikec chirristatu platerian.
IÑAS. Ori, ori.
AGAP. Guasen ba. Cantatu sagun emen.
ATAN. ¿Zein bizi da or?
JOSHÉ. Andre Joshepa.
IÑAS. ¿Tronpeta?
ERRA. Ez, lantzeta.
JOSHÉ. Atzo bat Gure echera etortzen dec artzaldero chocolatia artzera.
AGAP. Tira ba. Jarri mutillac.
JOSHÉ. "Gure Jesus onaren„ *A la una. Cantari*). Gure Jesus onaren
gabeco etorrera
cantatu biardegu
cristabac bagera.
ANDRE J. ¡Isho, ishóó! Ez cantatziatic. *(Diruba emanic)*.
AGAP. Escarricasco.
JOSHÉ. ¿Ze emandic?
AGAP. Cuarto bat.
ATAN. *Bien*. Ederki asten gaituc.
IÑAS. ¡Gezurra, gezurra! Chanpona dec.
AGAP. ¡Oi! ¡Cuartua zala ustenican.....
IÑAS. ¡Tranposo arrayia!
AGAP. ¿Zeinda boltzero?
ATAN. Erramun farolerua.
ERRA. Aizac i, farolerua i izan goaiz.
ATAN. Mutill, ¿farola ez dec ba eamaten?
ERRA. Basekiat ceatic esan decan ori, bai.
JOSHÉ. Güacen Andre Pepenea ardipaten candeilla eostea eta beste ardipaten caameluac.
ATAN. Ez gastañac.
IÑAS. Obe gendikec sigarruac eosi....
GUZTIYAC. Guacen, guacen.

JOSHÉ. Ez. Oaiñ emen cantatu biar diagu.
ERRA. ¿Nun? ¿Don Macarioen echian?
ATAN. Ez dic orrec ezere ematen.
AGAP. ¡Ona dec bera! Segitzen baigu dendaco canekin, puscatuco zizkiuc ezurrac.
JOSHÉ. Sayatu egingoaituc.
BESTIAC. Bai, bai.
JOSHÉ. *Corro ba corro.* Zortzicua, "Echeco guztiari.„ A la. Bat, bi, iru.
(cantari). Echeco guztiari
gabonac emanez....
ON MAC. *(Beti barrendic)* Canpora ortican.
(Cantari). Gatoz zelebratzera.
ON MAC. ¿Ez aldezute aitzen?
(Cantari). Beterican pozez...
AGAP. Mundu guztiya dago
Macariokin farrez.
MAC. Likishkeri lotza gabiac.
(Cantari). Cantatu biardegu...
MAC. Suaste emendic chimistac egiten.....
(Cantari). Gabon arratza da...
MAC. ¿Es aldezute aitu? Aguro pisha egin da oyera.
IÑAS. Chanpot bat...
MAC. Ez.
ATAN. Cuartua...
MAC. Ezta arditican ere.
GUZTIYAC. Zekena, mekena
inpernuban zaudena.
MAC. Artzen badet cana....
ERRA. Betor gure gana.
AGAP. Emendec mutillac, emendec.
GUZTIYAC. E, e eehhh. *(Ojuca dijuaz itzuli).*

IRUGARREN IRUDIA.

III.

BISHIGU ZALTZALLIAC ta ON MACARIO.

MAC. *(Canarekin)* ¿Nun dira oyec? Jun dira. ¡Mukizu gaizki asiyac! Ez dakit nic zer eracusten diyoten beren gurasuac, ijituen aurrac bañon okerraguac dirala.

ASH. ¿Zer naidu bada D. Macario? Gabon artaraco da. Tira artubizaigu bishigu eder bat.

MAC. Ez, ez. Escarricasco. Nere tripac ez du ondo artzen.

PRUD. Egin beza prueba eta barrenen ez bada ondo arkitzen apareju bat botaco diyogu ateratzeco.

MAC. Gañera barau det.

ASH. Orduban ez diyo tripaco miñic egingo.

PRUD. Eta ezurric eztarriyan geldituco.

MAC. Gabon, gabon. *(Echian sartzenda).*

BIYAC. Gabon.

LAU GARREN IRUDIA.

IV.

ASHENCHI, PRUDENCHI ta DAMA CARMEN.

ASH. Ori gizon zurra.

PRUD. Ez dakit nic zertaco ditusten dirubac.

ASH. Ez dizkiñ bada berekin eramango munduba ontatic.

PRUD. Jan gabe bizi emenden zurkeris.

ASH. Ez diñ abilidade guchi. *(Azaltzenda Dama Carmen). Señora* betor onera. Beida beza zer galantac ta frescuac.

CARMEN. Begi tristia dacar onec.
PRUD. ¿Ildacoic icusi aldu begi alayekin?
ASH. Gaur gabon da ta cantabezayo villanchicu bat *alegratzen* otedan.
CARMEN. ¿Zenbat?
ASH. Ona ederra. Guchinas bost libra bada, orainchen chalupatic ateriac dira.
CARMEN. ¿Zenbat, bada, zenbat?
ASH. Icusi beza ondo. Artubeza escuban. Onen pisuba...
CARMEN. Bañan ¿zenbat? Ez nua guanteic zikintzera.
ASH. Orra bada. Azkenecua esango diyot. Zaspi errial.
CARMEN. ¿Zaspi errial?
ASH. Ta ori beorrentzat dalaco.
CARMEN. ¿Udaren erdiyan gaudela uste aldezu ta Madriltarrekin ariceala tratuban?
ASH. ¡Choratu egiñ ote gera bada!
CARMEN. Garishti da oso.
ASH. ¿Nola naiditu bada erregalatubac?
CARMEN. Bi terdiyan.
ASH. ¡Ja, jai! ¡Bi errial terdiyan! Arrantzaliac ere artuco lituzteke. ¿Aitzenden Prudenchi? ¿Zer uste du, ostu egin ditugula?
CARMEN. Ez dakit nic ori.
ASH. ¿Zer esatendu bada?
CARMEN. Badakit zer esaten detan.
ASH. Ez du beorrec bishiguric biar.
CARMEN. ¿Zer bada?
ASH. Ez dakit nic. Aculac noski.
CARMEN. ¿Naizu iruban?
ASH. Ez da beorrentzat arrantzau egiñ.
CARMEN. Zuc escatzen dezu naisuna eta nic eskeintzeizut iduritzenzaitana.
ASH. ¡Ori da! *(Desederki).*
CARMEN. Topatuco ditut merkiago.
ASH. ¡Bego! Ez du orlaco ascoric jan beorrec.

CARMEN. Ori etzaizu *importican.*
ASH. Bijua ondocho. *(Burlaca)* Emendic illabetera etortzen bada merkiago topatuco ditu. ¿Naidu bostian?
CARMEN. *(Dijuala)* Ez.
ASH. Artubeza labian.
CARMEN. Ezta.
ASH. Betor, betor.
CARMEN. Ezta *devaldere*, lotzagabiac.

BOSTGARREN IRUDIA.

V.

ASHENCHI ta PRUDENCHI.

ASH. ¡Jesus, gure Señora azarratu zaigu. ¿Naidu baso bat ur esponjekin sustua pasatzeco? ¿Aitu den Prudenchi?
PRUD. Orrec eman dizkiñ ederrac Ashenchi.
ASH. *Guante* asco, *mantilla cerratuba*, *mangitu* lucia, *abrigu* aundiya, bi cana arrastaca soñocua lurrian eta ¡bi errial terdi bost libraco bishugubari ezkiñi gabonetan!
PRUD. ¡Pobriari bizi moduba emateco jende ona!
ASH. Jaso itzagun tristiabec, kendu zazkigun trastiabec eta guaceman. Franco saldu dizkiñagu. Gelditzen diran sei abec geonec afalducodizkiñagu gure senarchuekiñ.
PRUD. Egiya den Ashenchi, eta bidez arturic bi pichar sagardo eta pichar bat ardo. Güaceman. *(Trastiac bildu ta dijuaz).*

SEI GARREN IRUDIA.

VI.

Agertzendira iruditegian batetic bestera pasatzen mutill batzubec Nashimentu batekiñ. Beriala ta beste

aldetic amabi gizaseme capusayekin jantziyac eta ayetaco batec iru edo lau capoi makill baten puntan bizcar gañian daramaskiyela. Batec esatendu:

Mutillac, oraiñ alcatien echera.

On Macario (gaceta bat escuban dubela).

Mac. ¡Au otza dago! Aice fiñonec ebakitzen ditu baztar guztiyac. Bañan ¡zer *importa* du! Gazetonec gezurric esaten ez badu *costumbres fuera*, andre Joshepari erori sayo loterico premiyo aundiyena.

¡Gauza arrigarriya! ¿Norc esan biartzuben? Lumero seireun ta lau... bai. Lumeruori esantzian zubela. Nic churicatuco banuke ezer ez becela.... Arrec ez du oraindic ezer ere jakingo.... Eta ez dit begi charrequin beidatzen... Gaur goician ere esatentzian: "*cuida* bedi D. Macario: bacarric da mundubontan ete bere burubari ondo contu artu biar diyo." Gero esatentzuben malcua zeriyola tantoca inchaurren tamañacuac. "¡Ayy nere gizarajua bizi izan balitz, enitzake orla arkituco! Bacartasunau ain da tristia...!" Eta beidatzentzian begi batekin.... Besteic ez du ta dubenarekin. Nic ez diyot casoric oraindaño egin, eta egiyaz bere esaerac ez aitubac becela utziditut, cergatic:

Begibat okerra du
bestian negarra
modubortan ez det nai
izan nic senarra.

Bañan premiyo aundiyorrec nastutzen nau pishcabat buruba.

Zarra da ta itzuziya, ori bai dala egiya, ez dacat cutiziya, bañan... ¡premiyo aundiya!

Orainchen dator ori neretzat ego aizia

gaztañentzat bezela. Bestela ¿Ni zertan gelditzen naiz? Nuben diru mordollua eramandit malcarrot egiñ duben echiac. Corrituban jarri nituben eta ainbesto corritu dute, ez dakitala noraño jundiran nere chanponac. Emanituben euneco amarrian ta amarratu ez badizkitet.... Aboa mocadu bat eramateco bildurraz, tripa engañatubaz promesekin gero artuco dubela naiduben guztiya; chur, chur, chur pasa diruba gordetziatic, eta orra: guchiyenaz pentzatzian aiziac eraman. Ala biar, ala biar. Bañan orain conponduco banitz Andre Joshepa onekin, elitzaizkiake gaizki etorrico chanpon oyec. Ustedet amarren artian dutela dezimua, bañan alare tocatuco zaizca... bai, bai, guchiyenaz... ori. Premiyo aundiyaren amargarren partia... eta amargarrenetic... amar egiñ... dira.... dira.... dira lau milla... zortzi milla... *(Biatzakin contatzen)* ama bi milla... ogei milla... bai, bai, ogei... milla. ¡Ez da ganga charra! Oyechec falta egiten dizkiate. ¿Zeñec ustenditu escubetatic ogei milla duro? *(Keraldia)*. Aurrera bildurric gabe. Balore geyago biarda orlaco emacume bat *pretenditzeco, asaltuan* erri batian sartzeco bañon. Alare ogei milla duro... Progatuco det churicatzen otedetan. Jozagun atia. *(Jotzendu)*.

ZAZPI GARREN IRUDIA.

VII.

ON MACARIO ta ANDRE JOSHEPA (Barrendic).

ANDRE J. Ez dago agilandoric. Echera emendic.

MAC. *(Biyac zalameri aundiyarekin itzegitendute)* Andre Joshepa, ez nau esagutzen.

ANDRE J. ¡Oi! ¿Beorri altzan D. Macario? *Sin pentzarian* esandiyot.... *A lo mejor* nola mutillac etortzen diran... ¿Zer dabill ordu abetan?

MAC. Bada.... bada... ¿badaki? Gaur gabon degu eta gogoratuzait gabonac ematia.

ANDRE J. Asco estimatzen det. ¡Ay beorri gizon fiña da beti!

MAC. Gaur ogei milla... bider *acordatunaiz* beorrentzaz.

ANDRE J. Escarricasco.

MAC. Aishkiriac bata bestiari emanbiardizcate ogei milla... prueba.

ANDRE J. Egiya da. Sartu bedi barrena.

MAC. Ez, ez. Oraiñ *por ahora* ez beñepin.

ANDRE J. Otz dago.

MAC. Bai; ta ezkerrac eudiya gelditudubela. Ez dakit nic Jaungoicuac nola *escogitu* zuben egun au, denboric gogorrenetan mundura etortzeco.

ANDRE J. Ori D. Macario da guri eracustia munduco sufrimentubac nola eraman biardiran.

MAC. Nai nuben eskeñi beorri afariya nere conpañiyan...

ANDRE J. Estimatzen det. Banan jendiac ¿zer esango luke? Ez, ez, *de ningun modo:* beorri gizon escongaya ta ni berriz alarguna... ¡Ay nere gizarajua bizi izan bazan...!

MAC. Bada, badaki beorrec....

ANDRE J. ¡Orduban beste gauzic zan!

MAC. Nere borondatia...,

ANDRE J. Gabon arratza beste moduz pasatzen nuben ¡¡Ayyy!!

MAC. Nic beorrentzat izandu det...

ANDRE J. ¡Arren compañico afarichua ura!

MAC. Obeto biarrez esaten niyon...

ANDRE J. Bañan gure Jaungoicuac ala *disponitu* zubenta ez du *erremediyoric*.

MAC. ¿Erremedioric ez?

ANDRE J. Ez *mal pecado*.

MAC. Mundubontan gauza guztiyac erremediatzen dira.

ANDRE J. Illa ez pistitutzia beizic.

MAC. Badaki nire bacartasunian zer gaizki arkitzen naizen, eta orrengatic nainituke ogei milla... *disgustu abec evitatu*.

ANDRE J. Arrazoya du D. Macario. Zenbat bider egondu naiz ni nere burubari esaten. "Ez det nic beñepin *comprenditzen* D. Macarioren bizimoduba orla. Mirabien contu, geyenetan choruac eta sisalariyac izatendiala, gañera *afectoic* artzen ez dutela iñori, oyen escubetan egon bañon. ¿Zer obiago ez luke escontzia?„

MAC. Ori, ori, egiya da.

ANDRE J. Artu emacume shincho bat, ez... gaztegiya... bañan ez... zarrare...

MAC. Bai, bai. Izan ezkero ogei milla... modutara obetago bizitzeco bidia...

ANDRE J. Emacume bat, zapatac zartzen ta corbataco lazua jartzen lagunducodiyona...

MAC. Ori da.

ANDRE J. Oyeco tapakiyac ondo *arreglatuco* dizkiyona eta goizian goiz chocolatechua eramangodiyona.

MAC. Baitare: bañan ¡aiñ zalla da arkitzia orlaco bat!

ANDRE J. ¡Ayyy! ¡Norc daki!

MAC. Beorrec bere buruz artzenditu bestiac, bañan beorri bezelaco guchi de mondubontan, ogei milla... aldizere esangodet.

ANDRE J. Escarricasco D. Macario.

MAC. Eta... eta...

ANDRE J. ¿Zer?

MAC. Eta ogei milla... ishtillu pasatzen dira bat diñacua gertatzen ezbada.

ANDRE J. ¡Ay! ¡Zeñec alezaken orlaco *fortuna!*

MAC. Orra bada, nic... besteric ezbada... ogei milla... ren artian badakit zeiñ begiz joco nuken...

ANDRE J. Bai: beorrec *mereci* dubena, eta gañera egiñ lezake ezer ez dubenen baten suertia.

MAC. Bai, bai. Nic oraindaño ez det pentzatu escontzia... eta oraiñ ere... ez dakit... cergatic.... bañan beorren ogei milla.... arrazoiri *atendituta*...

ANDRE J. *¿Deziditzenda?*

MAC. *(Ondo begidatuta)* Izutzen naiz. Itzuziya ta zarra da....

ANDRE J. ¿Zeiñ?

MAC. Nere gorputza ta...

ANDRE J. Ez bezala orlacoric esan. *Estadu* onian dago, eta ez balitz estul pushca orrengatic eta belauneco aiziengatic eta...

MAC. Ogei milla... gauzengatic.... bañan bai, nic biarnuque beorri bezelaco bat; orra.

ANDRE J. ¡Ayy! ¡Zer esatendit Macario Jauna! ¡Ez naubela *riborizatu!*

MAC. Egiya esaten det. Beorri bezelaco batekin bacar, bacarric esconduconitzake.

ANDRE J. Bacarric biarcoluke izan. Elizac ez du besterik ametitzen: bañan beorri gaboneco umoriekin etorrida ta chanchetan dabill.

MAC. Aitu du bada.

ANDRE J. ¡Ay ori egiya balitz!

MAC. ¿Egiya? Baita ogei milla.... aldizere.

ANDRE J. Gaur ogei milla oyec sartubac dacazki....

MAC. ¿Boltzilluban?

ANDRE J. ¿Zer boltzillu? Buruban.

MAC. Oraindaño bada ezin *atrevituric* egondu naiz beorri esateco.

ANDRE J. Ez bezala ori esan. Badaki oraiñ bañon lenago nic zer *apreciyotan* dacatan beorren *persona*.

MAC. Bai, bai eta *conformatzen* bada....

ANDRE J. ¿Nola ez? ¡¡Ayy!!

MAC. *Bueno* bada, Andre Joshepa. Esconduco gera, eta an da emen gure contuba Plandesen.

ANDRE J. ¡Zeñec ezan biartzian neri!

MAC. *Ya que* ezduben nai etorri nerekin afaitara, ecarricodiyot afal ondoaco *presente* chiki bat; mazapanezco aingira edo sube polit bat.

ANDRE J. Escarricasco bañan ez bedi *molestatu*. Ori bai izangolitzakela Paraisoco subia becela....

MAC. ¿Bai eh? Ariyo Andre Joshepa.

ANDRE J. Gero arte D. Macario. ¡Ay!

MAC. *(Echianzartzendala)* Zarra, itzuziya ta berritzuba da, bañan ¡ogei milla duro! Gazeta eracutzico diyot bigarren *entrevistan* ta ¡¡Zapla!!

ZORTZI GARREN IRUDIA.

VIII.

ANDRE JOSHEPA.

¡Norc esan biartzian gaur arratzian gertatuco zala au! Zarra ta baldarra dago, bañan aberatza. Diruba poliki izan biardu eta gure azkeneco egunac mundubontan pasatzeco ez da *arrimo* charra. Chanponac dituta *en fin* zeruba irikitzen zait. ¡¡Ay!! ¡Noiz bait izan biartzan nere chanda! *(Bere echian sartzenda)*.

BEDERATZI GARREN IRUDIA.

IX.

Azaltzenda Martzelino mutill coshcorra, chistuca egun ontan etorridan batalloyen marcha eta chanpon batekin juaz daraman picharreco sagardo botillan. Aldebatetic bestera iruditegian pasatzeacuan, botilla erori ta austentzayo ishurirican sagardua. Negarrez arrantzaca marruaz astenda eta etortzenda serenua.

MARTZELINO ta SERENUA.

SER. ¿Zer dec mutill? ¿Zer egintzaic?

MAR. ¡Ay! ay, ayyy! Bo... bo... *(Estuasunekin cziñ itzic egiñic)* Botilla ishuri ta sagardua autzi.

SER. ¿Zer esandec?

MAR. ¡Ay, ayy! Amac jo egingo nau.

SER. Ishillic ago gizarajua. Ez dic jipoyic emango.

MAR. Bai, bai. ¡Ayyy!

SER. Tira isho, isho. Ator nerekin eta emangodiat beste botilla bat echera eramateco.

MAR. ¡Ayyy! ¡ay! *(eziñ geldituric negarra).*

SER. Bañan ishillic ago. Ez decala bildurric izan.

MAR. ¡Ayy! ¿Eta sagardua?

SER. Beteco diat botilla nic. Amac ez dic ezere jakingo.

MAR. ¡Ay, ayyy...!

SER. Ez diat emango ishilltzen ez baiz. ¿Nola dec izena?

MAR. Martzelino.

SER. *¿Fué por vino?*

MAR. Ezzz....

SER. Urte berri, urte zar Martzelino galtza zar?

MAR. Baaaiii...
SER. Nun bizi aiz?
MAR. Arrandei calian...
SER. Nere echiare bertan dec eta zuzen jungoaiz.
MAR. ¡Ay, ayyy!
SER. Negar egiten badec amac esagutu egingo dic. *Secasazkic* malcuoyec eta kendusazkic zintzillic dacazkican candel oyec. *(Martzelino zintzatzenda blusaren barrengo aldiekin. Bitartian serenuac biltzen ditu botilla puscac eta esaten diyo).*
SER. Tira guazen.
MAR. ¡Ay, ayyy!

AMAR GARREN IRUDIA.

X.

Agertzen dira zortzi gazte, lau violiñekin, bi flautekin bat triangulubekin eta beste bat bonbardinuekin pasacallia jotzen. Iruditegiyen erdiyan gelditu eta ishiltzen dira. Batec esatendu "Vals„ Jotzen dute. Gero "Habanera„ ta au bucatzian pasa-callia juaz dijuaz.

AMAICA GARREN IRUDIA.

XI.

MADALEN, ANTHONI ta CASHIMIRO.

CAS. Ariyo nere maite ederrac.
MAD. Ez bageraro parian pasatzen gera.
CAS. Ni berriz ederren parian.
ANT. Astuac ere alashen pasatzen dira.
CAS. ¿Nora zuazte?
ANT. ¡Ja jai! ¡Ez dezu guchi jakiñ nai!
MAD. *Bienque.*

CAS. ¿Nai aldezute laguntzia?
ANT. ¿Guuc? Beida ez degu zure biarric.
CAS. Escarricasco.
MAD. Iltzan.
CAS. ¿Nungua zera?
MAD. Euscalduna.
CAS. Emendic urruticua?
MAD. Erdiya ta beste ainbeste.
ANT. ¿Bañan noraño segitu biar gaitusu?
CAS. Munduben acaberaño, naiz izan jela lecura artza tartea.
MAD. ¿Angua altzera?
CAS. Escarricasco.
ANT. Iltzala *(Dijuaz).*

AMABI GARREN IRUDIA.

XII.

SERENUA ta MARIÑEL *moshcor bat balantzaca.*
Mariñelac itz egiten du geldi ta lulu.

SER. Bañan ¿nora zuaz gizona?
MAR. Echea.
SER. ¿Echera emendic?
MAR. ¡Arrayia! ¿Nora jungo naiz bada?
SER. Okertzuaz.
MAR. Biziro zuzen ez. ¿Ezalda ba au Ishturingo bidia?
SER. Ez gizona. Itsasora zuaz ortican.
MAR. ¿Zer bide arraye dira ba abec beti mudatzen ari diala? Provintziyan ez da gero ni bezelaco gizonic maniobretan. *(Pizcorrago izketan).*
SER. Ez gizona ez.
MAR. Eta nic esan diyot alperric dabillela.
SER. Bai, bai. Guazen echera.

MAR. Eta ni bezelaco gizon batec bidia galdu? ¡Milla demoniño!

SER. Emendic zuzen guaz.

MAR. Eta arrec esan biar neri...? Aitu aldezu ni bezelaco gizonic Provintziyontan izandu dala?

SER. Ez gizona ez.

MAR. ¡Aufa! *(salto bat egiñic).*

SER. Tira, tira, *becindadia alborotatzen* ari zera.

MAR. *Igual* da. Etzait *importic becindadien* gatic.

SER. Andria sai dacazu onezkero.

MAR. ¿Andria? bai, bai. Guazen beste chuuurrupat artuta.

SER. Utzi zazu biyarco.

MAR. Azkenecua.

SER. Aski dezu, biyar erango degu naidezuna.

MAR. Ni bezelaco gizon bati arrec esan biar.... ¡Zer! Paretaure ne contra? *(Joca)* Itzazuan guchic eramango nau maniobretan!

SER. Bai, bai.

MAR. ¿Bayetz?

SER. Ez, ez. Guazen echera.

MAR. Ez naiz jungo. Nic arrazoya izan da.... ¿Esaldet nic arrazoya?

SER. Bai, bai gizona. Arrazoya dezu.

MAR. *Bueno* ba. A Dio sereno. *(Dijua presaca).*

SER. A Dios nulbado. *(Arrituric).* Eta gabero onla ¿pazientziya biar ezta? Bañan itz batzubec egiñ da juten dira pakian echera. *(Segica).*

AMAIRU GARREN IRUDIA.

XIII.

ON MACARIO.

(Gaceta ta caja borobil bat escubetan ditubela).

MAC. Lumero seireun ta lau. ¡Ogei milla duro! *El caso es que* pisuban jarriric alde batetic Andre Josheparen urtiac eta itzuzitasuna, ta bestetic ogei milla duruac chanponetan, balantza diruben alde jeizten da. ¿Zertaco bada geyago *dudatu?* Emantzagun askeneco golpia mazapanesco subia onekiñ. Bera Evaren alaba da ta elducodiyo sagarrari. *(Atia jotzendu)* ¡Andre Joshepááá! *(ojuca).*

AMALAU GARREN IRUDIA.

XIV.

ON MACARIO ta ANDRE JOSHEPA.

ANDRE J. ¿Emen altzan D. Macario?

MAC. Bai, bai Andre Joshepa. Egin det nere afari mocaduba *de modo que....*

ANDRE J. Nic ere artudet nere colasiyo pithiña.

MAC. Bai. Neriare colasiyua izandu da. *Buen provecho.*

ANDRE J. *Igualmente.* ¡Ayyy! Nere senarrekin beste moduz oituba neguan! Ez dakit beñere contatu izan diyotan....

MAC. Bai, bai: contatu izandu nau ogei milla aldiz ere. *(Bitartiontan guztiyan, larri larri dago D. Macario.*

ANDRE J. Oraindala ogei ta amar urte ni escondutaco bigarren urtian Bilbaon geundela...

MAC. Bai, bai Andre Joshepa badakit.

ANDRE J. Bañan ez: ustedet Vitoriyan giñala... Ori da, Vitoriyan; zergatic Bilbaon izandu giñan geruago izeba bat icusten, eta *por cierto que* an giñala esconduzan bigarren aldiz tropaco medicu batekin juandan gerratian iltzana... bañan ez, ez, etzan medicuba, zergatic medicuba zan nere lengusu Ritaren senarra gerostic alargun gelditu zana. Ura escola maisu zan... bay, bay, jushtu, escola maisu. Ayec icusi zuten *semper*. Oraiñ *acordatzen* naiz arren escolara jutentzirala nere lagun baten semiac; gajua colerekin juntzan....

MAC. ¿Shorraren batalloira?

ANDRE J. Iltzan ta....

MAC. Bai, bai....

ANDRE J. Ez bada. Etzan colera denboran ill. Colerekiñ iltzana zan bere aizpa Kiteri gero escondusana injeniadore batekin....

MAC. ¿Il da gero?

ANDRE J. ¡Ay, ez! Orduban etzan ura colerekin iltzana. Nic *confunditu* egiten nituben....

MAC. ¡Au itz ontziya! Emen dacat bada *de paso* beorrentzat.... *(Caja emanic)*.

ANDRE J. ¡Ay zertaco *incomodatu* da! ¡Zer aingira polita!

MAC. Bai, subia. Gure biziya Paraisua izateco ez da ezere falta. Beorri Eva, ni Adam eta ona subia.

ANDRE J. ¡Zer gauzac esaten dituben!

MAC. *Unicamente* escontzeco paperac aldan lenena....

ANDRE J. Bai, bai D. Macario, ¡Ayy!

MAC. Eta orain conturatzen naizela. ¡Beorrec izan biar du loterico dezimu bat?

ANDRE J. Bai, bost peseta aundi *gastatu* ditut. Amarren artian degu.

MAC. ¿Badaki bada? Ogei milla....

ANDRE J. Ez degu ogei millaco numerua. Lareun da sei.
MAC. ¿Zer? ¿Zer? Seireun da lau izangoda.
ANDRE J. Ez, badakit seguru lareun da sei dala.
MAC. ¡Ay! *Equivocatu* egingozan.
ANDRE J. Ez: emenchen dacat *portamonedan* gordia.
MAC. *¿Aber aber? (Estuasunekin).*
ANDRE J. Ara.
MAC. ¡¡Lareun ta sei!! ¡¡Ay, ay, ay! ayyy!!
ANDRE J. ¿Zer du D. Macario? Izutzen nau.
MAC. Seireun... ¡ay! Lareun... ay! ay, ay. *(Chorabiyuekin).*
ANDRE J. Miñ egintzayo. Sereno, sereno, atoz aguro. ¿Nai aldu baso bat ur?
MAC. ¡Lareun.... seireun...!

AMABOST GARREN IRUDIA.

XV.

ON MACARIO, ANDRE JOSHEPA ta SERENUA.

SER. ¿Zer da, zer da?
MAC. Ezer ez.
ANDRE J. ¡Ay! ¿Pasa altzayo?
MAC. Bai, bai. Utzi.... utzi.
ANDRE J. ¿Gogüen contra jarri altzayo zerbait?
MAC. Bai, ogei milla... modutara gertatzen dira gauzac ta... esango det egiya. Nic uste nuben, Andre Joshepa, beorrec zubela premiyo aundiya ta...
ANDRE J. ¿Nic?
MAC. Bai. Bañan seireun ta laura erorida... ona gazeta.... beida.... Beorrec du...
ANDRE J. Lareun da sei.
MAC. Ori da guztiya.
SER. Ta orrengatic *desmayatu?*
MAC. Ogei milla duro orren erresh uzten aldira bada escu tartetic?

ANDRE J. Ay pena da bay, bañan... ez du *importa*.
MAC. ¡Ta oraiñ escontzera gijuacenian!
SER. ¡Bai! Gaurco egunian escontzendira franco nun erori ez dutenac!
ANDRE J. Maitasuna izan ezkero eta *al mismo tiempo* contu egiñic ondo beorren chanponari....
MAC. ¡Nere chanponac! Corrituban jarri nituben eta ainbeste corritu dute ez dakitala noraño jundiran.
ANDRE J. ¿Nola? *(Estuasunekin)*.
MAC. Malcarrot egiñ duben echiekin. Ez det arditican ere.
ANDRE J. ¡Ay; ay, ay! *(Chorabiqua)*.
SER. ¿Oraiñ onec?
MAC. ¡Andre Joshepa, Andre Joshepa! *(Deica)*.
ANDRE J. ¡Ay, ay, ay!
SER. ¡Au bai dala comediya!
ANDRE J. ¡Ay, suerte gaiztua dacagu!
MAC. Egiya Andre Joshepa.
ANDRE J. Eta gure escontza....
MAC. Obe genduke utzi datorren urteaco.
ANDRE J. Obe izango da.
MAC. Denbora dacagu oraindic....
ANDRE J. Bai: urte batzubec gora bera....
MAC. Maitasuna danian....
ANDRE J. Guc bezela, ichogotenda.
SER. ¿Zer esan biardute jauna abec? *(Publicuengatic)* Orrenbesto jenderen aurrian ez ta comeni orlaco gauzic esatia, eta obetago egingoluteke echian sartzia.
MAC. Echian itz egingo genduke, bañan ez dakit nic zeñec jarrigaituben calien erdiyan otz onekiñ...
SER. Obe biarrez esatendiyotet...
ANDRE J. Ondo esana da ¡Ay! gabon D. Macario.
MAC. Gabon Andre Joshepa. *(Bacuitzu bere echian sartzenda)*.

AZKENECO IRUDIA.

XVI.

SERENUA ta JENDIA (PUBLICUA).

SER. ¡Orra! Diruz eziñ aze dan jendia zertan gelditzen dan. Gu baño okerrago bizida. ¡Dirugose zurkeriyac! Igualecua da gure umiltasuna. *(Publicuari).* Barcatu, bañan beranduda, ni bacarric gelditunaiz ta junbiet beste cale ishkiñara orduba cantatzera. Beoentzat ere garaya izangoda, eta obeluteke egiñ echo bidia artzeco moduba. Gabon.

PUB. ¡¡GABON!!

(Lengo orkestilla pasatzen da batetic bestera pasacallia juaz ta jeiztenda burtina).

BUCAERA. (1)

(1) Izkribatulitezke—josteldi geyago—bañan egiñ ditut nic—makiñabat sayo —¿Lanaren gañez jarri—dirua? ¡ze arrano!—ez det Salamancarajun biar ortaco.

BIBLIOTECA
SAN SEBASTIAN

H-27254
R-15626
ATV 10.207

¡ATERAKO GERA!

JOSTIRUDIA, EGINTZA BAKARRAN

TORIBIO ALZAGA-K

IZKRIBATUA.

Pozo eta C.ª-ren moldizkiran.—Fuenterrabia kalian 6, lumeroan
DONOSTIAN.

On Marcelino Soroa Lasa jaunari

EUSKERAZKO JOSTIRUDI IZKRIBATZALLE DOAINDUNA ETA MAISUARI, DONKITZEN DIOT NERE LENBIZIKO ARGITARATZEN DETAN LANA.

EGILLEAK.



EGINTZALLEAK.

ANTHON.

PELLO ATRAKA.

JOSHE PIPASH.

ON JOSÉ GEÓLIMO.

TANTI (selaoria).

PACHI (ume koshkorra).

Gertaera iruditzenda Donostiyan.

Donostian 1888garren urteko Euskal-itz jostaldietan sariztatua eta batzarreak argitaratua.

EGINTZA BAKARRA.

Irudi tegiak aurkeztatzen du sagardoteri bat. Egilliaren ezkerretara barrika bat nundik saltzen dan sagardua, eta inguruetan upelak, barrikak, aikiluziak, suba egiteko arriya, kargakua, ouilla... Barrikatik zintzillik krisalluba, eta choko batian erratza. Sarrerako atia, atzian erdi aldian irubat malla jeshten dirala. Eskuyian aurre aldian beste ate chiki bat patiñara ematen dubena.

LENBIZIKO IRUDIA.

I.

ANTHON.

(Burtiña alchatzeakuan agertzenda sarrerako atian kanpora izketan.—Gero aurreratzen da).

¿Aterako ote gera bada?—Abek ishtillubak oraingo lege berri chachubabekiñ! Eziñ ginteske orla iñola ere moldatu. ¡Ez gera aterako! ¿Nola bada? Sagardua upelategira ekarri, eta andik

denbora puska batera etorriko dira *sinta* traste batekiñ, eta neurtu batera, neurtu bestera, lumeruak egiñ, papela sikindu eta.... ¿orla asmatu oyek senbat sagardo dagon barrenen? Ori da, neri sugurra neurtu, eta zer jan detan asmatzia bezela. Okerrena da berriz, beti sagardo jabien alde kontubak ateratzen dituztela; bai noski, nik baño obeto esku aspitik ematendiyotelako. Oraingo jendiak uste dutelarik dena badakitela, eser ez dakite..... ¿Ezta bada egiya? Oraiñ sagardua dan ero ez dan esagutzera eraman asitzen dizkigute *muestrak* sereko seraren serien sirien surien suluen.... sera.... guasen *klarinete kaniketakua*.... ero dana dala. Ayek omen dakite.... Beren bisi gustiyan ez suten gero baso erdienbat erangore-ta ¡oyek guri erakutzi zer dan sagardo ona! Oraindik euskeras dakigun ero ez, esatera, bialduko gaituste Alemaniko konsulen gana!—Eraman genduben orain dala denbora pishkabat ere, barrika ontatik muestra bat pitarren isenian, eta iya illabeteren buruban emanziguten pitartzat saltzeko baimena; baño sagardo-jabia asarretu egintzan arrek sagardotzat saldu naisubela; ostea eraman asi sigun, eta amabost egun sar botilla an irukirik ¿sagardotzat ez-sigun bada eman ageriya? Ja! ja! ¡Orrenbeste denboren buruban binagretu-ere egin sitekian! ¡Oyek ez dakite ser dau sagardua, ez pitarra eta ez patharra!— Obeluteke Pello Atraka-ri deituko baliyoteke probatzera; arrek obeto esagutukoluke

bai, ona edo charra dan dosen-erdi bat baso eran eskero! (Ishirtzen da barriken aurreko kadiran). Eta gero or dabill kalietan prantzes aundi bat "¡*Lau lau!*„ oju-egiñik ingurdu alako bat saltzen, eta orri ez diyote eraman-asitzen muestrik.... ¡Gisarajua! Obere badu bai, bestela jangoliyoteke karrua-ere, kurpill eta gusti....!

BIGARREN IRUDIA.

II.

ANTHON eta PELLO ATRAKA.

ATRAKA. Eup!

ANTHON. Kasho Atraka, ¿zer degu?

ATRAKA. Bageala.

ANTHON. ¿Itzasora-gabe?

ATRAKA. ¡Bo! Galernaso madarikatu-bat ateradik, eta legorrian gelditugaituk.

ANTHON. Bejondaisutela, urtara eziñ danian, sagardotara.

ATRAKA. Askos ere, segurubo dek.

ANTHON. Ez sekiat bada, urtan esais beñere ito, baño.....

ATRAKA. ¿Ik zer dakik?

ANTHON. Mutill, ala uste-nikan biñipin.

ATRAKA. Norbaitek esangosikan eta.

ANTHON. Bai, nik ala zeukat buruban ez aisela beñere urtan ito, baño alakoren batian sagardotan itoko aiz.

ATRAKA. ¡Ederki eman ere! ¡Ez bazekiat bada nik yayo igari!

ANTHON. Legorrian bay, legorrian!

ATRAKA. Tira, tira, berriketa guchi eta bete baso bat.

ANTHON. (Garbitubaz basua). Senbat garrena?

ATRAKA. Oraiñ sartu nak, eta ¿senbat garrena?

ANTHON. (Betiaz). Ez aldek lenokoik?

ATRAKA. Ez gisona, lenokuak..... denak eran niskikan.

ANTHON. Ez diat ori esaten. Galdetzen nikan lenokoik ez dekan zor.

ATRAKA. Bai sera, arrantzaliak oso ondrarubak gaituk. Ez degunian — garbi esatia obedek—es diagu pagatzen; bañon degunian..... (askotan ere ez).—Aurtengo neguban ere nik arrapatzen detan bishigurik aundiyena iretzat isango dek.

ANTHON. Juandan urtian besela, neretzako ekarri, subek jan eta arrekiñ erantzenuten sagardorik pagatu gabe itzul egiñik. To, to (Emanaz basua. Atrakak eratendu botiaz kondua). Esnak ni legorreko arrantzaliakiñ fiyatzen.

ATRAKA. Ez dek legorreko arrantzalerik isaten.

ANTHON. Ez sekiat bada, Joshe Pipashek legorrian, itsasuan bañon lupi geyago arrapatzendiskik.

ATRAKA. Pipash-ek..... nai dubelako. Gisarajuak amaika misheri pasatzendiskik; lenguan ere geyegi jan eta..... gosiak gelditu.

ANTHON. Bai, eta pagatzerakuan gogoratzia astu.

ATRAKA. Gison ori bañon droleroik ez diat ikusi. Beti berriketan arikouke, belarriyetatik itza dariyola, eta batea edo bestea egitendik moduba pagatu gabe itzuli egitekua.

ANTHON. Oyek beliarena egiñ eta gero sagar-

duen kontubak eshkash. Nagusiyari pagatutzeko beñere dirurik osatzen ez. Batetik neurtzeko usariyo berriyakiñ ogei ta bost kargako upelari ogei eta amar eman.....

ATRAKA. Ez dik karga charra iruki biar.

ANTHON. Eta gero jariyuak, eta mermak, eta sagardua sartzia gure kontu, eta upela garbitzia, eta sebatzia, eta.....

ATRAKA. Ortara eskere, ustu ere obe senuteke seonek seonek egiñ.

ANTHON. Anbat ori ere.

ATRAKA. Bañon askenian, subek negar asko egiñ-atikan erostunak bordindu biar isaten diskik suben eskasiyak.

ANTHON. Bai eta zera ere.

ATRAKA. Bai bada; baso chikiya jarri eta ura ondo betere ez, botilletan guchi gora berako neurriyak eta.... beste chirriyo asko.

ANTHON. Gaurko egunian pasakodituk neurri kontubetan, emen dituk beti ikusten poto lege berriko-oyek eta eroseiñ gausen gatik, zapla *¡multa!*—Lenguan ere, patiña zikinduba seguelako ¡bi peseta zar multa!

ATRAKA. Orlakuan seladoriari baso pare bat eman eskero ishilik pasakoik.

ANTHON. Batsubek bai, bañon badek gallego buru andi bat, gashtuo dek zezen naparra bañon. Onera etorri ukan bere parajetik erdi gosiak, eta oraiñ puru aundiya españetan arturik, markesa diruiyela or zebillek pasiatzen kalietan.

ATRAKA. Eta orrenbeste zikiñ altzegon patiñan?

ANTHON. Bay sera! Dosen erdienbat legatz buru, sardiñ ustel batzubek eta orlako beste serbait..... seladoriak berak kraka geyago sekakan chapelian.

ATRAKA. Orduban emendik aurrera, mais garbitu biarko dek.

ANTHON. Bai, ari nak beti garbitzen, bañon nik garbitu ala, goiko jendiak zikintzen ziatek.

ATRAKA. Ayeri ere, multa eman azi.

ANTHON. Bay bañon, emendik eramaten ditek sagardua, eta asarretu eskero ezlitukek geyago etorriko.

ATRAKA. Orduban, oyeri bai chiskatzia neurriyetan? e? patiña garbitzia ere ¿sagarduan kargatuko diyotek?

ANTHON. Sagardo jabiak bai, kargatzentziskiak ogei ta bost kargako upelian, ogei eta amar.

ATRAKA. Ik berriz guri ogei eta amaika eta partira.

(Soñu aundi bat patiñan zerbait eroriyena).

ANTHON. ¿Zer da ori? (juaten dirá patiñako atera). Oi, arkumia siruik.

ATRAKA. Cherriko umia dek.

ANTHON. (burlaz) Bai zera piper morruekiñ (barrena sartuta eta ostera ateratzen da) ¡Katuba dek!

ATRAKA. Ja! ja! ja! Iyiya asmatu ukan!

ANTHON. Ez dek oraiñ iñor etorriko ez mokaru goshu orren billa. Emen zebiltzik egunero: alkandora erori sayotela, ero pishoyala, ero.....

ATRAKA. Urdai aspikoren bat.

ANTHON. E! Gausa oyek ondo gordetzen diskitek bai..... alakorik balitz, aguro garbituko nikek patiña.

ATRAKA. Bay eta urdai aspikua ere.

ANTHON. Lenguan erori zitzaotekan..... zera..... ustayekiñ egiñ tako barrika-erdi alako bat... bostgarren bizitzako neskak atzeko koskorrak egiteko isaten omendik.

ATRAKA. ¡A, *polisiyakua!* Oraingo neskak ala ibiltzen dituk beti beren *polisiyakua* atzetik dutela.....

ANTHON. Orain nik oyen zikiñak garbitu egin biarko diskiat.

ATRAKA. Utzisak etorriko dituk.....

ANTHON. Bai, etorriko dek..... seladoria bi peseten billa (Erratza artu eta garbitzera dijua).

ATRAKA. ¡Orla aterako ais!

ANTHON. Atera biarko diat garbitze eskero. Bitartian egintzak faore sagarduari kontu artzia. (Juaten da patiñará).

ATRAKA. ¡Ba, bai! Ni emen nagon bitartian ez dek sagardorik alperrik galduko.

IRUGARREN IRUDIA.

III.

PELLO ATRAKA.

(Juaten da barrika-ra, ishiri kadiran eta betetzen du baso bat).

Oraiñ ere, aterako nais bada ni. ¡Au mauka! *Choch* berriko sagardu-onekiñ sartzen diyot *siriya* Anthon gisarajuari! (Begiratubaz baso betiari). Sagardu-onek bada, ez du aiñ kolore fiña..... Neretzako, ona izateko emenguak, lasto koloria isau biardu, ala da fiñago eta argiyago..... esantzagun gorri anchekuak ere ez dirala charrak, zergatik dirán gorputz geyagokuak.—Orra berriz Asturiskuak es izanagatik kolores chit gaiñ gañekuak eta gañera mechuak, alas gustiyas ere ez dirá charrak ez

izan eskero pasatubak. Gashi punthukuak gustatzen zaiskit..... baita gosho anchekuak ere, eta sagardo garratz chinpartak botatzen dituben ura, askeneko Amasorrañen saldu san bezelakua, ura, ura gausa, ura, ura san ura, urik gabia..... esantzagun besteren biskar izan eskero eroseiñ erateko pronto nagüela baita eskubetan daukatan oliyo koloriau ere. (Eraten du).

LAUGARREN IRUDIA.

IV.

PELLO ATRAKA eta TANTI.

(Tantik totel itz-egitendu. – Sartu eta gelditzenda atien aldamenian, beti bildurraz kanpora begira).

TANTI. Etun on echetuat.

ATRAKA. ¡Oí! Tanti ¿i al-itzan? Norbait sala ustenikan.

TANTI. Alatañetan Ataka sadaldua talten. *¿Tomeltiante* taltu alais?

ATRAKA. Zer edo zer egin biarkodiagu orrenbeste alper mantenduko badegu.

TANTI. Pataitalena! Bela sadaldoteyan eta.....

ATRAKA. Y nun ago bada?

TANTI. Talto batian etoli nak oldia; tia ekatzak bato bat eta baniak kolika kolika.

(Atrakak betetzen-du basua eta eskaintzen diyo Tantiri. Onek egiten-du artzea, bañon ez du artzen).

ATRAKA. Ez zerate gaizki bizi alper char oyek.

TANTI. Y betela. Atzole teatuan egon oldubata alte eta gaul goitian teyetan kalea otea.

ATRAKA. ¿Teatruan e? Obedek bai lanera bañon ara juan.

TANTI. Aintze uten totia.

ATRAKA. ¿Gauza politak egingo diskitek e?

TANTI. Tiltuan, tiltuzn..... mutil an bai edelki: taldiya atea toli ta toli eta deo tomediantia dañian eta taldiya toli eta disonak talto, eta tlapuba tali ta talto, eta deo matila ta talto, deo utaya ta talto, eta.....

ATRAKA. Gero barrika..... (Aa gustiya presaka).

TANTI. Ta talto!

ATRAKA. Gero upela.....

TANTI. Ta talto!

ATRAKA. Mutill!!

TANTI. Ta talto! ta talto, ta talto! ta beti toti batian!!

ATRAKA. Bejondaikala!

TANTI. Ez zea, teato tikiyan betela: beliketan asi tolti teldiyetan eta ishildubae amabiteldiyak alte..... eta etitek eiten talto thikibat ere..... esta onenbestele (salto egiñaz).

ATRAKA. ¿Eta ayen berriketak aitziagatik pagatu?

TANTI. ¡Oli! oli!

ATRAKA. Pagatu-gabe aitzen dizkiagu kay aldian (batere ez dakitalarik) ayek ez beselako berriketalayak.

TANTI. Bañon tiltuan.... mutill, ula! ula dausa! sotatik tintilik disona, eta buluba anken dañian tali, ta deo estubak buluben dañian, eta alen dañian tlipa, eta tlipen dañian abua, eta.....

ATRAKA. Mutill!

TANTI. Eta deo talto!....

ATRAKA. ¡A bai! Ortik aurrerakua basekiagu!

TANTI. Dausa oyek atoldatzian sadaldua elate-

ko dodua editentzat.

ATRAKA. To, bada, to! emen niok ordubetiontan sai.

TANTI. Etatzat (Besua lusatzen du, bañon basua artu baño len, juaten da atera begiratzera, eta atzeratzenda presaka) ¡Eletiolia! ¡Eletiolia! ¡Batiak ni!! (Juaten-da korrika).

ATRAKA. ¡Ja! ja! ¡A zer isuba! Ori bai dijuala toli ta toli, talto ta talto. ¡Ja! ja!..... ¿Eta oraiñ zer egingo det nik basu-onekiñ?... Alperrik galtzia bañon, alperrik eratia obe dala, da esaera, eta.... eran egin biarko.

BOSTGARREN IRUDIA.

V.

PELLO ATRAKA, ON GEOLIMO eta gero ANTHON.

(On Geolimo sartzen da Pello eraten asten danian, eta orduban juatenda patiñ-aldera basua gordiaz).

ON GEOLIMO. Jaungoikuak egun on dizutela.

ATRAKA. (¡Oi! Sagardo jabia!) Bai jauna, orainchen juan da patiña garbitzera; beriala deituko diyot. Anthon!

ON GEOLIMO. ¿Emen aldago Anthon?

ATRAKA. Bai jauna bai, beriala etorriko da. ¡Anthon! Anthon!!

ANTHON. ¿Nor da? (jotzendu Atraka eta botatzendiyo basua).

BIYAK. ¡A!

ANTHON. Katubentzako alukan? (nagusiya ikustendu) (¡Oi! ¡nagusiya!) (igesi patiñara).

ATRAKA. Iya ishuri-ukan (atzetik igesi).

ON GEOLIMO. (Atzetik, Anthoni jiraka) ¡Anthon!¡Anthon! ¿Nora suas?

ANTHON. (Bueltatu-ta) Nagusi jauna, barkatu besa ez nuben ikusten ere.

ON GEOLIMO. Ordubetiontan emen nago sure sai.

ANTHON. Eta ¿ez aldu nere andria ikusi?

ON GEOLIMO. Ez.

ANTHON. Ez da bada ordu laurdenik ere, alde egiñ dubela.... serea juanda, sereko serea.....

ON GEOLIMO. ¡A bai!

ANTHON. Ez jauna, ara ez, bestera. Azkena neurtu san upeleko sagarduen muestra eramatera..... Bestiakiñ aña denbora pasatzen badute, datorren udaberriyan saltzeko moduban isango degu jauna.

ON GEOLIMO. Presa eman biartzayote bada.

ANTHON. Nik uste det jauna, aguro bueltatzeko, presa bañon chanpon batzubek ematia, obe isangolitzakela.

ON GEOLIMO. Ori esda ordia ondo egiña.

ANTHON. Grothi grothi ere, etzan ondo egiña bañan, or ibiltzentzan kalei kale bere jiba biskarrian zubela.

ON GEOLIMO. Begira Anthon, guri komeni saigu lenbailen saltzia, eta aldan modurik onenian.

ANTHON. Bai jauna, bai. Aldan merkiena.

ON GEOLIMO. ¡E! Aldan gaishtiyena da neretzako modurik onena.

ANTHON. Bañan saltzeko modurik charrena ere bai.

ON GEOLIMO, Erariya ona izan eskero, pishkabat gaishtishiago izana-gatik saltzen da aguro.

ANTHON. Nik ez det konprenditzen jauna, sergatik andria dago ontan oituba bañan.....

ON GEOLIMO. Ori gausa erresha desu.

ANTHON. Bai jauna, upel-ortatik ogei ta amar karga saltzia bañon erreshagua.

ON GEOLIMO. Salduko dirá bada gisona.

ANTHON. ¡Lana franko!

ON GEOLIMO. ¿Zergatik ez bada?

ANTHON. Zergatik nola ogei ta amar kargik sartu ez diran, aterako ez diralako jauna.

ON GEOLIMO. ¡Aterako dira!

ANTHON. Beorri bai, aterakolitzake alakorik balitz, bañan ¿nola naidu ez dan tokitik ateratzia? ¿Upelian jayotzendala ustealdu bada sagardua? Upelian geyenas ere *batayatu* egiten-da jauna!

ON GEOLIMO. ¿Bañan gisona, nola arisera izketan? ¿neurtu berriya bada upela, eta esanbadute ogei ta amarrekua dala?

ANTHON. ¿Oyek zer dakite? ¿Zintakiñ neurtu upela? ¡Nik alare galtzen neurriyak artzen ari sirala uste nubon!—Sekulan ez degu orlako usariyorik esagutu.

ON GEOLIMO. Ori da neurririk shushenena. ¡Pentzasasu ala izango dan! lenago upelategiyontan ez ziraten eun eta amar karga besterik kontatzen, eta oraiñ neurri berriyakiñ baditut eun eta berrogei ta saspi.....

ANTHON. Ez jushtu ibilliko balirake. ¿Zer bada? ¿Aunditu egiñ aldira upelak?

ON GEOLIMO. Ez gisona, ez.

ANTHON. Orla juaten badira asitzen, lashter itsasua kabitzeko diña ontzi izango du jauna. Upelori beti, ogei ta bostekotzat esagutu isandudegu.

ON GEOLIMO Ez ordia izan.

ANTHON. Ala izanduba beti jauna.

ON GEOLIMO. Oraiñ artekua saltza bat besterik isan-

du ezda eta orla subek egin ditusute kuartochuak.

ANTHON. Bai, guretzako beti saltza eta jakiya beorrentzat.

ON GEOLIMO. Oraiñ gausa askos ere garbiyagua da.

ANTHON. ¡Shalchik ere ez oraiñ!

ON GEOLIMO. Alabaindikan ere, bakoitzak bere kontubak atera biar ditu.

ANTHON. Naidituben kontubak ateriagatik, ez du ortik ogei ta amar kargik aterako denboren denboretan ere, ogei ta bostekotzat esagutu izan degu eta ala izan ere da. ¡Zinten neurriyak! Neurtu besa kargakuakiñ; ¿ez dubela ogei ta amar aldiz betetzen? Ala balitz, saltzerakuan dirubak jushtu atera biarluke eta ez eshkash gertatzen dan bezela.

ON GEOLIMO. Nik ez det orrekiñ egitekorik, zubek kontus aritzen baserate saltzen, ondo aterako da gausa, ikusikodesu.

ANTHON. ¿Naidu esetz?

ON GEOLIMO. Ez, nik bayetz naidet.

ANTHON. Ni kontu gustiyakiñ egongonais, eta ikusiko du zer gertatzen dan.

ON GEOLIMO. Ia bada.

SEIGARREN IRUDIA.

VI.

ANTHON, ON GEOLIMO eta JOSHÉ PIPASH.

PIPASH. Atrakatu eta *fondo* eman biardegu emenchen.

ON GEOLIMO. ¿Emen altzera *alporja?*

PIPASH. ¿Ondo eta beorri On Geolimo? ondo serbitzeko; ba jauna bai.

ON GEOLIMO. ¡Ja! ja! ja! Beti choro, beti orla.

PIPASH. ¡Bijua ondocho! Kontus ibilli ¿e? itsaso gashtua dago ta!

ON GEOLIMO. Zu kontus ibilli zu..... *mariatu* gabe.

PIPASH. ¡E! Atuajia jakiñen gañian dago.

ON GEOLIMO. Ariyo Anthon. Esanak esan, Ia shushen ari eta zer ateratzen dan. (Juaten da).

ANTHON. Ni nere itzian nago jauna. Bijua ondocho!

PIPASH. ¿Kasho Anthon, zer gison modu? Ekatzak baso bat sagardo, lo ez baldin baago.

ANTHON. Lo niok.

PIPASH. ¡Oi! Ez dek gero batere esagun. Badiruik ametzetan abillela bañan..... lotan ez.

ANTHON. Mutill, utzi nasak pakian asarre niok eta.....

PIPASH. ¡Aishkiratzen lana! Ni eznak beñere asarretzen, ni beti umore onakiñ....! Oraiñ ere abiyadurik batere artugabe... erangoniskikek sei baso sagardo bata bestien ondoren.

ANTHON. Eran obeto egingo dituk bai, pagatu bañon.

PIPASH. Begirasak bada. Neri ez saat gustatzen sorrik iñun isaterik eta ezta..... pagatzerik ere!

ANTHON. Ori dek.

PIPASH. ¡E! Chirrishtatu egiñ nak. Ez nikan ori esan nai.

ANTHON. Nai ez dekala esandek egiya.

PIPASH. Gisona, gaur bañon pobriago ¡isandu gaituk bada! ¡Diruba obeto sekagu agiñeko miña bañon! Achua-ri aterasiskat saspi kuarto chiki bat ardo eta laurdeneko opilla erosirik amaiketakua

egiteko, eta beste saspi..... milla duro banitu ez nikek ire inbiriyik isango!

ANTHON. ¡Aisak i! ¿eta sagardua serekiñ pagatzeko asmua dek?

PIPASH. Gausa orren gañian, gero itz egingo diagu.

ANTHON. Ez diat emango.

PIPASH. ¿Orrenbeste es alais fiyatzen?

ANTHON. Ez, ez, ez! ¡Ez diat emango!

PIPASH. To makilla, (makilla bat arturik) eta egiñ akiyok koshka ¿e? eta.....

ANTHON. ¡Ez nak ari! Makill-ontan egiñ edo itsasuan egiñ bat dek!

PIPASH. ¡Pagatuko-diat bada! ¡Basobaten juan etorriyagatik orrenbeste salaparta! ¡Ona ago i, ni besela saspi milla duro artzeko isateko!

ANTHON. ¿Noren gandik?

PIPASH. Gobiernotik.

ANTHON. ¿Nola?

PIPASH. Sekulan eser ez diat artu eta, artzeko nagolako.

ANTHON. Leubiziko artzen dekanian etorri ari bada eta orduban emango diat.

PIPASH. Gisona, beiñ esan eskero pagatukodetala ¿ez alais fiyatzen?

ANTHON. ¡Ez nak fiyatzen ez! To (emanaz). Bañan ez aiz gaur emendik aterako pagatu gabe.

PIPASH. (Basua artu eta) ¡Aterakogaituk!

ANTHON. Zeladoriari deituko-siuat.

ZAZPI-GARREN IRUDIA.

VII.

ANTHON, JOSHE PIPASH eta PELLO ATRAKA.

ATRAKA. ¿Juan alda?

PIPASH. (Pipa pishtubas). Ez Joshe nak, legorres.

ATRAKA. Legorres itsasos bañon obeto isango dituk bai, suben treñeroko jendiak.

PIPASH. Gure treñeruan bezelako jende lirañik ez dek kosta ontan gustiyan, eta panparroikeri guchi atera biardesute ba espacho arrantzale sarpasuboyek!

ATRAKA. Ishilik ago. Suben artekua isatia lotzatu biardik eta.

PIPASH. Y egongo aiz ishilik, i!

ATRAKA. ¡Nai badet!

ANTHON. ¿Asi altzerate?

PIPASH. Askoik ez amar urtiabetan.

ANTHON. Basekiat zer esaten detan.

ATRAKA. Onek ez daki ordia zer esaten duben. ¡Asto! ¡¡Babo!! ¡¡¡Lukainka!!!

PIPASH. Ala banitz jango nindukek.

ATRAKA. Ez aiz ordia jateko ona.

ANTHON. Ez dek bada charra erateko.

ATRAKA. Ortarako bai eta tabernan salaparta dariyola, bere gesurresko asiyuak kontatubaz jendia engañatzeko. ¡Itsasuan, itsasuan esagutzen-dek sein dan gisona!

PIPASH. Gausa ona isateko arrunka geyegi dabillek! Eshkoteko kalan abillenian eta mendabal sakarra ateratzen dubenian ez dek orrenbeste agertzen buruba.

ATRAKA. Ik bañon geyago.

PIPASH. Ederki eman ere.

ATRAKA. Mutill, pipa besterik ez zaik ikusten!

PIPASH. Lenguan ere, ¿zer ordutan siñaten *Shuesteko* kalan?

ATRAKA. Guk ordubatateraiyan belatugenikan eta bire erdiraño etorri gindukan oker oker auuu! eta bat batian *kalma!* Chapela bete aise naikua echera etortzeko eta ¡aguantian etorri biar ler egiten!

PIPASH. Gu berriz, subek bañon nekezago ateriagatik, laja subek atzian, eta erriya bishtatu senuteneako ¡bi puntetan gindukan!

ATRAKA. ¡Ala dek bai! Nik alare suben chalupa arrantzako baforia sala uste nikan, ire pipak botatzen suben kiekiñ. Orlako kaldera isan eskero ¡irabasi biar estropara!

PIPASH. ¿Eta beste kalan?

ATRAKA. ¿Zeñetan?

PIPASH. *Bastar kantinan.*

ANTHON. Kantinan ez baño, sagardoteriyan alkar topatzen dute abek.

ATRAKA. Mutill, ez zakala ori aitatu, bastar gustiyak sorres betiak dakaskik eta.

PIPASH. Ire andriak aña ogi ez diagu bada sor, subek beziñ lotzagabiak ez geralako.

ATRAKA. ¿Ogiya? Ire amak obe sikan ire tokiyan sei librako ogi aundi bat egin basuben!

PIPASH. Ara bada emen gison galanta, ¿kabituko ote da au iñun? Eche-errenta pagatzeko bañon ortarako obia aiz.

ATRAKA. Berriketa guchi gero emen ¿e? Bestela emangodiat begiondoko bat.....

PIPASH. ¡Gausa isan biar!

ANTHON. Ez gero emen okasiyorik jarri.

ATRAKA. ¡Ago ishilik kintua!

PIPASH. ¡Y egongoais bobiskum!
ATRAKA. ¡Katillu ez besteren katillu!
PIPASH. ¡Astua!
ATRAKA. ¡Babua!
PIPASH. ¡Y beselakua!
ATRAKA. ¡Emango diat! Eskuba alchatu-ta).
PIPASH. Artuko dek (Baita-re. Pishkabat egongo dira alkarri begira eta bat batian aishkiretzendirà).
ATRAKA. Guasen eratera baso bana (Juatendira barriken ondoren eta eskatzendute).
ANTHON. Beti beselako errematia aben erromeriyak; itsasuan asi eta sagardoteriyan bukatu.
ATRAKA. Anthon, ¿chukun chukun utziko ukan patiña?
ANTHON. Bai sera, lenbiziko bizitzako atzua asi dek berriketa dayola eta ez diat ezer egiñ, katuba eta beste zikiñak bertan gelditu dituk. ¡Goshua ziok iñor etortzen bada!

ZORTZIGARREN IRUDIA.

VIII.

ANTHON, PIPASH, ATRAKA, TANTI eta PACHI (gero).

(Eratendutenian botatzen dute kondua ate-aldera eta nola orduban sartzendan Tanti bustitzendute).

TANTI. ¡Bapo! Plei edin nasute.
PIPASH. ¡Oi Tanti! ¿Ser egin ditek?
ATRAKA. Chanchetan ukan.
PIPASH. *Multa* emanakiyok..... Anthon-i.
ANTHON. ¿Neri?
TANTI. Bat eo bati bialko. Ez takitute zer pasataitan.

PIPASH. ¿Zer bada?

TANTI. Badakik Ataka len isandu naitenian kolika nola atela naiten elejiolia ikutita ¿e?

ATRAKA. Bai emengo sagardo jabia.

ANTHON. Emen isandu dek.

TANTI. Ateatenak arren idesi eta kabua bete ikiñan alatañetan.

ATRAKA. Orduban *talto* egin biar ukan.

TANTI. Deitu eta daldetu siat.—"¿Zel zabiltza sadaldoteyan?„—Nik zer esan tatin ez eta esan ziuat patiña ikusten nitala eta..... sikiña daola.

ANTHON. ¡Gesurra!

PIPASH. Anthon, chautu au.

ANTHON. Zikiñago dakak ik muturra.

PIPASH. Ikusi-sak (Juaten astenda eta gelditzen-du Atrakak eta atzetik Anthonek).

ATRAKA. Eta guasen..... ¿zer esandik kabuak?

TANTI. Bi peteta multa emateko, eta ona papela. Aber oaiñ teñek ematendikian bi petetak.

ANTHON. ¡Nik ez biñipin!

TANTI. ¡Bialko! (juan nairik).

ANTHON. ¡Ez chinishtu!

ATRAKA. Pipash-ek emangodizkik (gelditubaz).

PIPASH. Ba bai, ankak erantzi eta beriala emango dizkiat. ¿Zertan naidituk urretan edo sillarretan?

TANTI. ¡Beliketa guchi! Bat eo batek eman bialko titiak.

PIPASH. Mutill papela *kambiyatzeko* esaten nikan.

TANTI. Papelik *tambiyatu* bage fumatzen diat nit.

PIPASH. Nik berriz papelik bage (Pipa erakutziyaz)

TANTI. Enak ni emendik juango bi petetik bae eta ba espare patiña ikutea niak (juan nairik).

ANTHON. Ez dek ikusiko; ik gesurra esana ez diat nik kulpik (geldi tubaz).
ATRAKA. Garbiya siok. (baita-re).
PIPASH. Utzi-sayosute.
TANTI. ¡Utzi bialko!
ATRAKA. Zertara juan biardek, garbiya ziok eta.
TANTI. Ori etekiat.
ANTHON. ¿Zertako esandiyok bada zikiña dagola?
TANTI. Bestela etzikan chinistaten eta. Tia, tia, ikustea niak.
ANTHON. ¡*Angela Maria!* Ez dek ordia ori kontuba.
PIPASH. ¿Zer da bada kantuba?
ATRAKA. Ez katuba.. ..
ANTHON. ¡Ago ishillik! (Abua tapatubaz).
ATRAKA. Ez uala; oraiñ garbitu dik.
TANTI. ¿Ez alnatute utzi nai?
ANTHON. ¡Ez!
ATRAKA. ¿Garbiya dagola, ez aldek aitzen?
TANTI. Na espadetute utzi, edon; bañon enak ni juango bi petetik bae.
ANTHON. Naidubenak emango dizkik, nik ez.
ATRAKA. Gausa orren gañian itz-egingodiagu.
PIPASH. Mutill utzi sak kontubori..... Naigabia pasatzeko erantzak baso bat, nik iri laguntziatik ustuko diat beste bat. (Tanti-ri).
ATRAKA. Guasen.
TANTI. Ekatzak bada bato bat; bañon pagatubiakodek.
ANTHON. Ez chinishtu (emanaz baso bana irurari).
PIPASH. (Tanti-ri). Sagardu-au oso sanua dek.
ATRAKA. ¿Sagardo eriyik ikusi aldek?
PIPASH. (Tanti-ri). *Sainetian* esagutzen dek (Eraten dute).
ANTHON. Onek egindigu ateraldiya.
ATRAKA. Sarrera, sarrera egindik onek.

TANTI. Nik pagatu koitutala ute aldek baa?
ANTHON. ¿Nork bada?
PIPASH. Utzi sayosute tontokeriyorri! Nik emango diskiat. To! (Boltzillubak miratubaz). Ez dizkiat emen. Aste-egunetako erropetan utzi dizkiat!
ATRAKA. ¿Jayetakuak aldituk oyek?
PIPASH. Intzentzu egun-etakuak.
ANTHON. (Iruditegiyen aurrera jaaten dira labak) ¿Kanpana bueltakuak jotzen dituztenetakuak?
PIPASH. ¡Bai!
PACHI. (Azaltzenda chistuka eta champonakiñ botilla juaz). Chopin-bat sagardo! (Gelditzen-da barriken aurrian).
ANTHON. Baniak beriala.
PIPASH. Tanti ori dek gizon bortitza etorri aisena.
TANTI. Beti betela.
ATRAKA. Ustenikan jan biar gindubela.
ANTHON. ¡Chachub-oni begira!
PIPASH. Tira, tira ez ortas geyago itz-egiñ.
ATRAKA. Ori dek, umore onak bi peseta bañon geyago baliyo-dizkik.
ANTHON. Baita..... (Pachi asten-da kanillatik eraten eta ikusten-du Anthonek). ¿Zer ari aiz?
PACHI. (Alcha eta botilla erakutziyaz). Chopin bat sagardo.
ANTHON. Ichogontzak bada pishkabat. Berriz ikusten baat asiyuori egiten satitukoat.
ATRAKA. Bi pesetak oni atera.
TANTI. ¡Oli!
PIPASH. Tanti, subek gison jakintzubak zeatela eta.....
TANTI. Y bañon geyago.
ATRAKA. Ez dek gaitz.
ANTHON. Anbat.
PIPASH. Oraiñ ere jokatuko diat bada nik zein

dan geyago bertzuetan.

ATRAKA. ¿Ia?

ANTHON. ¡Ori, ori!

TANTI. Subek oldia, batalitalak betela tantatzen detute.

ATRAKA. ¿Nola bada?

TANTI. Neri dustatzen-zat musikakiñ.

PIPASH. ¿Zer musika?

ANTHON. ¿Thun-thun ena?

TANTI. Eliko musikak totzeitubenak. ¡Opelak eta!

PIPASH. ¡E! Orlako doñubetan ez ditek kantatzen bersolariyak.

TANTI. Basalitalak dialako.

ATRAKA. Ia bada, sein dan geyago, bakoitzak bere doñuban kantatubas.

PIPASH. Baita ortara ere egingo diat.

TANTI. Estali chala sekat oldia.

ANTHON. ¿Orrenbeste-añoko kantubak egin biar aldituk?

ATRAKA. Orrengatik asi sintesteke bai. Tira, tira asi.

PIPASH. Ni asiko nak.

ANTHON. ¡Geran bada!

PIPASH. Tanti, sera zu gison bikaña. Bi peseta eskatzeko. Baña isan-du Anthonek maña. Zuri gaur ez... iñundik iñola ere patiña sikiña següelako eskatu diskatzun dirubak pagatutzeko.

IRURAK. ¡Ja! ja! ja!

ANTHON. ¿Nun zuben orrek askeneko errematia?

TANTI. ¡Ori daiski!

ATRAKA. ¡Ja! ja! asnase-batian kantatzeko naikua egindik!

PIPASH. Oraiñ Tanti-ren chanda.

ATRAKA. Ia, nola egiten dekan.

TANTI. Neri ez saat basalitalak besela dustatzen.

ANTHON. Dakikan bezela botasak.
PIPASH. Geran, geran, ostu bañon len.
ATRAKA. ¡Ala!
TANTI. (Bi estulcho egiñ eta pishkabat ichogon-ik).

Dure echian basiot
Matinabat tatel
Matinabat titel
titel titel ti-tel ti-tel.

BEDERATZIGARREN IRUDIA.

IX.

LENGUAK eta ON GEOLIMO.

(Azaltzen da On Geolimo eta arrapatzen-ditu labak aurrian parrez daudela eta Pachi atzian kanillatik eraten ari dala eta erasotzen diyo arri).

ON GEOLIMO. ¡Zer da modu-bau! ¡A likishkeriya ez besterena!
TANTI. ¡Eletiolia!
ANTHON. ¡Nagusiya!
PIPASH. ¡On Geolimo!
ON GEOLIMO. ¡Emango-diat nik orain! (esku makillakiñ juaz).
PACHI. (Negarrez, botilla artu eta igesi). ¡Ai ama! Ez det geyago egingo (juatenda).
TANTI. (Pipash-i) ¡Bi peteta multa!
ANTHON. ¡Ai! ¡Au tratuba!
ON GEOLIMO. ¿Au alda moduba? (aurreratubaz).
PIPASH. (Tanti-ri). ¿Neri zer esaten-nak?
TANTI. Bueltaka uste ezdubela, On Geolimo-i). ¡Bi peteta multa!
ON GEOLIMO. ¿E?
TANTI. Ai ez, barkatu, oni. (Anthon-i). ¡Bi peteta multa!
ANTHON. ¡Ua ortikan!

TANTI. (Atraka-ri). ¡Bi peteta multa!
ATRAKA. ¿E?
TANTI. Patiña tikiña, ¡bi peteta multa!
ON GEOLIMO. ¿Orla uste aldezu konponduko gerala?
ANTHON. Esango diyot jauna..... (Gelditzen-dira: eskuitara Atraka eta Tanti erriyetan, erdiyan On Geolimo eta Anthon eta beste ishkiñan Pipash bakarrik).
PIPASH. ¡Oraiñ ere beliarena egiñ biarko! Kaypuntara guasen bost errial irabasitzera. (juaten-da).
ANTHON. (Ikusten dubenian). ¡E! Pagatu-gabe itzul egiten-du.
TANTI. ¡Oli bai, oli! (Atzetik korrika juaten-da). ¡Bi peteta multa!
ANTHON. Orrek ere bai (Atrakak segitzera bezela egitendu eta eltzen diyote biyak). Ez dek iges egingo ez!
ON GEOLIMO. ¡Geldi emen! (Esku makilla alchatubaz).
ATRAKA. Jaunak ez nijuan iges egitera; nik neria pagatuko det. Ez nais ni orlakua.

AZKENEKO IRUDIA.

X.

ANTHON, ATRAKA eta ON GEOLIMO.

ON GEOLIMO. (Anthon-i). ¿Onek senbat sor disu?
ANTHON. Onek.....
ATRAKA. Nik, baso bat.
ANTHON. ¿Besterik ez?
ON GEOLIMO. ¿Gisona ori alda moduba? Denen artian karga erdienbat erandute; ayek itsuli pagatu-gabe, onek itzulik es egiñagatik, igualchu pagatzen-du; eta ¿orla naidesu kontubak jushtu ateratzia?

ATRAKA. Nik baso bat besterik, ez det eran!

ON GEOLIMO. Atoz gero upela ez dala ogei-ta amar kargakua, eta zintakiñ ez dala ondo neurtzen eta..... esatera..... berriz ere eshkash aterako-dira sure kontubak.

ANTHON. ¿Zer naidu bada? Gausa abek alegiñak egiñagatik gertatzendirá.

ON GEOLIMO. Nik ez det orrrekiñ egitekorik, nik sagarduen diru jushtuba biardet eta suk atera sure kontubak.

ANTHON. ¿Gu nola bizitzia naidu?

ON GEOLIMO. Lana egiñ-da.

ANTHON. Egitendegu-'auna.

ON GEOLIMO. (Denbora pishkabat-en buruban). Begira Anthon, ni urrikitzen naiz sutzas, esagutzen det, alde batetik irabasi chikiya dagola eta bestetik alegiñak egiña gatik *pegatzen* dizutela, bañan alabaindikan ere nik neretik esiñ emango disut. Baña orain asmatudet modu-bat biyak ondo aterakogerana.

ANTHON. Ia bada.

ON GEOLIMO. Chiskatzen dizutenian baso bat, baso bat ur bota, bi egiten disutenian bi bota, eta orla senbat sagardo chiskatu ainbeste ur bota. Modubonetan zuk ez desu galduko eta nik ere ez.

ATRAKA. Guk bai ordia.

ON GEOLIMO. Nik, nere baimena ematen disut.

ANTHON. Bai, beorrek ematen dit bañan, ¿naiko aldute jaun oyek?

ON GEOLIMO. Ori.....

ANTHON. (Jendiari). Jaunak, ¿ematen aldiote beon baimena ura botatzeko?

ATRAKA. ¡Ez! ez!! ez!!! Ez chinishtu!!!!

ANTHON. Nik besterik ez nesake egin bada. (Jendiari).

Urik nai ez badute

sagarduarekiñ
konpondu litesteke
nagusiyarekiñ.

ON GEOLIMO. Sagardochu-ontatik
emango det anbat
pagatutzen badute
chikiko..... chalo bat.

ATRAKA. Asten badira jaunak
chalo ematera
orduban bai egiyas:

IRURAK. ¡ATERAKO GERA!

BUKAERA.

M-10207
R-15626
ATV 10.207

SAN TOMAS-EKO FERIYA

JOSTIRUDIA EGINTZA BAKARRAN

Toribio Alzaga-k

IZKRIBATUA

Olagara aundiakiñ aurkeztatua Donostiko Biltoki edo Teatro Lenendikoan, Abenduaren 30^an^ 1892 garren urtian.

DONOSTIYAN:
VICTORIANO IRAOLA-REN MOLDIZKIDAN
1894.

EGINTARIAK

GANBARA .. .. Artola
MIGEL MARTIÑ ..... Uranga
CHINCHARRI..... Arrieta
BATISTA ..... Casal
DONDOLO ..... Olazabal
ON JOSE ERRAMON..... Goiburu
SALCEDO..... Salcedo

Gauza saltzalliak, baserritarrak, arrantzaliak, erriko jendia, ume koskorrak.

Gertaera iruditzen da Donostiyan.

ON ANTONIO ARZAC JAUNARI

Beorrek esan ziran: Ja egiten nazun **San Tomas eko feriya** *aurtengo euskal festetako.*

Charra bada ere ona nun duben, beorri donkitzen diotana.

¡Zeñek egiñ lezayoken beorrek merezi bezelako **feriyal**

Egilleak.

EGINTZA BAKARRÁ

Iruditegiak aurkertatzen du Plaza berri edo *Constitucion*-ekoa San Tomas-eko feri egunian—Atze aldian agertuko dira erriko echeko arkubak. Eskuiko arkuban egongo da zabaldurik guardasol gorri aundi bat, eta jiran beste chikiyaguak sal-bentarako moduan; gizon bat egongo da aben kontuan. Ezkerreko arkuban azalduko da gizon bat eskopetak saltzen. Erdiko arkuban paperezko shantubak alde batian eta kalderak bestian, saltzalliak inguruan dirala. Aurrerashiago bi mai jostalluz betiak eta saltzalle bi andre. Aurrian, eskui aldera mai bat zinzarri eta beste ganaduen gauzakiñ; ezkerrera burni churizko gauzen sal-lekua. Aurre aurrian ezkerretara chorisho sal-lekua, eta emakume bat saltzen. Baserritarrak etorriko dira noizian beiñ, erosiko dute chorishua eta ogiya eta janaz juango dira.

LENBIZIKO IRUDIA

I.

Chincharri eta Batishta

(Burtiña alchatzeakuan pasatzen da eskuitik ezkerrera jende pillabat, arrabotzaundia egiten dubela, chistu, tronpeta, atabal eta ojuakiñ. Jendia ibilliko da feriya erosten. Chincharri egongo da ganaru gauza saltzen eta Batishta burni churizkuak.)

Chincharri ¿Au alda Donostiko feri sonatoa?—Baletorke bat onera zerbait egiteko asmoan. Emen ez da saltzen chistu, tronpeta, atabal eta orlako jostalluak baizik. Ondo esana da bay.

San Sebastian tarrapatapan
Mucho tanborra y poco pan

Batishta Kashkariñak, beti kaskariñ.

Chincharri Jende choro aben buruan zer ote dago? Ez dakit nik illia-ere nola egoten dan. Bañan zeñen ederki egongo liraken zinzarri abetakoak..... ogeina pezta pagatuko balizkirate.

(Ojuak soñu aundia)

BIGARREN IRUDIA

II

Chincharri eta Migel Martiñ

(Migel Martiñ gelditzen da chincharri-en maigañeko gauzari begira).

Chincharri Aiskiria! Badakit zuk zer beardezun, begiyan igarritzen dizut.

Migl. Martiñ ¿Zer bada?

Chincharri Zinzarri abetako bat! (*Erakutsiyaz*)

Migl. Martiñ Zein naizela uste dezu ala?

Chincharri Naiz izan Krisallueneko mayorazgoa zuretzat diñakok badirala iduritzen zait. Emango dizkitzut merke, merke!

Migl. Martiñ Uste dezu zuk orlako trastekiñ ibiltzen gerala gu?

Chincharri Ez, sonbrallu kopaltakiñ ibilliko zerate!

Migl. Martiñ Baita ere, entierrotara joateakoan.

Chincharri Goazen, goazen; zer esan naidan konprenitu egin bear da. Gizon artean, gizonak bezela itz-egin bear degu.

Migl. Martiñ Ez dezu ichura aundirik. Zu ere donostiarra izango zera? (Batistha joaten da chorisho tokira erostendu bat eta janaz alde egiten du. Bere ordez uzten du mutill bat.)

Chincharri Bai zera! Nongoa izango naiz gizona; Alegri-koa! Chincharri-errikoa!

Migl. Martiñ Ni ere ingurukoa naiz bada.

Chincharri Egiya; nik noizbait ikusi zaitut. Zu Alzo-koa edo, Billafranka koa edo Beasain-goa edo, Urrestillgoa edo.....

Migl. Martiñ Bai edo Españikoa. Golpean asmatu dezu.

Chincharri Nongoa zera bada?

Migl. Martiñ Alzaga-koa gizona.

Chincharri A! bai!

Migl. Martiñ Migel Joshe erramentarion semea.

Chincharri Ez da erremienta charra! Ezagutzen det bai! Nik Alzagan jende asko ezagutzen det Joshe Anthonio Mari Jibolintrankenekoa ta, Pello Joshepe Moskorrondegienekoa ta, Prashku Anthonio Marishikiñenekoa ta....

Migl. Martiñ Arrenchen alabakiñ ezkontzen naiz bada ni.

Chincharri ¿Garbi esateko, Marishikiñenakiñ?

Migl. Martiñ Ezkondu egin bear genduela ta, arren osaba Amerik-etatik etorriak emango ziola diru mordoshkaenbat eta, berak ere.... ez dira gaizki diranak eta..... cherri utsetan ere.....

Chincharri A! Marishikiñenian cherri kontuan ondo izan oi dira beti.

Migl. Martiñ Bai, eta kanpantorre bat zure erriyentzat.

Chincharri Zinzarriyak jartzeko? Ez lirake agertuko, ordia.— Goazen, goazen, tratuba egingo degu. Badakit nik feri billa etorri zerala eta konponduko gera.

Migl. Martin Ez zaude zu konponikaldera charra.

Chincharri Itz egingo degu churrupat eranaz. Kashamiro (Mutill koshkor bati eta uzten du bere kontu maya). Kontu egiñ ni etorri bitartean; kantoiko tabernan izango gera.

IRUGARREN IRUDIA

III.

Lenguak eta Ganbara.

Ganbara Kasho Chincharri! Zer dijua?

Chincharri Gizon onek ezkondu egin bear duela eta, feri on baten desioa daukala ta.....

Ganbara Bai, eta

San Tomaseko feriya
Chorishua ta ogiya!

Aufa! Arratsa orduko amaikak arrapatuko du *chorishua*.

Chincharri (Chincharri ren mayerá etortzen da baserritar bat, itz egiten du au dagon mutill koskor-akin eta onek deitzen diyo Chincharriri.)

(Ganbara eta Migel Martiñ-i)

Banator bereala.

(Juaten da mayera eta gero alde egiten du baserritarra-kiñ)

LAUGARREN IRUDIA

IV.

Ganbara eta Migel Martiñ

Ganbara Beraz ezkondu egiten zerala e?
Migl. Martiñ Ala diote.
Ganbara Ederki, ederki.—Pentsatzen det nolakua izango dan zure andregaya.
Migl. Martin Aragi eta ezurrezkoa.
Ganbara. Bai baña, neska motz masaill zuri gorri, sagar panpandoja bezelakuakiñ, eta bere illo luze gerriaño-kuakiñ.....
Migl. Martin Bestek bezelakoa.
Ganbara Bai zera; emenguak ibiltzen dira chimak muturrez aurrerá dituztela, zaku bat igeltsu arpegiyan, eta gozputza onla ibilliyaz: *Me parece.*
Migl. Martiñ Ez dakite beaz euskaraz?
Ganbara Euskeraz ez, baskuentzez.
Migl. Martiñ Orra beaz.
Ganbara Eta zura andregayak izango du izen bat oso moño-ñua; ara: Mikela Antoni ero, Joshepa Inashi ero, Manuela Jashinta ero.....
Migl. Martiñ Zer uste dezu zuk, emengo izenak berak ez direla goierrian?
Ganbara Emengo izenak? Ederki emanere. Emen deitzen dira: Anshelmita, Rupertita, Mikelita.
Migl. Martiñ Je! je! Donostiko kontuk!
Ganbara Zer uste zenduben bada, goyarriarrak bezelako bastuak dirala emengo neskacha gaztiak? *Me parece!* ¿Eta oraiñ feriya egitera e?
Migl. Martiñ Ala zion beste orrek. Zu ere ¿arren erritarra izango zera?
Ganbara Bai zera, San Bizenteko koshketan jayua naiz eta
Migl. Martiñ Koshketan? Chorikbezela?
Ganbara Orrengatik gora bada donostiarrak orlako choriyak.
Migl. Martiñ Chorik ez! Chori-buruak.
Ganbara ¿Eta feriya, chorishua ta ogiya egiteko asmua aldezu? Etzazula orlakorik egiñ gizona, bestela azkeneko zezen iltzeko zaldi zar guztiyak jan aziko dizkitzute, perra ta guzti.

Migl. Martiñ Ja! ja!

Ganbara Bein batian ¿badakizu zuk, zer billatu nuben chorisho baten barrenen? ¡Pikadorien chapela!

Migl. Martiñ Eta chorishoa, chapel ta guzti erreal batean? Ez da gaishti.

Ganbara Bai, fiya zaitia, eta zaldi pusken batian gertatzen bazaizu zezen-en baten adarra, bein tripan arkitzian arrek emango dizkitzu lanak. Ia nola egingo diyozun *kiebrua*. Chinishta nazu, obedezu segurutik jokatu; nik esango dizut nun egin amaiketako ona. Atoz nerekiñ. Bestela *aber* zer sentimentuba izango luken zure andre gai Joshpa-Akiña edo, Manuela Inashi edo, Mikela-Antoni edo.....(Ontan pasatzen da jende pilla bat eta nastutzen dituzte.—Jendeak eramaten du aurrean Migel Martiñ eta gelditzen da bakarrik Ganbara.

BOSTGARREN IRUDIA

V

Ganbara eta Chincharri

(Chincharri azaltzen da; joaten da bere maiera eta andik. Ganbara en aldamenerá jende pillak alde egiten duenian.)

(Chincharri, erreparatu gabe. Migel-Martiñ dalakuan.)

Ganbara .....edo Juana Vishenta edo, Mainashi edo...

Chincharri Zer diozu gizona?

Ganbara Oi, zu altzera? Nun da baserritar ura? (Juaten da alde batera eta bestera eta ez du ikusten.) Ez da ageri. Ederra da! Ustez amaiketakua arren kontu egiteko asmua nuben ta, begira zayozu kirten orri. ¿Orain zeñek pagatuko dit neri? Ez dago bada erremeyorik, zuk pagatu biarko nazu. Eziñ onla geldituko naiz ni. Ez ta...

Chincharri Gosea aztutzeko badet nik erremedioa. Eldu zayozu zinzarri abetako bati eta eragiñ gogotik.

Ganbara Ia saltzen ote dezun e?

Chincharri Ez altzaizu gustatzen?

Ganbara Bai, ori ondo prejitu ezkero, ogi arranbarrillatubakin, tipula ta porruperrejill piskabatekin, shalcha thantho bat eta piper puntha batekin ¡a zer mokaruba!... zikiñen gurdira botatzeko.

Chincharri Bañan... nola utzi dezu alde egiten gizon ura? Traste en erdik arri saltzeko asmoe neuken eta...

Ganbara Bai nik ere, amaiketakua egiteko asmua nuben bañan, zu ere arren antzeko kirtena zera ta orra nola utzi nazuten.—Bañan ni alkate banitz...

Chincharri Zer egingo zenduke?

Ganbara Zer? zer? Amaiketakua egiñ bapo, zu bezelako zekenari faoreik eskatu gabe. Ematen nazu errabi bat nun, botako nuke nere buruba... zuzen, zuzen tabernara.—Chibotik ez ordia!

SEIGARREN IRUDIA

VI.

Ganbara, Dondolo eta Chincharri bere mayian

(Sartzen da Dondolo chistu chiki batekin soñua juaz.)

Ganbara Tranvia! tranvia! Bire! bire! estroposoik egiñ gabe! Oi Dondolo! *¿chorisho* jantziyan?

Dondolo Oraindik goiza dek.

Ganbara Mutill ikusi atanian aize bete betian, chistu egiñaz eta iya arroka juan *shegara* biziyan, uste nikan... *chorishua* itzala.

Dondolo Bai, ta nik ikusi atanian jira ta bira Igeldoko taola bezela... lukainka itzala ustenikan.

Ganbara Musikero sartu alaiz?

Dondolo Mutill papera falta, papera banu...

Ganbara Zer?

Dondolo Fumatu egingo nikek, tabakua badiat eta.

Ganbara Obedek ez fumatu, jateko goguak aterako dizkik.

Dondolo Bestela ere ez diat nik jateko gogorik izaten.

Ganbara Ez ta nik ere... lo nagonian.

Chincharri Oi! jango luteke gero zinzarri ubetako bat eta oyeri begira!

Dondolo Mutill ni, ondo jan eta ondo eran ondorian, bi sardiñ zarrekiñ konforme niok.

Ganbara Ni ez, ondo jan eta ondo eran ondorian bi sardiñ zar baño kafia nayago diat, kopa bat ron eta zigarro puru aundi batekiñ.

Dondolo Bai, ta urrengo eguniau baba zarra jan biar. Ez dik ondo emateñ.

Ganbara Baba zarrak ez, ez dik ondo ematen. Lanea ez alaiz juan?

Dondolo Etzaak neri jai egunian lan egiteik gustatzen.

Ganbara San Tomasetan ez, jayetan bai. A babua! Ez dakigula uste aldek elkarren berri?

Dondolo Eta i zergatik ez aiz juan.

Ganbara Mutill, Coruña-ko madritar batzuben echian ari gindukan lanian; eta ura jende sekena! Atso sorgiñ alako bat, bi alaba makarrosakiñ. ¡Pirpillin parpak jazteko bai, ez langille gashuai amaiketakorik emateko! ¡Coruña-ko jendi ori galleguo dek, galleguak berak baño!

Dondolo Orlakuen echian ez nikek nik lanik egingo!

Ganbara Bestetan ere, ez dek egiten eta! Gañera, beste gauza bat. Lanian ari giñala austen det krishtal chiki bat eta, nik sentimentuik asko ez nubela arrenak geyago! Ederrak aitu zizkikan bada.

Dondolo Gaizki egiña. Nik ashkiratu azitzeko aldameneko krishtala autsiko niokan.

Ganbara Bat bakarra ukan eta! Salako ishpilluba!

Dondolo Oi! Orduban alde batetik autsi zanian beste aldera jira!

Ganbara Arrazoya dek. !Atsu-arren mokua ikusteko ishpilluatzeko aldia-re naikua dek!
Eta azkenian esan ziakan ez geyago echi-artara juateko ezertara. Ez ta naire! Eta gaur ere beste alako eche-en batera juan biarkonikan...

Chincharri Beste ishpiliu-enbat austera!

Ganbara Eta zer; ni San Tomas egunian amaiketakoik egiñ gabe gelditu? Alaek bai! Eta batere ez nuk lanea juan!

Dondolo Ederki egiña!

Ganbara Guazemak oraiñ, amaiketakua egitera. Nik *konbidatzeat* eta ik pagatuko dek.

Chincharri Ederki pentsatua!

Ganbara Zu ez, zuri gaitz egingo lizuke! ¡Gizonak bezela eran eta gero umiak bezela *chorishua* arrapatzeko? Ez! ez! obedezu zinzarriyari kontu egiñ eta erostunik ez badezu, zeorrek jarri kolkotik zintzilik.

Chincharri Zintzarri abentzako ez da Donostian ganaduik faltako, beya ez bada ere izango da *asto*-en bat.

Ganbara Astua? Zu ikusi ezkero izutuko litzake.
Guazen Dondolo, guazen!

Dondolo Ago pishkabat, bandua aitzera etorri nak.

Ganbara Mutill ago ishilik; *zedulak* artzea juateko izango dek eta.....

Dondolo Bai zera; euskeraz egitea zioztik.

Ganbara Euskeraz bandua?

Dondolo Bai mutill; emendik aurrera ala izango emendek beti.

Ganbara Ederki egiña. Euskal-erriyan, euskera. Eta ez dakiyena, dijuala nai badu..... Coruña-ra atso sorgiñ arrekin eta bere ishpillu zarpazubakiñ.
(Ishtante onetan aitzen da atabal errepika bat.)

Dondolo Orainchen dek.

ZAZPIGARREN IRUDIA

VII.

Lenguak, Batishta, Salcedo eta jende pilla

(Azaltzen da Salcedo, eta dator ondoren jende pilla bat. Geldítzen da Salcedo erdiyan chapela eranzirik eta jendia jira guztiyan.)

Ganbara Oi! Salcedo egiyetakua!—Ez gero emen Astigarran bezela, bandua euskeraz eta *Aviso al público*, esan. Dana euskeraz.

Denak Dana! Dana!

Salcedo Jakiñen gañian jartzen da, erri ontako jendia...“

Ganbara Orla! Orla!

Salcedo “Galdu dala gaur goizian zaldi bat...

Ganbara ¿Zaldiya? Badakit nun izango dan (Saltzalliari.) Ekatzu aguro chorisho bat.

Salcedo “Zaldi bat urrezkua...“

Ganbara ¿Urrezkua? (saltzalliari) Orduban, ez, ez! Eskerrikasko. Ezagutuba dago borondatia.

Salcedo “Begi arri fiñezkua-kiñ, eta dubela atzetik...“

Ganbara ¿Gurdiya?

Salcedo Ez mutill. “Orratz bat, korbata lazuan ipintzeko...“

Ganbara A!

Salcedo “Erregutzen zayo billatzen duenari azaldu deiela Erriko echian. An esango zayo nora eraman biar duben; eta jabiak emango dizka eun pezta....“

Ganbara Eun! San Tomás baño *eun* aundiyagua da ori!

Salcedo “Donostian abenduaren ogei ta batian mil ochocientos noventa y dos garrenian.“

Ganbara E! e! Eztu baliyo!

Dondolo Ala ezpanuartzen!

Ganbara Buelta! buelta! Euskeraz dana!

Salcedo (Eziñ esan balu bezela.) "Milla eta zortzireun eta larogei ta amabi garrenian."

Ganbara Ederki Salcedo! Ederki!

Denak Orla! Orla!

(Alde egiten du Salcedo-k eta onderen jende guztiyak. Geldítzen dira Ganbara, Chincharri eta Batishta.)

ZORTZIGARREN IRUDIA

VIII.

Ganbara, Chincharri eta Batishta

Ganbara ¡Eun pezta! Zeñek billatu lezaken!

Chincharri A zer amaiketakoa e?

Ganbara Ori da ori, persona biar dan bezelakua izatia. Coruña-ko marama ayek emango lituzteke! (Alde guztietara begira). Orlako jendi-entzat lana gustora egiten da. ¿Bañan nun ote da zaldicho ura?

Chincharri Zaude deituko diogu (Zintzarriyakin soñua egiñaz).

Ganbara Gizona zaude ishilik zezena dala usteko du ta igesi juango da.—Emen ote dago? (Mai burni-churizko gauzak dauden lekua biribillatuaz eta dana saltsatuaz.)

Batishta Emen ez dago urrezko gauzarik. Denak zillarrezkoak dira.

Ganbara Zillarrak, bai; nausiyen isillik morroyak egiñak

Batishta Begira zaiozu, ez aldiruite alá?

Ganbara Bay; oyek diruite:

Arranbarrillak
burruntzaliyak
krespi ta padera
¡Ai nere zaldichua
nora juan ote da!

Batishta Gizona zaude geldirik, gauza denak naspillatu dituzu ta.

Ganbara Izan ere, nere esku zakarretan ibiltzia orlako gauza primoriak!.... Gero ere neskazar mutur zikiñen baten atzaparretara juan biarko dute ta oni begira.

Batishta Ez aldezu uste biardala abillidadia orlako gauzak egiteko? Ez gero pentsa estranjeriyan ere egiten dala obeago-korik.

Ganbara Abillidadia? Pello-españek eta bai denbora batian barku zarretako kobre puskakiñ arditak egiten zi-

tuztenian! ¡Ura, ura abillidadia! Iru ishkiñakuak eta, laukuak eta, koshkadunak eta, mutur okerrak eta... gero arriyan arraskatu ta *lauraure*.

Chincharri Ofizio orri eldu bear zenion zuk.

Ganbara Bai, baña aber eun pezta osatzeko zenbat ardit biardian.

Batishta Len añа balio du bada oraiñ ere arditak.

Ganbara Ederki eman ere. *Aber* gu chikiyak giñala Krishtoenera juaten giñanian: "Aldi paten zigaluak eldiyak abanillo loiyak, beste eldiyak mishtuak eta posh-poro-at faorez."

Chincharri Gauza franko ardit batian.

Ganbara Bai, eta oraiñ orratz bat bakarren gatik, eun pezta! ¿Zaldi gishashua nun ote dabill? Balekike ni billa nabillela etorriko litzake bada.

Batishta Zure zai egongo da nonbait.

Ganbara Bai? Banua bada billa. (Eltzen dio aspo bati eta ekentzen dio Batishtak, gero besteari eta ekentzen dio berriz, eta azkeniz laugarren aspuakiñ dijua korrika lurra-ri aspo emanaz).

Nun zerá? Nun zerá?

Batishta (Atzetik korrika.-kentzen dio aspua).

Choratu altzera gizona?

Chincharri Donostiarra-ri galdetzen diozu ori?

Ganbara Oi? aizia-re orren estimatuba aldakazu? Gobiernuak ez diyo oraindik kontribuziyorik bota ta, zer dala uste ote du onek aizia! Ezagun du bai orrek ere salbo ta goyerri aldekua dala.

Batishta Zaldia biar badezu zuaz zaldi tokira.

Ganbara Bai ta zu zure arranbarrillakiñ sukalde chokora.

Chincharri Pozik joango litzake bera.

Ganbara Eta zu, zure trastiakiñ, ukullura.

BEDERATZI-GARREN IRUDIA

IX.

Lenguak eta On José Erramon mutill koshkorrakiñ

(Pasatzen da jende pilla bat arrabotz aundia-kiñ eta ondodator on José Erramon dituela atzetik bata bestiari eldurik iru ume koshkor.)

J. Erramon Aber maitiak, eldu kontuz alkarri, jende tartian galdu gabe.

Ganbara Oi! Zer da au? Soka muturra?
(Umeari) Zein da zubetan zaldiya... ero iriya?
Umiak Ori. (On José Erramon erakutsiyaz.)
Ganbara Dena urria balitz zer mauka!—Billatu biar det bada nun dan zaldiy-ori. (Denak bultzatuaz eta danen erditik) Alde! Bire! bire!

(Joaten da kanpora)

AMAR-GARREN IRUDIA

X.

Chincharri, Batishta eta On José Erramon mutill koshkorrakiñ

J. Erramon Jas! aushen da gizon alporja! ¿Zer pasa zayo orri?
Chincharri Badaki? eginda bandua, galdudala orratz bat zaldi baten figura urrezkua dubena, eta ura billatu nayan dabill.
J. Erramon Bandua izan alda?
Batishta Bai eta euskeraz.
J. Erramon Abek chorakeriyak dabizkite beren euskerakiñ. Iñun egiten ez dan gauza. Ez Buenos Aires-en. Ez Montevideon.
Batishta Ez ta Inglatierran ere.
Chincharri Ez ta Chinan-ere (Ara beste kaikuba!)
J. Erramon (*Erakutsiyaz Chincharriren maya. Onek jotzen du soñua zinzarriyakiñ*) Maitia ikusten zer gauza politak?—Gustatzen?
Umiak Bai jauna.
J. Erramon Aunditzian erosiko dizutet orlakua.
Chincharri (Orain ere erosi zezakian beretzat)
J. Erramon (*Agur chapelakiñ egiñaz.*) Eskarrikasko.
(*Juaten da Batista-ren maiera*). Begira, begira emengo arranbarrilla primoriak eta aspuak eta... Aunditzian erosiko diskitzutet orlakuak. (*Agur chapelakiñ egiñaz*). Eskarrikasko.
Batishta Buenos Aires-en usatuko da gauzak aunditzian erostia.
Chincharri Bai, erropak bezela ez gero chikiyegi izatiatik.
J. Erramon Maitiak begira, begira zer farragarriya.
Atzeko mai batetik jostallu bat erakutsiyaz).
Datorren San-Tomasetan erosiko dizutez orlakua e?
Umiak Bai jauna.
J. Erramon (*Tronpeta bat juaz*) Eta au gustatzen?

Umiak Bai jauna.

J. Erramon Erosiko diztet bada... beste urte batian.
(Beste jostallubat eraleutsiyaz). Au! au! au da gauza! Ja! ja! ja!—Maitiak, polita alda? polita?

Umiak Bai jauna.

J. Erramon Aber asmatzen dezuten zeñek erosiko dizkitzuten... datorren urtian?

Umiak Beorrek.

J. Erramon Ederki.

Umiak Eta aurten?

J. Erramon Ichogon! Oraindik ez degu dana ikusi.
(Chistu aizezko-pelota-dun bati aize emanaz).
Au da au polita!
(Chistu joka masaill puztutubaz dagola ikusteudu baserritar bat eskopeta sayatzen ari dala eta izuturik asten da korrika batera eta bestera eta jo ta botatzen du lurrera Batishta-ren maya.)
Ai ama! ai ama! ai ama! Zer da ori! ai! ai! ai!

AMAIKA-GARREN IRUDIA

XI.

Lenguak eta Ganbara

Batishta Erotu egiñ alda?

Chincharri Zer pasa zaio?

Batishta Merezi luke ebañ, ebañ-egitia!

Chincharri Ez, aunditzian.

Batishta Alcha bedi aguro!

J. Erramon E! Juan alda?

Batishta Zer Juan, eta zer Pedro, alcha aguro. Buenos Aires-en egiten alda onla?

Ganbara *(Sartubaz).* ¿Zer da?

J. Erramon Izutu nau gizon arrek.

Ganbara Gashua, mumua egiñ aldiyo?

J. Erramon Gizon iltzeko erremienta oyekiñ ez luteke laja biar ibiltzen.

Chincharri Bai, choria dalakoan tirako diote.

Ganbara A zer pirripiyua!

Batishta Gauza danak ondatu dizkit.

Chincharri *(On José Erramon-i.)* Bañan. ¿Ez aldu pentsatzen eskopeta oiek utsak daudela?

J. Erramon Utsak egon-agatik ez naiz ni fiyatzen.

Ganbara Bai, arrazoya du; zergatik beorri bezelako bati tira

ezkero, uts egiñ-atik nun ero an jo biar.

Batishta Egiñ diran planta! ¿Zeñek pagatuko dit oraiñ nik detan kaltia?

Chincharri Jaun-onek; bañan oraiñ ez,... datorren urtian.

Batishta Umiari feriya urrengo urteako agintzen diyoten bezela.

Ganbara ¿Datorren urteako utzi aldu feriya erosteko? Badakit zergatik.—Gustokoik billatu ez dubelako. ¿Ala?

J. Erramon Ori da bada. Gustoko gauza danak datorren urteako modukuak!

Ganbara Nik asmatuko det beorrek nolako feriya egiñ nai diyoten. (Amaiketakuentzat diña emango aldit.) (*Paper puskabat-ekiñ egiten du chori bat*). Ara. (*Emanaz*).

J. Erramon Bai, oso polita da! (*Ematen diyo ume bati*).

Ganbara (Banekiyen, baliyuaz gustatu ta). (*Bestia egiñaz*).

J. Erramon Zer abillidadia daukarren.

Ganbara Izugarriya!—Baña zaldi urrezko bat asmatu nai nuben eta eziñ iñola ere.

J. Erramon Ori gaitza da. Nik ikusi det.....

Ganbara Nun? nun? Nun ikusi du? Aguro!

J. Erramon Nun? Buenos Aires-en.

Ganbara Tokitara juan da orduban!

J. Erramon Bañan ederra zan!

Ganbara Ala omen da, bai; begi arri-fiñezkuakiñ eta.....

J. Erramon Ez da emen alakoik ikusi.

Ganbara Emen galdu da bada.

J. Erramon Bai zera.

Ganbara Guazen, ¿beorrek noiz ikusi du?

J. Erramon Noiz?..... zaude..... orain dala.....

Ganbara ¿Ordu erdi bat?

J. Erramon Ez; izango da..... amabost urte.

Ganbara Kontu freshkuakiñ dabill orduban. (*Bestia emanaz*). Ara bestia.

J. Erramon Gaiñ gañekua. (*Ematen diyo beste umiari*). —Feriya ederra dago! ¡Zenbat gauza el (*Atzian dagon guardasol gorri aundi bati begira*). ¿Zer da arakuartan dagon gauza gorriyura?

Ganbara ¿Ura? Erlojuba.

J. Erramon Oi? Ez du bada markatzen.

Ganbara Eletrikua da ta.

J. Erramon A!

Ganbara (¿Zer emango ote dit? Galdetzen badu, berak nai du-

bena esan biarko, ala geyago emango du). Ara azkenekua. (*Emanaz*).

J. Erramon Ederki, ederki! (*Ematen diyote*). Tira, maitiak; oraiñ zer esaten da?

Umiak Eskarrikasko!

J. Erramon Orla! (*Chalekuari tiratzen diyo ondo jartzeko*).

Ganbara (Zerbait emango dit).

J. Erramon (*Chapelakiñ agur egiñaz*). Ondo geldi bedi.

Ganbara Beorrek emanakiñ geldituko naiz ondo!

Chincharri Aunditzian etorri berriz!

Batishta Bai, ta juango da ankaz gora!

J. Erramon Jas! au jende nabarbena! (*Alde egiten du bere umiakiñ*).

Ganbara Au-re Koruña-kua ote da? Jakiñ izan banu choriyen ordez otsua egingo niyon! ¡Orrenbeste lan egiñ ta, amaiketakoik gabe gelditu biar ote det?

Chincharri Lanea juan baziñan, guchiago nekatu eta onezkero amaiketako-entzat diña atera zenduan.

AMABI-GARREN IRUDIA

XII

Chincharri, Batishta, Ganbara eta Migel-Martiñ

(Migel-Martiñ azaltzen da, bi besuak patrikeran sartu ta, eltzen dio Ganbara-k beso batetik eta berekiñ naidu eraman tabernara).

Ganbara Kasho aishkiria, zure billa nebillen alde guztitik.

Chincharri (*Eltzen dio beste eskutik eta nai du eraman bere sal-lekura*).
Non zabiltza gizona?
(*Batek tiratzen dio alde batera eta bestiak bestera eta Migel-Martiñ eziñ itzul egiñaz*).

Ganbara Amaiketakua egiteko zure zai negon!

Chincharri Atoz feriya erostera!

Ganbara Guazen, lagun zarra, guazen!

Migl. Martiñ Utzi nazute pakean!

Chincharri Nik esango dizut zer beardezun!

Ganbara Atoz nerekiñ erri!

Migl. Martin Baña.....

Chincharri Chinista nazu gizona!

(Migel-Martiñ batera eta bestera tiraka dabiltela ateratzen du esku bat patrikatik eta erortzen zaio urrezko orratza. Ikusten du Ganbarak eta botatzen du gañera chapela).

Ganbara ¡Ama-Birjiña kolkua zabal ni bakarrik parte!

Migl. Martiñ *(Chincharri-ri).* Utzi nazu pakean.

Chincharri Bañan gizona, chinishta nazu.

Ganbara *(Orratza eskubetan artu-ta).* Ber-bera! Nola billatuko nuben bada, galope biziyan dijua ta! *(Saltoka eta dantzan)* Aufá! Zuaz orrekiñ nai badezu! *(Migel-Martiñ-i).* Ez det nik oraiñ iñoren biarrik! *(Erakutsiyaz orratza).* ¡Billatu det biar nubena!

Migl. Martiñ Ekatzu ori nerea da ta.

Ganbara Oi! Orrena omen da.

Migl. Martiñ Kale kantoi batean billatu det, eta andre gayeri feria egiteko dauket.

Ganbara Je! je! Billatu dubelako onena omen da: eche aruntzian billatuko dituzu mendiya franko, zuriak dirala ta sartuitzazu patrikeran eta eraman zaizkatzu andre gayari! Zuk billatu badezu nik ere billatu egin det!

Migl. Martiñ Bañan zuk badakizu neri erori zaitala, eta nik ez zeñek galdu duan.

Chincharri Nik esango dizut nora eraman. Emango dizkitzute eun pesta, eta gero etorriko zera feriya egitera e?

Ganbara Ez kasoik egiñ orri; ori marrajua da ta. Biyak konponduko gera! Ala laun zarra! Zure aita ta nere ama gurasuak ziran eta zu ta ni lengusubak!

Migl. Martiñ Bai, baña ekatzu ori.

Chincharri Emaiozu aguro edo deituko diot aguazill bati.

Ganbara Emango diyot, ez pentsa zu bezelako zangurruba naizela. *(Migel-Martiñ-i).* Orrek ez daki emengo berri. Nik billatuko det nun dan jabia eta gero konponduko gera..... eun pestak ematen banazkitzu.

Chincharri Ikusten dezu? *(Migel-Martiñ-i).*

Ganbara (Ikusi bai, ez dakazki ikusirik). Ematen banazkitzu..... partitzeko.

Migl. Martiñ Nai dezun bezela, bañan baezpada ere ekatzu neri.

AZKENEKO IRUDIA

XIII

Ganbara, Migel-Martiñ, Chincharri, Batishta eta Dondolo

Dondolo Kasho Ganbara, sugur-peko logalia juan altzaik?

Ganbara (*Migel-Martiñ-i, Dondolori kasoik egiñ gabe*). Bai, gizona, bai; emango dizut, ez iruki bildurrik!

Dondolo (*Ganbara-ri*). ¡Ez dek kasoik egiten e?

Ganbara Ez nak ni kasogillia eta ez potogillia-re, eta i bezelako arlotiari ez ziuat nik begiratzen ere.

Chincharri Aberastu dan ontan.....

Dondolo Zer da bada? Zelaore sartu alaiz, eta orain bastoya artu ta pasiatzera?

Batishta Ez, urrezko orratza topatu du.

Dondolo Oi! bai aldakik nungua dan?

Ganbara Ez ta naire jakiñ. Ik ere partia nai aldek?

Migl. Martiñ Au gizon ondraua. (*Dondolo-rengatik*).

Dondolo Au ere Koruña-ko obia izango litzake aberatsa balitz.

Ganbara Inbiriya?..... Arraska la chiminiya!

Dondolo Ez mutill, ez gaituk orratzak jan ta bizi.

Migl. Martiñ (*Ganbara-ri*). Ekatzu orratza eta goazen. (*Dondolo-ri*). ¿Nongoa dala diozu?

Dondolo Oraiñ egondu naiz Salzedo-ekiñ, eta esan dit dala: Apaiz-kalian, amalau-garreneko lumeruan lenbiziko bizitzan, Koruña-ko famili batena. (*Dondolo izketan ari dan bitartian Ganbara-k egiten diyo keñu ez esateko, parte egingo dutela. Bukatzen dubenian yelditzen da arriturik*).

Ganbara ¿E? (Ederra da).

Chincharri Oraiñ zer diozu Koruña-ko famili-orreugatikan? Orla itz-egiten dezute zuek, zer esaten dezuten ez dakizutela!

(*Ganbara-k botatzen du orratza lurrera*).

Migl. Martiñ Gizona, nola bota dezu? (*Jasuaz*).

Ganbara Ez det batere nai. (Juaten banaiz, ishpilluben ordez geldituko dizkiate eun pestak eta).

Migl. Martiñ Zaude nai ez badezu.

Ganbara Baña eman gero neri nere partia!

Migl. Martiñ Ez bazatoz, batere ez!

Chincharri Ederki egiña!

Ganbara Oraiñ bai *poto* egiñ detala.

Migl. Martiñ (*Dondolo-ri*) Zu, atoz nerekiñ, erakutsi nazu non dan, eta bear dana emango dizut.

Dondolo Nai dezun bezela.

Ganbara Amaiketakorik gabe gelditu biar ote det azkenian? Dondolo, lagun alaiz?

Dondolo Ez ik merezi.

Ganbara Busti zagun orduban!

Dondolo Iri egiñ biar litzaikek ik bestiari egiten diyotekana. Bañan ez nak i bezelakua ta konbidatzeat amaiketakora.

Ganbara Bapo erri! Ori dek, ori, lagun zarra izatia. Juango gaituk Goñi-enea e?

Dondolo Ez, nik egingo diat feriya: chorishua ta ogiya.

Ganbara Ez, nayago diat nik.....

Dondolo Eta nai ez badek batere ez.

Ganbara Orduban, ematen.

Dondolo (*Saltzalliari*). Chorisho bat onentzat. (*Pagatzen du*).

Ganbara Kosta ala kosta. ¡Au gizonen paradoria!

Chincharri (*Migel-Martiñ-i*). Etorri gero feriya erostera.

Migl. Martiñ Erosiya det bear detan guziya.

Chincharri Bejon daizula! Saltzalliak izango gera Donostitik feri geiena eramango degunak.

Batishta Ekarritako geienak.

Dondolo Bai, beti ori esan, bañan datorren urtian ere etorri ostera.

Ganbara (*Chorishua artu ta janaz*).
Esanak esan, ez dago bada aiñ charra.
Ez, ez! Jan liteke bai.
Ondo goshua dago!
¡Amaika badago pozik kozk elduko liyokena!
¡*Me parece*!
¡Ez du gero nai duben guziyak *chorishua* arrapatzen!

Falta bat bakarra du
Amaiketako onek,
Falta egiten diyo
Bishigarri batek.
Bañan izan ezkero...
.....

Chaluak ugari
Ez da obiagorik
Oraindik ikusi.
Usariyo zarra da
Ez oraiñ jarriya
Len bezela nai degu
Ez gauza berriya

San Tomas-eko feriya

Chorishua ta ogiya.

BUKAERA

IRIYARENA.

H-27256
R-15626

IRIYARENA

CUADRO DE COSTUMBRES IRUCHULAS

ORIGINAL DE

OMAR-CELIN-OASOR.

Representado con gran éxito en el Teatro Principal de San Sebastian, las noches del 12 y 19 de Mayo de 1878.

SAN SEBASTIAN:
IMPRENTA DE JUAN OSES,
1878.

PERSONAJES.	ACTORES.
MARCIAL.	D. Juan Azcue.
ARTURO	» Serafin Sainz.
PELLO.	» Francisco Lopez.
VISHENTE	» Norberto Luzuriaga.
ESTUDIANTE 1.° . .	» Julio Carreras.

Garrocheros, estudiantes, celadores, serenos, comparsas, etc. etc.

La accion se supone en San Sebastian, en la época de los Carnavales.

Esta obra es propiedad de su autor, y nadie podrá sin su permiso imprimirla ni representarla en España y sus posesiones de Ultramar, ni en los paises con quienes haya celebrados ó se celebren en adelante tratados internacionales de propiedad literaria.

Queda hecho el depósito que marca la ley.

NOTA. Por respetar la costumbre introducida en esta Ciudad de emplear la palabra IRIYARENA en vez de *Idiarena*, que es la propia ó verdadera, el autor no ha creido conveniente modificarla.

A LAS COSHCAS DE SAN VICENTE.

A vosotras que me habeis visto nacer, que me habeis enseñado á sentir, os dedica este pequeño recuerdo vuestro apasionado,

EL AUTOR

ACTO ÚNICO.

La escena representa una de las calles que dan al átrio de San Vicente. A la izquierda y en segundo término la fachada de dicha Iglesia (1). Mientras la orquesta ejecuta misteriosamente el preludio núm. 1, se alza el telon con lentitud, apareciendo la escena á oscuras.

ESCENA PRIMERA.

Sale un sereno reconociendo las puertas de las casas, y bajando del foro al proscenio para cantar á su debido tiempo, marcado en el preludio, *las cinco y media y nublado*, desaparece en el momento en que invade la escena un grupo de estudiantes que pasean en diversas direcciones cantando el zortzico núm. 2 en la forma siguiente:

Gaurco eguna
noizbait alere
etorrida,
cerbait icusten degun
gabiltza
calian giraca.
San Vicenten jodute

(1) Entiéndase por derecha é izquierda la del actor.

labac edo bostac
otzaren bildurgabe
gabiltzan mutillac.

(Cada parte se canta dos veces y todo ello se repite)

(Para cuando termine el zortzico, los estudiantes forman un corro entablando con animacion el siguiente diálogo que los demás escuchan con ansiedad:)

ESTUD. 1.° Lo que te he dicho es muy cierto.
ESTUD. 2.° ¿Qué ha de ser?
ESTUD. 1.° ¿Que no?
ESTUD. 2.° No veo.....
ESTUD. 1.° Pues chico lo que yo creo
es que aun no estás despierto.
UNOS. ¡Bravo! ¡bien!
OTROS. ¡Fuera!
ESTUD. 3.° Serenua, mutillac...!!
TODOS. (*gritando*) Eh... eh... eh... (*huyen*)

ESCENA II.

DICHOS, SERENO, POLLAS, MARCIAL Y ARTURO.

SERENO. (*Persiguiéndoles*) ¿Qué alboroto es este?

(Se deja oir la introduccion de la habanera núm. 3; tocan á misa; dos pollas atraviesan la escena penetrando en la Iglesia; Marcial las sigue y Arturo trata de contenerle mientras cantan la habanera dicha.)

MARCIAL. Es ella.
ARTURO. No lo dudo.
MARCIAL. Corramos.
ARTURO. No pardiez.
MARCIAL. Pues marcho yo tras ella.
ARTURO. No lo consentiré.

Duo.

MARCIAL.

Que beldad,
tras sí me arrastra;
yo no sé
lo que me encanta:
es su pié,
su linda cara,
yo la sigo, voy tras ella,
no la dejaré.

ARTURO.

Que beldad,
tras sí le arrastra,
yo no sé
lo que le encanta:
es su pié,
su linda cara,
dice sigo, voy tras ella,
no la dejaré.

(Así en la segunda como en la primera parte de la habanera mantendrá MARCIAL una lucha con ARTURO procurando desasirse de él hasta que ambos desaparecen por una de las calles contiguas á la Iglesia. Inmediatamente preludia la orquesta la marcha de la comparsa de tambores (núm. 4) del dia de San Sebastian dejándose oir al propio tiempo dentro y á la derecha la comparsa de tambores y silbos.)

ESCENA III.

PELLO, VISHENTE, demás garrocheros y comparsa á cuyo frente aparece el tambor mayor. Los individuos de la comparsa deben aparecer con caprichosos trajes de Carnaval, y los garrocheros como los llamados pillos de playa. Sale el tambor mayor dirigiendo la comparsa que sale dos en fondo hasta el centro del escenario, desde la salida que ha de ser del último término derecha. Bajan hasta el proscenio abriéndose en dos alas, mientras que el tambor mayor, colocado de espaldas al público y con el baston en sentido horizontal, les vá dando direccion hasta que llegan á formar un círculo y dentro de él el Mayor; terminada la marcha grita el garrochero Vishente:

VISH. ¡Que viva el tambor mayor!
LOS GARR. ¡¡¡Vivaaaaaa!!!

(Los garrocheros durante esta evolucion habrán estado arrimados á los bastidores y contemplando la comparsa con gran afan. A continuacion del grito, la comparsa, puesta en círculo, ejecutará juntamente con la orquesta el paso núm. 5 con todos

los matices. Al terminar, el garrochero Vishente volverá á gritar:

VISH. ¡Viva el tambor mayor!
LOS GARR. ¡¡¡Vivaaaaaa!!!

(Suena la misma marcha núm. 4 y se vá deshaciendo el círculo en la misma forma en que se constituyó, bajando al proscenio y alejándose por el último término izquierda. Los garrocheros les siguen con interés y miran por el punto de salida de la comparsa mientras se van apagando los sonidos paulatinamente y formando un eco lejano. A su conclusion pasean los garrocheros la escena en distintas direcciones mientras la orquesta ejecuta la primera parte del zortzico núm. 6 y á la segunda cantan lo siguiente:)

Ya llegan, ya, los Carnavales
que es el periodo de diversion,
y con el buey de la mañana
crece el contento que es un primor.

(Retirándose á los bastidores del segundo término izquierda y con sigilo.)

¡Ay! me parece, que ya se escucha
chiton, silencio, el dulce son;

(Con valentía, lanzándose hasta las candilejas y estendiendo los brazos con sus garrochas.)

corramos todos, que ya la fiesta
el silbo anuncia con el tambor.

(Otra vez el mismo juego, pues cada parte se repite. Luego andando en todas direcciones cantan con energía:)

Guacen bada, guacen mutillac
guacen aguro bacará
icusi zagun, nolacua dan
orain dacarten adarrá.

(Con misterio dirigiéndose unos á otros lo que sigue:)

Tamboliñac ta soca muturrac

deitzen gaituzte bay festará

(Con brio y dirigiéndose al público.)

Españian ta, mundu guztian
beste Donostiric ez da.

(La orquesta ejecuta la segunda parte como primera que sirve de introduccion, y entra el canto en la primera parte, repitiéndose cada una de ellas. Para la terminacion de este zortzico se habrán colocado Pello y Vishente á la izquierda y derecha respectivamente de la embocadura, y á continuacion Pello, mientras afila la *garrocha*, canta los siguientes versos que no tienen nada de tales y en una música á capricho, más ó menos adecuada, pero prescindiendo de la orquesta.)

PELLO. Artzayac Amezquetan
ondo bisiditue
baterez baño obiac dituc
oguei millia duró.
Artuac usteldua
gariyac lizundu
gaztia cera oraindic
dotia cmatecó.

(*hablado*) Aizac Vishente, ¿caniquic bayaldec?

VISHENTE. Es. Atzo *el rey paga* eguintziatecan.

PELLO. Ecatzac ire garrocha...?

VISHENTE. ¡Ez chinistu! (*aproximándose*) Beida aquiyoc, oraindic odolez betia cioc. Atzo azqueneco iriyari ¡ayec ederrac emanizcan! ¡dtza!! sartuniocan oneaño! (*Marcando.*)

PELLO. ¡Ira carrera eguintzuben! Muñoaen cigarreico onduan botazizquican chillaba!! ¡Marrajua ucan!

VISHENTE. ¡Ez cera! ¡Oaingua, oaingua dec ederra! ¿Icusialdec?

PELLO. Bay. Bacan izanac eta araquiñac esandic, soca luciago jarri biardiotela cales cale ibiltzeco

VISHENTE. Bay. San Vicenteco cimitoiyuan eta guero plazuelan.

(Tanto durante este diálogo como el que sigue los garrocheros pasean la escena conversando á ratos con animacion.)

ESCENA IV.

DICHOS, MARCIAL y ARTURO.

MARCIAL. Ya verás cómo se vá animando la plaza.

ARTURO. Si: pero es el caso que me has hecho levantar para chuparme los dedos de frio. (*gesticulando.*)

MARCIAL. Pronto entrarás en calor con las corridas que daremos por esas calles.

ARTURO. Si te se figurará que andaré hecho un chiquillo tras del buey como dices que acostumbrais?

MARCIAL. (*Suspirando*) ¡¡Ay!! ya se conoce que no has nacido en las coshcas de San Vicente! Para nosotros el desayuno favorito es el buey de la mañana. Nada mas poético ni encantador que el dulce despertar al percibir los armoniosos acordes del *Iriyarena*, lanzados al aire por el clásico tamboril al recorrer las calles, anunciándo la aparicion de la *soca-mulurra*.

(Con entusiasmo, mientras Arturo trata de entrar en calor.)

Cuando suena el tamboril
tocando el *Iriyarena*,
no me queda ni una pena
aunque tenga ciento mil.
Pues todo desaparece
ante su mágico son,
y se ensancha el corazon
unas diez varas ó trece.
Como digo, esto es tan cierto,
que de la cama me lanzo,
y á la calle me abalanzo,
más dormido que despierto.
Al toril voy sin *bildurra*
donde la gente se agita,

canta, rie, salta y grita
emendec soca-muturra.
Mientras tanto el tamboril
por la calle dá la vuelta,
se presenta el alguacil
y entonces el buey se suelta.
(*Con intencion*) En cuanto sale la fiera,
porque es fiera al parecer,
todos echan á correr
á los gritos de ¡¡carrera!!
Y aquí tumbos, y allí caidas,
pisotones y demás...
en fin, chico, verás las
escenas mas divertidas.

(La orquesta sola ejecuta la primera parte de la habanera núm. 8 y MARCIAL y ARTURO la cantan repitiendo la 1.ª parte.)

MARC. (*solo*) Ay ay, ay, ay cuando veo así
yo la plaza tan animada,
ay, ay, ay con el tamboril
es mi gozo, un frenesí.

Duo.

MARCIAL.
Porque es probado
que al corazon
alegra mucho
esta diversion.
Vengan, pues, bueyes
y el tamboril
que para eso
nací yo aquí.

ARTURO.
Vaya que gusto
con tal funcion
sufrir no quiero
un revolcon.
Huyo de bueyes
y el tamboril,
y ya no paro
hasta Pekin.

(Durante la precedente habanera los garrocheros bailan formando caprichosos grupos, unos dando la forma del balanceo de la habanera, otros como fandango, etc.)

UN GARR. (*Gritando.*) ¡Celaoria! ¡Celaoria!
OTROS. ¡¡Emendec celaoria!! (*Mucha animacion.*)

ESCENA V.

DICHOS, UN CELADOR, CARNICEROS, ETC.

Aparece un celador del último término derecha y pasa por el foro permaneciendo bastante rato en escena arrancando

garrochas, rompiéndolas y persiguiendo à otros, mientras que el tamboril se deja oir entre bastidores desde las últimas palabras de ¡celaoria! (Toda esta escena hasta la conclusion debe ser muy animada.) Desaparece el celador y enseguida sale el tamboril recorriendo el escenario en la mayor estencion posible. Algunos garrocheros saltan de gozo, otros gritan, muchos se ponen á mirar con afan como de esquina de calle hacia los bastidores de donde ha de aparecer la *soca muturra* y cuando se juzgue conveniente salen los carniceros con la cuerda, describiendo la mayor curva posible. Se oyen contínuos gritos ¡*emendec*! ¡*carrera, teinc, libre*! El tamboril no cesa de tocar entre bastidores hasta el fin de la escena. Algunos garrocheros arrimados á los bastidores en actitud de pinchar. MARCIAL torea con entusiasmo. ARTURO anda asustadizo, recibe una sacudida de la *soca-muturra* y huye. Las dos pollas salen de la Iglesia y andan desconcertadas sin saber què direccion tomar. Una casera con su gran cesta en la cabeza es arrollada por la cuerda y cae desplomada, esparramando por el suelo la marmita con leche, huevos, berzas y aves. Al fin sale un ternero ó en su defecto aparecen entre bastidores unos cuernos, dejándose oir mugidos y baja el telon en medio del estrépito general.

FIN.

MÚSICA.

MUSICA
DE LA ZARZUELA YRIYARENA

Dirigida por el joven compositor D.° Candido Soraluce autor del Preludio.

N.° 1 Preludio
de Candido Soraluce.















3 veces

Nº2 Coro de Estudiantes

de Azpiazu.









Nº 3. Habanera

de F.U. Ciboure.






FIN
1a
2a
Despacio.
Cresch





No

°4. Marcha de tambores







PARA CONCLUIR

1ª 2ª 3ª 4ª

F. F

No

Nº 5. Comparsa de tambores

P.

E.

P. F. P.

PARA CONCLUIR

1ª 2ª. 3ª 4ª

DC

Nº 7. Coro de Garrocheros

de J. J. Santesteban







D. C.

3 veces

Nº 8 Habanera.

de Omar-Celin Oasor






1ª y 2ª
3ª
1ª
2ª
fin

N° 9 Iriyarena



A.J.V.-10207

URRUTIKO INCHAURRAK...

– Bañan Aita gurea.....
– Aztu eginzait.....
– ¡¡ Aztu !!

(Urrutiko inchaurrak.)
(Bigarren eginiza 6garren irudia)

M-27257
R-15626
ATV-10-207

URRUTIKO INCHAURRAK...

JOSTIRUDIA BI EGINTZAN

MARCELINO SOROA LASA-K

IZKRIBATUA,

Olagara aundiarekin aurkeztatua lenbiziko aldiz Donostiko Biltoki edo Teatro Lenendikoan Abenduaren 26an 1886garren urtean, eta Tolosan ere ehalo askorekin, Otzaillaren 2an 1887garrenian.

TOLOSAN
Eusebio Lopez-en moldizkiran eta liburutegian
1887an

Melius est parum cum timore Domini, quam thesauri magni et insatiabiles.

(El libro de los Proverbios, cap. XV, vers. 16.)

EGITEZALEAK.

Pillipe, *morroya*	On José Artola.
Jose Martin, *alkatea* . .	» Miguel Arregui.
Andre Madalen, *mutuba*.	» Alfredo Jaussi.
Juan Bautista, *senarra* .	» Bruno Olazabal.
Prenando, *semia*	» Norberto Luzuriaga
Aiton Josepe, *apaidiña* .	» Ignacio Iribarren.
Kaitano Itzontzi	» Julio Mendia
Karterua	» N. N.

Beste gizon bat kofriekin, itzik egiten ez dubena.

Gertaera iduritzenda probinziko erri chiki batian.

EGILLEAREN BESTE JOSTIRUDIAK.

Iriyarena.
Anton kaiku.
Gabon.
!!Au ostatuba!!
¡Abek istillubak!
Alkate Berriya.
Urrutiko inchaurrak.....(1)

ARGITARATZEKO.

Barrenen arra, Urnietako Euskal-festetan aurkeztatua Agor illaren 30 an 1886-ko urtean.

!!**Lapurrak, lapurrak**!!

Nai, eta ez nai.

La bella Easo, Zirko-Biltokian jarriya lenbiziko aldiz Otzaillaren 16an 1886-ko urtean.

Un empeño singular, Zirko-Biltokian aurkestatua Abenduaren 18an 1885garren urtian.

Beste liburucho argitaratuba **Euskal-Naparren joaera, edo emigrazioa,** José Colá eta Goiti jaunaren liburutik itzulia.

---

(1) Durangoko Euskal-festetan saristatua.

On José María Ampuero

Durangoko Jaialdi Euzkarazkuen aurrenden jaunari.

Esker oneko leyalen leyaltasunaren izenaz dijoan ene liburucho au, askotan agertu didazun ainbesteraño zure aubegi eder orri ongi dagokiyon esker-garritzat, eta añ entzute aundiko izen-deitura-pe orretan baizik, argitaratu nai ez det.

Naiz buru-jaso argidotarren gisako distiadurarik batere gabea izan, zuk ala ere, ene biyotz-cho onen erdi erditik duen bere jatorri garbiyagatik beintzat, egillearen oroipen edo gomutagarricho bat bezala artuko aldidazu.

EGILLEAK.

LENENGO EGINTZA.

Irudiotegiak aurkeetatzen du baserri on bateko sukaldia.

LENBIZIKO IRUDIA.

I.

PILLIPE bakarrik saski baten aurrian oserita alkicho batian, arta burubak aletzen eta kantari. Aldamenian achurra, laya, itaya eta beste landutzeko gauz bearrak.

PILL. Chanton piperri emen dago
Limosna on bat balego
Kanta bear dot baldiñ albadot.
Neure sabelen gosia
erruki dedin jendia.
Lekeitioko kalian etc. etc.

Batera ta bestera gaur dantzatzenda ederki eche ontan jendia. Egiya da. Bazkariyare beñere ez bezelakua biardala ta aldameneko andre Panchika arida maniatsen esne arrozekiñ ta guzti. ¿Eta nola ez? Aurki da emen amaiketako kochian gure Prenando Ameriketako Burniz zayetzetatik eta ¿zer guchiago

egingo zayo amar urte buruban aldi ayetan bizitu danari? Bienos Airetan diotenez. Aize onetan ¡Aize onak! Baña alare, orain dala iru urte *fulmoni* gogor bat arrapatu zuben eta ezurrak an utzi etzitubenian... Ezdirare noski an aize guztiyak onak. Orain balitz bezelašen oroitzen naiz nola juntzan. Amairu urteko mutill koškor bat nintzan orduban eta ¡zer pena emantziran gure echeko amandre gaišuak! Azkenoko ariyúa eziñ esanik, naigabe batek emantziyon, kordeik gabe erorizan eta ¡gajua! mutuba gelditu zan. Asiyera ona emantzuben Prenandok Ameriketako. Ama tristiak egun guztiya pasatzendu bere semien *erretratubari* beida, erregutzen Ama Birgiñarí biurtzeko osasunarekiñ onera. Berak eziñ esandu baña ala aditzera ematendu (Alchatsenña) ¿Nola etorriko ote da? Nik uste det On Lorentzo bezela. Mazaill gorri zabalekiñ, lepo motzá, tripa aundiyá eta majo jantzitá. Orratik ere arrek diru puskabat sortu ementzuben, baña etzuben egun onikan pasatzen. Egun batian miñez eta bestian ere bai, ango diru egiteko griña aundiyarekiñ makaldurik gelditu zan! ¡Zerdan munduba! Alezakenak jan eziñ jan, eta nik jangonukena kanpantorría, modurik ez. Gezurra dirurí amar urte pasa dirala Prenando juantzanetik! Nola dijuan denborá! Gure erretore onak esaten diyona alkate jaunari «*esta vira es soflo*. Eta denborak denborekiñ dena dakar berekiñ... Esaten det bada nik ere jira bat egiñ biar nukela Motenbideo-

ko baztarrerá. Emen batek ezdu ezer aurreatzen. Goiz jeiki, egun-sentia baña len, ganadubari jaten eman, beyak jechi, layan aitu dertu arte eta... beti morroi. Naiko baba, talua ta esne jaten degu, bañan aste guztian ardo churiya besterik progatzen ez degu, eta beltz Napar eta Erriojako gorri ori ain tentagarriyak dirá... eta ezkerrak jaietan bezpera onduan alderatzen zaizkigunian gure zintzurrera... ¿bestela? berriz ardo churiyá. Gaizki esan det: pitarrare badegu. Ori bay. Bañan ni morroi bezela, beti pitar gelditzen da. Ez da sekulan sagardorá alleatzen. Soldaru balitz elitzake beñere agintari izango. Aizi oyek progatzera jun biardet bada. Nere sayua an egiñ arte ezdaukat paketasunik. Ez orlako astakeririk egiteko esaten dit Mainõnik malkua dariyola: bañan nik ere maite izanarren, gustatuko zayo gaur edo bigar ni agertzia bestiak bezela majoturik, eta an naizen bitartian ez naiz aztuko artzaz eta ez det uste beraro nitzaz! Baldiñ eroriko balitzairake erripa au! ¿Nun ote det chartela? (Bila.) Aušendek lana ¡A! Ona, ona. Bildur nitzan bada bi errial aundi pagatuta... (Irakurtzen.) «*ripa de curbietos de flata*». Norbait da atian... guro Aiton Josepe.

BIGARREN IRUDIA.

II

Egille bera ta ANTON JOSEPE.

AIT. Jaungoikoak egun on digula.

PILL. Ala digula aitonchua. Pizkor dabill.
AIT. Bai, bai. Urtiak gañian.
PILL. Zenbat ditu bada?
AIT. Nik aldakit? Nere senide guztiak illtzian, eta gaztienak berekiñ zituben larogei urte, ala nik izango ditut...
PILL. ¿Larogei ta amar?
AIT. Or nunbait. Praentzak sartu ziranian.
PILL. Beorri etzan artian zartu...
AIT. Zartu ez, baña bizarra kentzen nuben.
PILL. Ešeri bedi, Ešeri bedi. Beorrek gauza asko ikusi ditu mundubontan.
AIT. Bai, char ta on makiñabat.
PILL. ¿Charrak geyago?
AIT. Bai ¡arrano pola! Ni bada netorren...
PILL. ¿Tira ¿zertara zetorren?
AIT. Zeraen zerea...
PILL. ¿Zertara?
AIT. Ortara bada, ortara.
PILL. Aztu eginzayo beorri.
AIT. Egiya esan biar badet, bai.
PILL. Beti bezela. Gauza batez ezda aztutzen, zertara datorren aztutzia.
AIT. Netorrela eskallera gora mingañen puntan nekarren bada...
PILL. ¿Eskallera?
AIT. Ez, Prenando.
PILL. Bai aldaki aurki datorrela?
AIT. Bai, bai, ori. Ortara netorren.
PILL. ¿Beorren besuetakua da?
AIT. Bai gizarajua.
PILL. ¿Maite zuben?

AIT. Gogotik. ¿Ondo etorri alda, loriya?
PILL. Ezda oraindik ingurutu, bañan aguro...
AIT. ¡A! ¿Oraindik ez? Sarri arte bada.
PILL. ¿Nora dijua? Amandriari egun onak ematera?
AIT. Ez, gero etorriko naiz. Kalera nijuan.
PILL. Or amandrearen gela du...
AIT. ¡A! Bai, bai. Sarri arte.
PILL. Bijua ondo. Kontu eskalleretan.

IRUGARREN IRUDIA.

III

PILLIPE bakarrik.

¡Aiton gaisoa! Burubori aiñ flakituba dauka, ez dala konturatzen zer esaten ta zer egiten duben. Urtiak batetik eta bere emasto maitagarriya oraiñ dala bi urte galdubarekin beste berrogei alkarrekin izandutako buruban, senti erasoziyon gogotik. Erriyan izandu dan gizonik prestubena, guztiyai on egitea beste asmorik izan ez dubena. Jende guztiyak aita on bat bezela errespetatu izan dubena, bere posik andiyena izaten zan, zituben maizter gustiak bere mai onian biltzia urtian sei bider. Urte berritan, bere egunian, emaztiarenian, erriko patroyaren egunean, eguarritan eta Prenandoren egunian. Nola berak aurrik ez duen, errenta onak eta estuasunik ez, batera ta bestera diruba zabaldurik miseri franko erremediatubaz, makiñabat malko legortu ditu. ¡Zer ederra izan biarduben orrek, diruba izan ta bere biarretan bestiai laguntzia! ¡Nola zabalduko dan biotza! ¡Zenbat bider esantzi-

yon Prenandori Ameriketako griña ori uzteko, zituben ontasunetatik emango ziyola puzca on bat.... Bañan ¡zeñek arri burutik kendu gogo ura! Nola poztutzen zan maizterrak mayian bere aldamenian zitubenian, ikusirik ayen jatekosasoya. An egun batian tripan sartzen zutenarekin, bazuten aski, geyago jan gabe egoteko urrengo chanda arte.

LAUGARREN IRUDIA.

IV.

Eguilla bera ta AITON JOSEPE.

AIT. Egun on.

PIL. ¿Emen alda berriz?

AIT. Bai Pillipe. Jakin biardek natorrela....natorrela... Bañan ¿zertara otenetorren ni?

PIL. ¿Ez da gogoratzen e? Prenando....

AIT. Bai, bai. Prenando. ¿Nunda? ¿nunda?

PIL. Oraindik bada ez da ageri.

AIT. ¿Ez e? ¡Gizarajua!... (eseritzenda.) ¡A! Chikiya zanian zer argiya zan! Zer biziya! Badiruri ikusten detela orainchen nere belaun gañetan eserita. Bein ¡ja, ja, ja, ja! kapelua burutik kendu ziran, botazuben indarrarekin lurrera eta nerekiñ amalau urtian nebillen pipa gašua puskatuziran ¡Ja, ja, ja! Beste bein chamarrako botoi guztiak atera ziskirán eta etzeudelarik ingurdubarekin pegatubak. Ja, ja, ja, ja! Eta galdetzen niyonian zer izan biartzuben, esaten zuben. Obispo! ¡Ja, ja, ja! ¿Bañan ezda etorri?

PIL. Onez kero ezdu ordu erdirik luzatuko.

AIT. Bitartian belar piskabat erretzeko erostera nua.

PIL. Ez du ori bidia. Leyúa dago or.

AIT. A! bai, bai, badakit, emendik.

BOSTGARREN IRUDIA.

V.

PILLIPE bakarrik.

Beti oker dabill. Eranegun berriz nagusiyarekin egon biartzubela eta gelan sartu biarrian atarira juantzan !Iñoiz gizona omentzan bada ori¡ !Eta zuben uztarriyari Provintzi guztian ez omentziyon beste batek eramaten! ¡Bañan urtiak ezin kendu, eta naiduben guztiyak ere ez ditu oyek arrapatzen.

SEIGARREN IRUDIA.

VI.

Eguillea bera ta AITON JOSEPE.

AIT. (Ojuka.) ¡Pillipe! ¡Pillipe!

PIL. ¿Zer naidu?

AIT. ¿Zer naidetan? ¡A! Bai. Emen utziko nikan aztuta pipa...

PIL. ¿Pipa? Abuan dakarta.

AIT. Abu... bai, bai.

ZAZPIGARREN IRUDIA.

VII.

PILLIPE bazarrik.

Gizašua. Geruago ta okerrago jartzen ari dala uste det. Bazkariya aurreratuba irukikodu bada andre Panchikak. Nuan zerbaitez biar-

tzen otedan. Esne-arrozari ere begiya bota biardiyot. ¡Eta nola gustatzen zaizkitan neri zotza ayek eta gáñeko auts gorri ura! Norbait da atian. Alkate jauna.

ZORTZIGARREN IRUDIA.

VIII.

Egille bera ta MARTIN JOSE.

MART. Egun on, Pillipe.

PIL. Egun on, alkate jauna. ¿Emengo aldi?

MART. Bai, bai, Meza nagusiya oraiñ bukatu dek ta netorren jakitera Prenando inguratu otedan.

PIL. Ez da oraindik kochia ageri, bañan onezkeró ez du luzatuko. Pasa bedi salara.

MART. Ez, ez. Ondo niok emen.

PILL. Ešeri bedi, bada. Ara, emenda nagusiya.

BEDERATZIGARREN IRUDIA.

IX.

Lenguak eta JUAN BAUTISTA.

JUAN. ¿Bagabiltz goizetik, Jošé Martiñ?

MART. Bai Batista. Prenando etorri otezanen zoriyan...

JUAN. Ez oraindik. Kochien kontuban gaude. Nola atzo Sandandertik Donostiya josuben, iškribatu zuben zerbait egiteko chikien bat zubela Jošemaritarren artian, eta gaba an pasarik gaur egüerdiko kochian itzuliko zala. (esertzen dirá.)

MART. Juntzanetik, amar urte geiago dakazki bizkarrian.

JUAN. Baita guk ere aldamenian.

MART. ¡A! Guriak... guriak... gu bera guaz.

JUAN. Bera edo gora.

MAR. Bai, amar arte geyago.

JUAN. Guchiago bizitzeko.

PIL. Zerbaitengatik esaten diyo berorri erretore jaunak *esta vira es soflo.*

MA. JU. ¡Ja, ja, ja, ja! (PARTEZ.)

MAR. Erderaz ere ikasi dek?

PIL. Piškabat ¿Zer daki batek non arkituko dan?

JUAN. ¡Ba! Bazekiat nora uan ortikan.

PIL. Ukullura nijuan, jauna.

JUAN. ¿Ukullura e? ¿Itsasua pasa ta gero? ¿Badakizu Martin, aure Ameriketako asmo gogorretan dabillela?

MAR. Zer, ¿aure choratu aldute?

PIL. Jauna ni...

MAR. Ikasiko dek bizitzen, ago. Ez dek emen beziñ lasai jango.

PIL. Nik ikusten detana da, emendik modu batera juten diranak, beste moduz biltzen dirala echera.

MAR. Bai... ¿Kaballero egiñik?

PIL. Ori.

MAR. Bañan ik ez dakikana da, euntatikan bi jauncho ikusirik, beste larogei ta emezortziyak zer egiñ duten. Ori dek burutaratzia bezela emen noizik beiñ ikusten dekalako bat edo beste koche polit batian datorrela, eta galdeturik nungua dan, Donostiyakua aitu, eta andik denbora puska batera beste batzubek agertzian, jakiñik Donostiarrak dirala, esatia, Donostiyan guztiyak ederki bizi dirala beren kochechuakin eta nai bezela.

PIL. Onera azaltzen diran guztiak kochian etortzen dirá.

MAR. Ezagutzen dizkiak bada nik makiñabat geyago arrastaka ibiltzen diranak.

JUAN. Biar bada beren azaltzeko modubakiñ gu bañan okerrago.

MAR. Dudarik gabe. Ameriketan ontasuna egiten dek chiripa batez.

PIL. Ori bada. Chiripa billa juan.

MAR. Chiripa topatzeko ez dek orrenbeste itsaso pasa biarrikan. ¿Ik ez dek esaten eguarriyetan bost errial loteriko chartelan sartzen ditukanian, chiripa bat izango dala iretzat premiyo aundiya izatia?

PIL. Bai. Zergatik aiñ gaitza iduritzen zait...

MAR. ¿Beñere izandu dek?

PIL. Orrengatik bada.

MAR. Orrengatik bada. Chiriporren usayan ¿jungo itzake emengo gauzak utzita orrenbeste itsasbidian?

PIL. Ori ez. Enuke orren errez Mainloniren ondotik alde egingo.

MAR. Orra bada. Ondo ikasiya niok ni ango berriz. Urrutiko inchaurrak beti betiak. Lenbiziko iru urtietan ikusi nizkikan iştillu gorriyak. Makiñabat bider damuturik utziya nere echeko gozotasuna, mendi tarte aben edertasuna eta erriko guztien adizkidetasuna, esanik ¿nork burua berotu nau amets zoragarriyobek egiteko, eta utzirik egiyazko ontasunak ekarri nau onera, arkitzeko nere biotzeko paketasunaren truk miŝeri ikaragarri-

yau? «Iru urte gaizki jana eta lo egiteko »deseatzen nubela nere echeko ukulluba, ala»ko cherri tokiyetan arkitzen giñan. Gurasuari »izkribatzeko lotzetan, errira biribillatzeko as»mua artzen nubenian diruba beste lagun on »batek eman nairik, konturatzen nitzan zer »farrak eta burlak egingo zituzten batzubek »nere bizkar, eta atzeratzen nitzan biotzian »pena nubela eta esperantza galduba. Eskerrak »geruago lagun on arrek billatu zirala *pulperi*»*ya* esaten diyoten lekuban zartzeko moduba, »eta an gogotik sayatu ta lanik chatarrenetan, »urte betian nola bait tripa betenuben. Geró »nagusiyá iltzanian, nola nere eskola nuben, »echekoandriak ezaguturik kontubak erama»tekodiña nitzala, echeko irabaziyetako par»tean jarririk ondo juan eta sintzolan egiñaz, »diru mordoškabat egiteko bidia izandu ni»kan. Baña bitartian» ¡zenbat eta zenbat ezagutu dizkiat ezin diru pillabat bildurik onera itzulitzeko! Batek etzekik andik zer ekarriko duben, bañan geyenetan emendik eramatendan gauzik onena galtzetik aztendek: Errelijiyua.

PILL. (Arriturik) Orire bai? Orduban galtzen astenda?

MAR. Aitu dek bada. Eta ori galdu ezkero, ez dek gauza onik.

PILL. Ez jauna ez. Ez du Ameriketara jutiak baliyo.

MAR. ¿Eta emakumeak badira? Milla bider okerrago. Asko emakume an zertara alleatzen diran ez nikek esan nai. «Beren echietan Elizakoyak

»diranak, umillak eta langilliak, an estuasun »piskabatian arkitzen diraneako, izatendituz»te bai, laguntzak, bañan ¡zer preziyotan! »Lotza galtzen dute, biotzeko apaintasun ede»rra trukatzen dute gorputzeko jantzi chora»garriyen gatik, eta azkenerako arkitzen dirá sa»soirik onenian anima etzayari emanak, zimur»tubak, osasuna galdurik, ospital triste bateko »oyian, gurasoik gabe aldamenian, ez eta ere se»niderik, lagunik, ezerez, zergatik alde egi»ten duten guztiak, eta bukatzen dituzte egun »penagarriak, beren echeko sukalde chokuaz »oroiturik, ango su ondoko gozotasuna amona »aitak eta senidien artian; negarra gogotik egi»ñez eta biotzeko illuntasunarekiñ. Eta ori Ameriketako lurra ikutzen dutenen artekuak, zergatik ¡zenbat dira bidian Jaungoikuari kontu ematen diotenak! Sartzen dituzte ontzi aun»dietako gela kayol batzubetan amabika edo »amaseika, nun arkitzen dirán zulo azpiyarta»ko alde bakoitzian launa oi bata bestien ga»ñian sintzilik trapu puska baten moduban, au »lastaira kaskar gogor bat, burukiare lastozkua, »eta, estalki bat aiñ ariña eta zuloz betia, »nundik aizia ederki artu leiken, aizerik balitz »zulo azpi ayetan. Leku itu artan bata bestien »arnasak eta beste itzuli egiten duten aiziak »gaiztoturik ango egüera, sortzen diskate orren»beste egunen buru zernai miñ, eta bat miñez »jartzen bada, egoten dira bestiak gau eta »egun aren antziya triste ta penagarriyak ai»tzen gabez, ere eziñ luak arturik. Berriz, eri

»dagona arkitzen bada iru edo laugarrən oyan,
»beste aldi artako azpiyan dauden iruren ga-
»ñera erortzen dira goiko goragaliak eta beste
»biarrian egiten diran gauza zikiñak. ¿Au ez-
»ta aski bestiak mintzutzeko?

PILL. »Neri beñepin esne arroza jateko gogo guztiya
»kendu dit.

MAR. »Orrela bada gelditzen dira asko bide erdiyan.
»Eta gero ¿illtzea gertatzen bada? ¡¡A!! zer
»gauza ikaragarriyak! Ateratzen dute beria-
»la zulo artatik ¡nork daki nola! Onenian edo
»charrenian, arrastaka ikatz sakuba balitz be-
»zela, ontzi gañera, eta an lepuan otzen di-
»yote soka bat, jarririk beste muturrian pisu
»aundi bat, eta eskerrak apaiza izatea erregu
»chiki bat egiteko. Gero... ¡zer gogorra! bo-
»tatzen dute gorputz-ura itsas zabal artan,
»agerturik beriala ingurubayetan arrai aundi,
»abo zabal, ortz luzeak, gorputz triste ura mo-
»mentu batian puskatu ta tragatzeko. ¡A! Zer
»Amerikak!

PILL. (Alchatz-nda) Alkate jauna, ez bezala aurreratu, chorabiyua etortzenzait ta esne arroza jate-ko gogua kendu dit.

MAR. Gañera...

PILL. ¿Gañera? Dardarakua dakat gorputz guztian.

MAR. Ori baño geyago ere gertatzen dek.

PILL. ¿Geyago? ¿Zer geyago itsas pian arrayen mantenu izatia baño?

MAR. Eta gurasuak egoten dira zalantzan doi-doi izanik arren berri penagarriak. Iñork izkribatu gabe, bizi dan edo ill dan jakiñ ez: anbat an-

dik lau edo sei urtera jakitendute nunbaitetik, nolatan mundu ontatik joan zan, eta gurasuak urtietan sartubak badira, orlako berri gogorrak laburtzen dizkate beren egunak. Bizi diran bitartian berriz, otoitz egiñ nairik juten badira Lur Santura ¡A! An Erlijiyo Santubak ematen duben azken lekuan mundu ontan, beren zañetako puska ura es du Lur Santu arrek estalitzen, gurutzecho batek ez du gordetzen! Gorputz triste ura itsas-aundi arren bian batera ta bestera dabill, ilta ere doskantsurik arkitu eziñ baluke bezela, ebakiya milla pusketan array chiki eta aundiyen artian. Bitartian, erri chikiko Lur Santuban ikusten dira erregutzen batak eta bestiak biotz-biotzetik beretako an daudenak gatik, itsasoko ur gaziyen ordez, isuritako malkochoakiñ, puska maitiayek gordetzen dituben lurra gozatuaz.....

PILL. (Negarrez.) Baña.... baña... Jaunа orrenbesterañoko..... ¡Ai Jesús!

MAR. ¿Negar egitendek Pillipe? Bai, ik biyotz ona dek. «Ez dituk iretzat egiten Amerikak. ¿Ba»dakik zeiñ juaten diran Ameriketara? Onak »juten dituk eta onak etortzen dituk. Baña »aben artian zenbat buruberuak, alfer jendiak »lanari arpegi charra jartzen diyotenak, eta »itsuskeri batzubek emen egiten dituztenak! ¡Zenbat bider esan niyon Prenandori arako asmorik ez artzeko, bañan zoratu zuten eta gaitz erdi datorren bezela datorrenian.

PILL. Nik uste nuben bada...

MAR. ¿Zer uste ukan ik? An ontzitik ateratzeak uan kayen muturrian arkitzen zirala saku dirubak, edo lukainkaz kaliak josiyak zeudela, aldabak odolkizkuak zirala, eta arbolak ostuaren ordez liberdiko opillak ematen zituztela?

PILL. Nik jauna, aitu niyon indiyano zar bati galdeturik an diruba nola egiten zan....

MAR. ¿Indianoren batek esan aldik nola diruba egiten dan an?

PILL. Bai jauna Neri esantziran batek, emengo bat ontzitik ateratzian bertan, agertzen zirala jaun batzubek euskaldunak berekiñ eraman nairik, zergatik, diran jenderik onena ta langillena, eta denda eder batzubetara eramaten zituztela. Denda aiyetan omenda mai asko, eta paper asko, eta jende asko izkribatzen. Dendaren erdi erdiyan omenda chulo bat, bazterrian eskallera polit batekiñ eta lur barren ura omenda oso ederra. Lurra ta paretak nabarrizkuak edo marmol churizkuak. Ordu guchiko lanak omen dirá, bañan ayek ez zallak ere.

MAR. ¡Ja! ja! ja! Asko mudatu dituk baztar ayek ni etorri nitzanetikan. Ia, ia, ia.

PILL. Emengo umia goizian bederatziyak aldian jeisten omenda nabarrizko leku fresku artara, eta goiko zulotik palaka diruba, dena urria, bera botatzen duten bitartian, bekua eskoba batekiñ garbitzen dijuala lurra, an zabalik dabillen urria baztarturik.

J. TA M. ¡Ja! ja! ja!

MAR. Ez dek zikintasun charra. ¿Eta gero?

PILL. Gero biltzen dubenian guztiya asten dala apartatzen ontzakuak ontzakuekiñ, urre šarrak urre šarrakiñ ta orla. (Juan ta Martiñek maiz far egiten dute.) Gero jartzen omendira urtekuak alkarrekiñ, eta amabitako dranbatekuekiñ kapelua bete diru artu ta echera.

MAR. ¿Bere esku dauka kapelua betetzia?

PILL. Bai jauna.

MAR. Eta urrengo egunian kapela aundiyago....

PILL. Baitare.

MAR. ¡A zer kapela puskak ikusiko diran an! ¿Eta sinisten dituk gauza guzti oyek?

PILL. Jauna nik...

MAR. Išilik ago kirten ori eta ezaiela izan orren asto lukainka.

PILL. Ez, ez; utzi ditut nik asmuak ara juteko. Esanduben Erlijiyoren kontubarekiñ... Anima da lenbizi.

MAR. Noiz bait egi bat esan biaukan. An aña lan emen egingo balitz diruba kontuz gorderik, urtiak barru an aña diru eta geyago bilduko litzake.

PILL. (Leyotik begida.) Emenda Kochia.

J. ETA M. ¡A! (Leyora dijuaz: koskabil soñuba aitzenda.)

PILL. ¡Or da, or da!

J. ETA M. Bai, bai. (Ongi etorriya egiten guztiak besuenin. Aitzenda kampuan daboliña San Ignazioren mareha juaz, ongi etorriya ematen diyotela.)

JUAN. Guazen, guazen.

MAR. Guazen (Pillipek segitzendu leyuan esenbari eragiñaz.)

LENDABIZIKO EGINTZAREN BUKAERA.

BIGARREN EGINTZA.

LENGO IRUDITEGIA.

LENBIZIKO IRUDIA.

I.

(Burtiña alchatzen danian altzen da berriro lengo danboliñ soñuba. Len bezelaxen agertzenda Pillipe leyuan eskubeiñ agurrak egiten.)

PILLIPE bakarrik.

(Leyotik erdira etorri ta jendiari esanaz.)

¡Ta zer bapua datorren! Ez baziyon pañubeluari eragiñ, enuben ezagutuko. Bañan ¿nork daki? On Lorentzok ere ichura ekarri zuben, bañа gaŝotzentzan egun batian bai eta bestian.... ere bai. ¡Zer demontre! Ez dakit nik buyatubak edo nola etortzen diran. Emen gelditzen banaiz, nagusiyak aginduba nauka aldameneko eche bizitza, eta bei paria erosteko palta zaitan diruba ezkontzera gertatzen banaiz. Anbat izango litzake obia Maintonie-

kiñ konpontzia eta gure erretore jaunak bedeiñkaziyua ematia. Bai, bai. Utzi aldebatera Amerikak. Alkatiak esan dituben gauzak gogorchuak dirá, eta anima galtzia ori.... Jaungoikuak bere eskutik iruki gaitzala. Emen dira, emen dira.

BIGARREN IRUDIA.

II.

PILLIPE, JUAN BATISTA, MARTIN JOSE ta PRENANDO
(Prenando dator jantzi aski farragarrizkunarekiñ, albada oriya guztiyá, kanela kolorezkua, gorbata gorriyá lazo aundi bat egiñik, jipijapa eta familiyako guardasol batekin. Atzetik bruxa-dun bat kofre ta beskuko fardel ta beste gauzakiñ. Au gauzak utzita juten da.)

PILL. ¿Nola itza egingo ote diyot? Egun on, On Prenando.

PREN. Kašo Pillipe, ¡aunditu aiz mutill!

PILL. Ta beorri gizendu. ¿Ondo?

PREN Bai, bai.

JUAN. Guazen barrena, ama luze iritzirik egongo dek eta.

MAR. Ariyo bada.

JUAN. ¿Zer? betor barrena.

PREN. Gurekiñ bazkaldu biardu.

JUAN Bai, bai.

MAR. Ezin det iñolare, contzejura joan biardet erremediyorik gabe, eta gero echian bazkaltzeko Nikolás. Kafia artzera etorriko naiz.

BESTIAK Etorri bada.

MAR. Bai: prochu on dizuela.

JUAN. Baita zuri ere.

(Juan Bautista ta Prenando sartzen dirá echekoandriaren golan.)

IRUGARREN IRUDIA.

III.

PILLIPE bakarrik.

Maya jartzen asi gaitian bitartian, onezkero zintzilik daude amabiyak eta. (Itz egiten duben artian maizapiya ta beste gauza guztiyak jartzen ditu.) Amandrearen desiua aušen izandu da. Len Prenandok azkeneko jantzuben leku berian maya jartzekua. Amar urte abetan egunero jarri zaizka plater, kuchare, baso ta guztiyak, bera egotentzan lekuban, emen balego bezelašen. ¡Gajua! ¡Itz egiñ albalezake! ¡Eta zer majo etorri dan Prenando! ¡Kate aundi ederra! ¡Biatzordeko dizdizariak eta ¡kipikapa! ¡Orla etorriko banitz ni! ¡Ze chimista! Alkate jaunak esango du naidubena, baña nik Prenandoren gora berak jakiñ arte, ez naiz atzeratzen. Askok esaten dute eta egiya da, gaizki egiten dutela Ameriketara juten diranak beren gurasoak utzirik biar biarrenian eta laguntzeko sasoirik onenian, bañan ortan ez det nik zer ikusirik, zergatik nola gurasoik ezdetan, erderaz esaten dan bezela «*yo no tengue parde ni marde ni pero que me larde.*» Alaro Erlijiyua galtzen dan ori egiya baldin bada, orišen da okerrena... Bañan Prenandok ¿zenbat diru ekarri otedu? Guchienaz... guchienaz... lau... sei... zortzi... amalau... ogei... bai... guchienaz... dozena pare bat ontzako ekarriko zituben.

(Leyotik begira).

Emen dator palta zana! Kaitano itzontzi. ¿Zer itzontzi? Itz iturri edo itza-jariyo, zergatik izketan asten danian, ez daki noiz gelditu. Gizon ona ta prestuba da burutik oñetaraño, eta eskolatuba, bañan mundu ontan noski guztiyak zerbait palta izan biar, eta Kaitanok du bat ez chiki-chikiyare. Itza dariyo alde guztiyetatik. Alare ondo begiratu ezkero, ezda ori palta, baizik sobra. Beti umore onarekin far contubak sortzen ditu. Orrengatik ere, noizik bein seriyo asten danian, abua chabalik irukitzen gaitu. Emen da bera.

LAUGARREN IRUDIA.

IV.

PILLIPE ta KAITANO.

(Onek aldiuben presakena itz-egin biardu eta Pilliperi itza laburtubaz).

KAI. Egun on, Pillipe. ¿Ondo e?

PILL. Ondo ta.....

KAI. Bai, ni ere bai. Kochien soñuba aitu diat eta korrika jantzirik emen niatok chimistak egiten. Zergatik atzo eizian izandu niñukan eta goizeko intzakin belartian estul piskabat arrapatu nikan, eta orrengatik gaur enak echetik kanpora atera oraiñ arte. ¿Badakik? Nola ni eizera ateratzen naizenian guztiyak esaten diraten «naikua ekarriko du, gaur arategiyak ichi biarko dira» zerbait ekartziagatik arrapatu nikan estula. Bañan jakingo bauke, zer birigarro ederrá ikusi nuben! Sasi tartian doi-doi

ageri ukan, baña orduban jarririk zintzo eskopeta, eta kakua erortzerakuan..... ¡antziak birigarrua! Nola geldirik neguan ni, eskopeta luzatuta, noski birigarruak ustian sagar-arbolako adarren bat zala eskopeta, etorri ukan kañoyen gañera.

PILL. ¡Ja, ja, ja, ja!

KAI. ¡A zer ištillubak orduban! ¿Nola tira? ¿Zertako?

PILL. Ta.....

KAI. Ago išillik. Orduban poliki poliki, eramanikan eskuba burura, ateranikan kapela birigarruari gañian jartzeko asmuarekiñ, emanikan kolpia, kolpiarekiñ tiruak itzul egin zikan eta.....uts. Andik puška batera azaldu ukan ginga arbol baten muturrian, kantari lertzen, nitzaz burlatzen bezela.

PILL. Orduban.....

KAI. Utzi nazak izketan. Nik bazekiat birigarro ura agertzen zaitala amabost egun abetan, eta ezagutu dik noski ez naizela ni eiztari ernaya ta azkarra, edo jostaketan ni chuliatzeko gogo aundiyak dizkik. Bañan egun batian ez bada bestian eroriko dek, zergatik nik begiya jartzen detan lekuban.....ez dek egoten choriya, baño choriya dagon lekuban..... eztare nere begiya. Ia mutill, ez nak esaten ezerere Prenandoren etorriyaz.

PILL. Bada.....

KAI. Bazekiat bai, zer esango nakan. Lodi ta bapua etorri dala. Obe, obe. Echera inguratzia onena. Amaika gelditzen dituk aldi ayetan zer ta nola ziran sekulan jakin gabe. «Buenos

»Aires ta Montebideoko paperak beti betiak »ziatoztik galdezka, onlako nun dan, alako »non dan, batek amar urtian bestien berririk »ez dubela, aitak nun otedan semia, amak »nun alaba, eta egun batian ta bestian, urtiak »jun ta urtiak etorri, beti galdeera berakiñ, »eta geyenetan aztarrik izan gabe. Emen- »dik jutia erreša dek, baño gero andik biurtzi- »ak izaten dizkik bere zailltasunak. Isaten »dek sagu-tranpa bat bezela, dubena sarre- »ran ol puškabat aldapan jarriya eta arren bu- »kaeran lotuba urdai edo gazta koškor bat. »Usayian sagubak iyotzen dik aldapa ura ta »goi aldera zeguan iškiña jeisten dek bera sa- »guben pišubarekiñ, iyorik bian zeguan muñu- »rra, eta orduban sarrera edo atera lekuba gel- »ditzen dek ondo ichiya duben kako chiki »batekiñ. Sagubak jaten ditubenian an dauden »urdai edo gazta puškak, oroitzen dek biurtziaz, »bañan eziñ iñolako moduz...

PELL. »Barrenen....

KAI. »Išillik ago, berritzuba. Egiak ez dirala uste »aldek nik esaten ditutan gauzak? Oraiñ dala »denbora guchi ere Ameriketatik bertatik »izkribatzen zuten, eguneroko paper periodi- »kubak izena dutenari, onela: !A! Gurasuak ja- »kingo baluteke zer mišeri ta lanak emen pa- »satzen dituzten beren semeak; batez ere amak »ezagutuko baluteke zer sortea izaten duten »beren gaitz gabeko alaba maiteak, anbat na- »yagoko luteke ikusi Lur Santuaren azpiyan, »erortzen diran leku ikaragarrizko itsusiyetan

»baño, beñere geyago alchatzeko modurik ga-
»be. Eziñ konturatu gera (ezaten dute) iñola-
»ko moduz, nola izanik probintzi eder oyetan,
»orlako jende ona ta langillia, nola arkitzen
»diran orren biotz gabeko amak, merkatari
»charren eskubetan usteko errukigarrizko ala-
»bak. Bañan amacho gajuak on onak izanik
»eta naitasun aundiyarekin alabarentzat, ez
»dirá jakiñen gañian egoten, merkatari batzu-
»bek bide onekuak eta zuzenak izanikan, zer
»izugarrizko gisan emakumeak gertatzen dirán.
»Gañera andik beste batek izkribatzen zu-
»ben au: «Esayozute gure erritako gazte
»maitiari, emen gaudela asko ta asko Eus-
»kaldun ta Napar, trukatuko gendukenak gure
»izaera, beren bizi moduarengatik; eta biur-
»tzen ez bagera gure mendi tarte eder oyetara,
»dala dirurik ez degulako, ta gañera beste
»arrazoi aundi batengatik, dana, or gaizki iku-
»siyak izaten diralako emendik diru mordoška
»batekiñ juten ez diranak.» Orra: urrutiko
»inchaurrak amalau, alderatu ta lau.»

Pill. »Nik.....

Kal. »Gauza abek guztiyak ¿zergatik gertatzen
»dira? Zori gaiztoko diru gutizien gatik. ¿Eta
»anima? Zergatik diru egiteko griña aundiyen
»gatik, geyenak Erlijiyo Santuaz aztutzen di-
»rán. Bigarren pekatu kapitalaren bidez,
»amaika negar egitenda mundu onetan. Orlako
»jendien biyotz biguñ izandutakoak, jartzen
»dira arriya bañan gogorrago, eta bizitzen
»dirá beti, dirubak katibaturik, lo gozorik egin

»gabe, eta edozeiñ kinketakok izutzen dituz-
»tela. Sustrai char ori egoten da gordia perso-
»nen gorputzian, arbolen sustrayak lur azpi-
»yan bezela, eta biotzeko sentimentu on guz-
»tiyak alde batera utzirik, gogotik goiz ta arratz
»lan egiten dute, ez beren biarrak betetze-
»ko, baizik diruba pillan ikustia gatik. Be-
»retzat diña dubenak, esatendu semien-
»tzat egiten dubela. Semerik ez dubenak,
»biar dubela ba ezbada, miñak, ausiak eta bes-
»te gerta litezken gauzaren zalantzan: eta ala
»sekulan ezdute palta aitzakiren bat diru go-
»sien naikida ezkutatzeko. Gañera ichutzen
»dira ainbeste, nun batere arretik eta con-
»zientziko kezkik gabe beren opa aundiyan,
»nola nai diruba biltzeko jartsen dirán, ikusi-
»rik aldamenian batere kupidik gabe, beartа-
»sun penagarrizko jendiak, iñolare lagundu
»gabe, naiz izan senidiak. Orrenbeste gogor-
»tzen dira ayen barrenak. Eta askok uste dute
»zorionekoak dirala. ¡Zorionekuak! Bañan
»¡zenbat atsekabe, festa eta erokerietatik ate-
»rataberen gelachuan bakartasunian arkitzen
»diranian!

PILL. Beti.....

KAL. »Oyek ikusten dituzten jendiak esango dute:
»¡Zer bizi-modu ona! Ta orlakuen animak ¿no-
»rako izango dirá? Zergatik Jaungoikuaren bil-
»durrik gabe nolanai egintako ontasunak dirá
»¡ai! urkatzera eramaten dutenaren bizkochuak
»bezela. ¿Ezaldakizute urkatzeko bat dagoa-
»nian, bezperatik ematen dizkatela bizko-

»chuak eta naidituben ardorik gozoenak? ¿Eta »ganz abek artzia-gatik, naiko altzenduteke »urkatzeko trantze ikaragarriyan jarri? Orišen »nai izatia ta billatzia bezela da bada, mundu»ontan zoraturik, Jainkuaren legez astuta bi»zitzia. Urkatzeko dagon errukigarriyak, ondo »jan ta eranik bizitzeko dituen ordu eskasak, »dira milla ta milla ta ezin kontatu ala geyago, »mundu ontan eramaten ditugun egunak »beste mundu betikoaren aldian baño. ¿Iñor »bada orrela nai duena bizi? Ez; burutik oso »nastuba ez baldin badago. ¡A! Zeruba utzi »ordu batzubetako bizkocho jatiagatik, gero »infernuban su biziyan erretzeko.....! Mundu »ontan gaizki irabazitako dirubak dira urka»tseko dagoanaren bizkochuak; dira desiertoko »galeperrak bezela, Jaungoikoak Israelitari »beren opaz bialdubak, eta gogo aundiyenekin »mokadu gošuak abuan zituztenian, bialdu »ziyoten kastiguz sugeak, koskaka Israelitaren »gorputzak pozoiz beterik.

PILL. »Arrani.....

KAL. »Orrengatik da zallago diru asko dutenen sal»bazioa. Ori bera gertatuko zayote, bada, ku»tiziz diruba gaizki egintakuari. Lurrak lurren »gañian, echia echien gañian, errenta onak, »guztiyak bereganatu, ta bat zoratubena dago»nian.....Arrats batian berandu šamar atera»tzenda dantza leku edo jostaldiko biltokitik, »nai aña far ta erokeri egiñik, eta bere eche»ko gelachuan sartzen da. Erantzi ta erropak »zintzilik jarririk, oyeratzen da batere kontu-

«ratu gabe munduan ur bedeinkaturik ote «dan. Urrengo goizian chokolatia artzeko «duen orduba pasatzen da zintzarriyari era- «giñ gabe. ¡Gure nagusiya orregatik logale da «gaur goizian! Esaten dute echekuak. Bañan «ikusirik ordubak aurrera dijuazela, baezpada «bat sartzen da gelan. Deitzen diyo ta ezdu «erantzuten. Oju egiten diyo, ez ta alaere. «Orduban urbiltzen da, ta igartzen du tronko «bat bezela dagola. Izututa ateratzen da bata- «ri eta besteari esanaz zer gertatzen dan. As- «ten dira malkuak emen, negarrak an, ojubak «alde guztietan. Zalapartan dabill jende guz- «tia. Itz bat besterik aitzen ez da abo dene- «tatik. ¡Medikuba, medikuba aguro! Ateratzen «dira billa dozen erdi bat, bat ezpada bestia «ekartzeko. Agertzen da bat. Ikusten du oyan «daguana, ta guztiyak larriturik medikubari «begiratzen diyoten bitartian, onek burubari «eragiten diyo, esanik ibilkera chiki onekiñ, «itz-guztiyakin esan leiken baño geyago. Me- «dikubak agintzen du zer egiñ eta gañera «aditzera ematen du, gauza estuasun aundi- «kua dala ura, eta bere jakintasunak utzi biar «diyola lekuba beste bati. Emen, diyo, apaiza «biarda. Bitartian jartzen dizkate gaizkituari «parchiak zankoetan, maskullu jela buruban, «ematen dizkate izayak belarri atzietan edo «sangrien bat edo beste. Bearbada, azkeneko «estuasunatan gogoratzen zaizka bere biziyan «egiñ dituben gauza itsuskeri guztiyak, zenbak «gaitz egin duben eta zenbat on egin lezakela

»utzi duben egin gabe. Orduban ¡zer mingarria, «zer penak, zer antsi tristeak! Biziya badijua, «festak eta chorakeriyak bukatu dirá... inda-«rrak guchitzen..... obia azaltzen zayo begien «aurrian..... lagunak uzten dute batere buru-«taratu gabe egunen batian gisa ontan arkitu-«ko dirala, eta komeni dala Jainkuaren bel-«durtasun santuan bizitzia..... eta alkarri esa-«ten diyote: «ikusiya dago onena, gauza galdu-«ba. ¿Nork esan? ¿Zeñek esan? Ori, ori. Bart «alako ondo ta umore onarekin.....Gabon, bi-«gar arte esantzigun.... ¿Zeñek esan? ¡¡Zeñek «esan!! Apaiza badator presaka....gordeta ze-«guan gurutzerik aundiyena jarri, kandelak «piztu.....apaizari eziñ erantzun diyo....Oliyo «Santua eman bitartian, denak belauniko «erregutzen... ordubak juan ta ordubak etorri, «ezta konturatzen. Esiñ Jaungoikoaren grazi-«yan jarri da... ¡¡Ill da!! ¿Eta anima? ¡A! Ika-«ratzen da bat¡gogoratzia ere¡ !Zeñek esan arri, «bezperan zintzilik jartzen zituben erropak «etzituela geyago jechiko, ikutuko!

PIL. Zer dan.....

KAL. Bañan Prenando ¿amarekin egongo dek e?

PIL. Bai jau.....

KAL. Zer itzegiñ asko izango ditek oraiñ bai, eta obe izango diat geruago etortzia. Bai, Pillipe baniak.

PIL. Bai aldi.....

KAL. Bazkal onduan etorriko nak eta luze itz egin go diagu.

PILL. Bañan aurki...

Kai. ¿Zer? Enak izketan ere uzten, berritsuba. Gero arte.

BOSTGARREN IRUDIA.

V.

PILLIPE bacarrik.

¡Beti bezela! Asteko betik ere ez dit eman, ta ¡berritzuba deitu neri! Bañan ¡zenbat dakiyen ta zer egiyak esaten dituben! Mundu ontako egunak, chimisten argitasuna baño ezin kontatu aña bider laburrago dirala beste munduaren aldian, lenguan esaten zuben. Bai, bai. Gure Erretore jaunak esaten dubena: «esta vira es soflo.» Badatoz, bada, oraiñ bazkaitara. Onezkero garaya izango degu. ¡A zer tripa betetzia gaur esne arrozekin!

SEIGARREN IRUDIA.

VI.

Egillo bera, Andre MADALEN, JUAN BATISTA ta FRENANDO.

FREN. (izketan bestiakin) Ni atera nitzala Buenos-Aires etatik badira oraiñ iru illabete.

JUAN. ¿Orrenbeste denbora?

FREN. Bai aita. Zergatik bi illabete geyago pasa ditut bidian gelditurik Rio Janeiron, Pernanbukon ta orla.

JUAN. Ta ¿zer modu daude alde ayetan?

FREN. Charrak.

PILL. ¡Ai, ai, ai!

FREN. Geruago ta zallago zerbait egiteko. Amaika badaude albalezateke etorri, naiz ontziyen

muturrian zankoloka egingo lutekenak biajia. Neronek dakit egin ditutan chanpon piskak zer kosta zaizkitan. Oroitzen nitzan, bai, zer esaten ziraten ongi biarrez nere apaidiñ gisajoak eta Martin Josek. An egin detan lanaren erdiyarekin, eta diruba an bezela gorderik, geyago bilduko nuben emen. Eskerrak lagun arte edo soziedade berri bat jarri dala tasajo esaten diyoten aragi zeziña egintakua Europa edo mundu alde ontara ekartzeko, eta an jartzeko detala diruba emanik euneko ogei ta bostian, eta orrela zerbait aurreratu nezakela. An ganaduba iltzen da asko, larrubaz serbitzeko, eta aragiya botia ibiltzen da eta galdu egiten da.

PILL. Emen aprobechatuko litzake bada.....

PREN. Eta gogoratu zayote onera ekartzia.

PILL. Ez da zaill ori gogoratzia.

PREN. Baña bai ekartzia.

PILL. ¿Ez alda ba ontzirik?

PREN. Ontziyak badira, bañan aragiya ekartzian *tropikuak* deitzen zayoten leku batzubetaraño, galdu egiten da. An dan beruarekin usteldu; eta orregatik oraiñ ontzi barrena jelaz betiarekin egin liteke..... Bañan ama, guazen mayera.

JUAN. Orra nun daukazun zure lekuba.

PILL. Baita amar urte abetan ere.

JUAN. Lengo denboretan bezela bedeinka zazu maya esanik *Aita gurea*.

(Prenando estutzen da, eta asten da aubera penarekiñ.)

JUAN. ¿Zer dezu?

PREN. Ezer ez (Malkua dariyola eta lotsaturik)

JUAN. Bañan *Aita gurea*.....

PREN. ¡Aztu egintzait! (Lertu biarrian)

GUST. ¡¡Aztu!! (Arriturik ta izuturik, Ama gajuak eramaten dibu eskubak arpegira estaldurik. Aita alchatzenda.)

PILL. Egiya zan beaz alkate jaunak.....

Kart. (Barrondik ojuka.) ¿Nor d'emen?
(Pillipe dijua)

ZAZPIGARREN IRUDIA.

VII

JTAN. ¡A semia! ¿Zér baliyo ditek ik ekarri ditukan dirubak, galdu dekan barren on arren aldean. Erlijiyua.....

ZORTZIGARREN IRUDIA.

VIII

PILL. Karta au Prenandorentzat.

JUAN. ¿Daguaneko?

PREN. Bai, nola nik bidian bi illabete geyago pasa ditutan.....

PILL. ¿Beraz alkatiak esan ditubenak egiyak gertatzen dira?

¿Ameriketara joan?
Ez, ez: ezti atzera.
¿Ango lurretan gorputz
ta anima galtzera?

Obe det emen pakian bizi nere bei parechuarekin ta Maintonirekiñ.....

PREN. (Oju bat egiñik) ¡A Galduba naiz!

BEST ¿Zér da? (Guztiyak alchatzen dira mayetik estuasunarekiñ.)

PREN. Nik diruba soziedade ortan jartzeko eman niyon echeko jabiak malkarrot egiñ dubela.

BEST. ¿Malkarrok?

PREN. Eta guztiyakiñ alde egin dubela

JUAN ¡A¡ Orra, orra, mundu ontan Jaungoikoaren lege santubaz aztu ta bizitziaren okerrak.

BEDERATZIGARREN IRUDIA.

IX.

Lenguak eta AITON JOSEPE.

AIT. (Larrituba) ¿Nun da ori? ¿nun da ori? ¿nun da Prenando?

PILL. Ori.....

AIT. ¡A Prenando, ator nere besoetara! (Besuak alcha ta luzaturik Prenandori: Onek nola burugaltze gogorra dakarren berri char orrekiñ, eskuba luzatuta apartatzera bezela egiten diyo.) ¿Zer? ¿Neri desederki au? Aušen ikusi biarra neguan nere asken egunetan! ¡¡Ai!! (Kroritzen da kolpe aundiyarekiñ korde gabe.)

GUZT. ¡A! (Laguntzen diyote.)

JUAN. ¡Orra diru gosiak eta euneko ogei ta bostak! ¡A zer egiya! Urrutiko inchaurrak ots asko!

PILL. Juantzanian ama mututu, eta etorri daneko au. ¡Zorioneko Amerikak!! (Esaten du indarrarekiñ.)

(BURTIÑA jeisten da presaka.)

BUKAERA.

DONOSTIYAN 1885-ko GARAGAR-ILLEAN.

OARKERAK.

Chiribista edo koma artean azaltzen dira itz-aldi batzubek, zergatik etziran esaten jostirudia aurkeztatzerakoan, ez luzatu ta pisugi egitiagatik.

Egillearen euskerazko jostaldiak dirá alegiñian, emakumerik gabekoak, batekoak, edo ontan bezela, emakume mutubakiñ, zergatik zalla izaten dan emakumeak arkitzia euskarazko jostaldiak aurkeztatzeko, eta askotan emakumiak dituzten jostaldiak ez diralako egokienak gertatzen.

Ala, ANTON KAIKU-N emakume bat azaldurik, dago jarriya, kenduta ere, aurkeztatu leiken gisan.

Egilleak bere kontu duben Biltokiko lenbizi izan dan konpañi enzkerazkoaren siñalatzalle edo apuntadore, izandu da ala jostirudi ontan nola bestietan, Toribio Alzaga jauna.

A.T.V.-10207

GORGONIOREN ESTUASUNAK.

ZARZUELA-MOLDAERA

gizon bakarrentzat eta egintza batian

Marcelino Soroa Lasa-k

IZKRIBATUA

PESETA BAT

TOLOSA.—Antigua Capital foral de Guipúzcoa.

SAN SEBASTIAN:
Imprenta de los Hijos de I. R. Baroja, Constitucion, 1 y 2.
1894

Egilliarena da.

Manuelita-ri

Aitacho

Marcelino-k

EGILLEAREN EUZKERAZKO

jostirudiak Donostiko Teatro Principal edo zarrean chalo askorekin aurkeztatubak.

Iriyarena.

Anton Caicu.

Gabon (Bigarren argitaratza).

¡¡Au ostatuba!!

Alcate berriya.

Urrutiko inchaurrak (Durango-ko Euskal-festetan urrezko medallekiñ saritua).

Gorgonioren estuasunak.

¡¡Lapurrak, Lapurrak!! (Argitaratzeko)

Barrenen arra. (Argitaratzeko).

Idurigilleak.	*Egintzalleak*
Gorgonio	On Jose Artola
Marciano (len Martina).	» Armando Larzabal
Joshé.	» Norberto Luzuriaga
Sebastian	» Ignacio Iribarren

Jendia.

Gertaera iduritzen da Tolosan

1888ko Abenduaren 26an aurkeztatu zan, Juan Guimon jaunaren musikarekiñ.

Siñalatzallo edo apuntadoria, bestietan bezela, Toribio Alzaga jauna izanik.

EGITE BAKARRA

Irudi tegiak aurkestatzen du ostatu bateko jan gela bat.

LENBIZIKO IRUDIA.

I.

Jendia bazkaltzetik bezela mayetik alchatzen da. Marciano gauzak jasotzen.

MUSIKA

(Kantatzen dute nai dan doñubain, pianuarekiñ edo beste gisa, nai bada boza utzian, edo bestela esan litezke berso abek eta gero azalduko diranak, izketan, banaka egiñik jolasa.)

GUZTIYAK Bazkaldurikan bapo
guazemak plazara,
an egingo diagu
gogotik algara.

BATZUBEK Oraindikan mutillak
tragocho bat bota.

BESTIAK — Bota, bota beste bat,
oraindik dagota.

GUZTIYAK (*Eraten*) Trago abekiñ zaigu
barrena pizkortu,
etzau gizon makala
au zubena sortu.
Sagarduentzat berriz
ez gera makurrak,
eranik ez ditezen
ordoitu zintzurrak.

BATZUBEK (*Barren aldera beida*)
Ariyo Martinacho

BESTIAK — Baguaz Martina.

GUZTIYAK — Bañau etzaigularik
astuko propina. (*Dijoaz*)

BI-GARREN IRUDIA

II.

MUSIKA

Marciano (*Bakarrik.*)

Feri eguna da ta
guztiyak dute jai,
orrengatik dabiltza
kalietan alai.
Iji, aja kantari,
dantzak ere nun nai,

ni berriz echechuan
jende guztiyensa.
(*Izketan*) Eta Martinak esaten dubena: (*Esaten du, albada, emakumien boza antzian*) «¡Ez da gizonak bezelakorik! ¿Nunda nere gogua? An da nere zankua. Emakumiak berriz, eche chuluan sartu ta egon.» Ori esaten du Martinak, bañan badira batzubek, eta ez guchi ere, ibiltzen diranak firri-farra edozeiñ aitzakiekiñ kalien erdiyan.

IRU-GARREN IRUDIA

III.

Marciano ta Gorgonio

GORGONIO (*Egintzallearen eskuiko gelatik ojuka*) Marcos.

MARCIANO Asi da berriz ojuka gure enreamakilla.

GORG. Mauricio, Mauricio. (*Deika*)

MARC. Bai; ta Macario, ta Martin, ta Mamerto, ta... edozeiñ izen. Neria ez beste guztiyak.

GORG. Macario, Macario.

MARC. Ez diyot bada erantzungo nere izenekiñ deitu arte.

GORG. Mamertoóóóóó.

MARC. Mariatu biar ditu baztar guztiyak, boltsa diruba galdu duben kontu orrekiñ.

GORG. (*Aterarik; beti guardasol zar farragarizko batekiñ.*) Bañan zuk ¿ez aldezu aitzen?

MARC. Enaizela ni Martin, ezta ere Marcos, Mauricio, Macario ta Mamerto, baizik Marciano ta Marciano.

GORG. Bai; Marciano Berritzu.

MARC. Ezta Berritzu ere; ni naiz Marciano Lecuona.

GORG. Bai, bai; ez diruizu leku charrekua, ez.

MARC. Ez orreatik. Artuko luke.

GORG. ¿Artu? Nik artuko nukena da galdu zaitan boltsa.

MARC. ¿Ez aldu arkitu?

GORG. Ez Martin ez.

MARC. Marciano.

GORG. Bai; Mar... Mar... ori. Betí mar-mar berriketan ari zerata... Orra bada; jakin bear dezu, gaur goizian Zuma-

rragatik atera naizela bei bat crosteko asmoetan ta.....

MARC. Bai, bai; aitu diyot len ere, Gogornio jauna.

MAN. Eta ortarako nik nere lanak nolabait egiñ biar ditut. (*Deika*) Juanito.

JUAN Banua jauna.

MAN. Alegiñ guztiyekiñ gure Euskera ederrentzat, zergatik zenbat eta geyago ikasi, orduban da baliyo aundiyago du guretzat.... (*Deika*) Juanito.

JUAN Bai, bai; orainchen nua.

MAN. Euskera nastu zaigu, bañan gelditu zaizkigu zuztar garbiyak, eta arbola chukun biar degu utzi, mozturik adar okerrak. (*Deika*) Juanito, Juanito.

JUAN Beriala or naiz.

MAN. Aurretik jun diranen antzian Euskera nasgabea azaltzeko, nola eguzki ederra batere odoirik gabeko zeru urdiñian agertzen dan. (*Deika*) Juanito.

IRU GARREN IRUDIA.

III.

Manuel eta Juan

JUAN ¿Deitzen aldit jauna?

MAN. Deitu diat ogei bider.

JUAN Eta beste ainbeste bider eranzun diyot.

MAN. Bai bañan ez aiz etorri beriala.

JUAN ¿Badaki...?

MAN. Ez etzekiat.

JUAN Ez; nik esan gabe ez du jakingo.

MAN. Orrengatik bada. ¿Zertako esaten dek ¿badaki?

JUAN Orra bada. Nere lagun bat arkitu det echi' ontan ta, nagusiyen illobekiñ eskonduba dago ta, sagardo ederra eskeñi dit ta, aspaldiyan ikusi ez giñan ta.....

MAN. Ta, ta, ta, ta, ta. Aurrera.

JUAN ¿Nora?

MAN. Aurrera.

JUAN ¿Nora aurrera?

MAN. Kontatzeko kontatu biar dekana.

JUAN ¡A! Nik uste nuben aurrera juteko esaten zirala. Bada orlako sagardua eskeñi ta ¿nola ukatu bati?

MAN. Ezta biri ere.

JUAN Ezta iruri ere (*indarrekiñ*) Upeleko sagardo charrik ez omenda emen ta ¿zer egiñ? enbotellatutako sagardo ona eran. ¿Zer erremediyo?

MAN. ¡Ez ago i upela charra! ¿Ta goizetik sagardua eraten asi?

JUAN ¡Je, je! Aldanian, jauna, aldanian. Ar-

tzaldian obe, bañan ez bezala orrengatik keskik izan. Artzaldian albadet erango det.

MAN. Bai, zinizten diat. Ez dek bi aldiz esan biarrik. ¿Ez aldakik juan biar detala?

JUAN Ona bada Juan. ¿Zer biar du?

MAN. Etzekat farra egiteko gogorik.

JUAN Ez bezala negarrik benepiñ egiñ.

MAN. Baniak.

JUAN ¿Oraiñ?

MAN. Bai, oraiñ. ¿Zergatik arritzen aiz?

JUAN Nola esantziran bigar edo etzi zijuala...

MAN. Beste asmo bat artu diat.

JUAN Beti ori egiten du.

MAN. ¿Zer?

JUAN Mudatu aizia bezela.

MAN. Egualdi ona ziok ta ez diat galdu biar.

JUAN Bero egingo du jauna. Obeluke jun bigar goizian goiz freškurekiñ.

MAN. Ez diat denbora geyago pasa nai osaba ikusi gabe. ¿Jarri aldek fardela?

JUAN Bai jauna, jarriya dago beorrek esantziranetikan.

MAN. Nik pasako dizkiat kanpuan amar edo amabi egun.

JUAN ¿Orrenbeste?

MAN. Bai.

JUAN ¿Ta zertako ez nau ni beorrekiñ eramaten?

MAN. Ez; ik emen egon biar dek.

JUAN ¡A jauna! Iduritzen zait geruago ta nere biar guchiyago dubela.

MAN. ¿Zer ésaten dek? Ez dek chanchetan ere aitatu biar orlako gauzik. Bazekiat biotz onekua eta leyala aizela, ire anzea alaya eta eninukek arkituko i gabe.

JUAN Ori bera gertatzen zait neri. Enitzake jarriko beste nagusi bati.

MAN. Eskarrikasko Juanito.

JUAN Bañan beorren osaba ori ez det nik esagutzen ta esagutu nainuke.

MAN. Esagutuko dek urrengoen batian.

JUAN ¿Tá beorri gabe egon biar det orrenbeste egunian?

MAN. Bai, ta arrazoya esango diat. Paperes beteta dauden kofri' oyeri ondo kontu artu biar diyok, zergatik neretzat diruz betiak baleude bañon geyago baliyoditek.

JUAN Euskera berritzeko seta orrekiñ buru guztiya nastu biar du.

MAN. ¿Zer nai dek gauza ederragorikan bularrekiñ edoski degun itzkuntz maitagarriya onen aztarnak sustrayetik esagutzia bañon?

JUAN Bañan ¿zertako estutzen da orrenbeste? Beorrek naiditu paper zarrak.

MAN. Bai, ta ik choch berriyak.

JUAN ¡Je, je! baleude..... (*Eztarriyari eragiñaz eta ezpañak esku gañekiñ bi bider igortziyaz*).

MAN. Esagun dek ez dekala sentitzen gozotasun au.

JUAN ¿Sagarduaren gozotasuna? Bai jauna, bai.

MAN. Gozotasun ura.

JUAN Ura ez, sagarduarena.

MAN. Gure amak seaskachuan laztan gozoakiñ nastuban esaten zizkigun itz ezti' ayek ¿nai dituk astu?

JUAN Ez, jauna, ez; bañan beti paper tartian dabill eta zenbat eta zarrago nayago....

MAN. ¿Ez aldakik autzekiñ eztaliya egoten dan suba ez bada noizik beiñ mogitzen nola itzaltzen dan?

JUAN Bañan....

MAN. Gañeko zakarra kendu eta eman ezkero ikatz ona ¿ez aldu indarrik artuko?

JUAN Bai....

MAN. Orra bada.

JUAN Onera etorri ezkero bildu ditu lau kofre paper zar eta orla baguaz ez ditugu

eramateko aski izango Donostiko zaldi zuri guztiyak.

MAN. Ago išillik.

JUAN Paper bankukuak balira....

MAN. Mutill, ez diruik Euskaldun bersolariya. Ekatzak fardela, ta mendi-makilla ere bai.

JUAN Beriala jauna.

LAU-GARREN IRUDIA.

VI.

Manuel (*bakarrik*)

Denbora pasatzen badet emen berriketan, berandutu egingozait eta lenbailen jutia izango det onena bazkaltzeko garairako azaltzeko osaben echian. ¡Zer poza artuko duben nere osabak ni ikustian!

BOST-GARREN IRUDIA.

V.

Manuel eta Juan.

JUAN Ar bezazki.

MAN. Ariyo Juanito.

JUAN Ondo ibilli jauna.

MAN. ¡A! ¿Diruik bai aldek?

JUAN Bai jauna, bost pesetako bat.

MAN. ¿Besterik ez? Pagatu aldizkiat juan diran illabetiak?

JUAN Azkeneko biyak ez dira neretzat illa-betiak izan, illa-ustubak izandu dira.

MAN. ¿Orrenbeste zor diat?

JUAN Beti paper oyekiñ dabill ta astu egingo zan.

MAN. Sentitzen diat bada.

JUAN Nik ere bai.

MAN. Bañan orainchen diru eskasiyan niok...

JUAN Ez bezala bada kasorik egiñ.

MAN. Egun batetik bestera sai niok....

JUAN Orduban pagatuko nau.

MAN. Esango ziyuat oraiñ eche nagusiyari emateko biar dekan guztiya. Ni kanpuan naizen bitartian ez diat nai ezertaz eskasiyan egotia.

JUAN Eskarrikasko jauna.

MAN. Eta kontu kofriari.

JUAN Bai, jauna, bai; ez bururik galdu orrekiñ.

MAN. Urrenarte.

JUAN ¡Ondo ibilli jauna! ¡Ondo ibilli! ¡A zenbat aspertuko naizen bakartasun ontan!

SEI-GARREN IRUDIA.

VI.

Juan (*bakarrik*)

Juan da. Nai det esan, nagusiya juan dala. Nagusiya ez da Juan, ni naiz Juan,

bañan nagusiya juan da, ta ni ez naiz juan. ¿Ta nik zer egiñ biar det oraiñ? Lenbizi beñepiñ ichi zagun bere kuartoko atia ez dezaten alde egiñ paper oyek. ¡Kuartoko atia! Nagusiyak aituko balira esango lirake ez dala kuartoko atia esaten, baizik gelako atia. Ez dakit nik zergatik artzen dituben orlako buru austiak. Berak nai dubelako. Ori da bere gustua, ta ordaras esaten dan bezela: *«gustos que te mereses palos.»* ¡Ta zer nagusi ona! Ez du arrokeririk, eta arren abotik beñere erriyeta bat ez det aitu. Amaika orren lekuban arkituko balira ez lirake kabituko Donostiyako Konchan. ¡Nola ibilduko oteda beru' onekiñ bidi' oyetan! Ta nik ¿nola denbora pasa oraiñ? Alejandro libre balegoke... bañan bere libru ta kontubekiñ lan asko dakarrela ta.... Nere gitarra zarra artuta jo ta kantatu egingo det...

ZAZPI-GARREN IRUDIA.

VII.

Juan eta Alejandro.

ALEJ. ¿Zer ari aiz Juanito?

JUAN ¿Ez dekala asmatzen?

ALEJ. ¿Andre gayen dotian pentzatzen?

JUAN Mutill, nagusiyen librubak eramaten ditukanetik ez dek dirutan besterik pentzatzen. Gitarra jotzeko asmuetan niokan.

ALEJ. Aspaldiyan ez diat aitu. ¿Ez altzaik astu oraindikan?

JUAN Ez, Alejandro, ez.

ALEJ. Jo zak bada gitarra ta kantazak zerbait.

JUAN Ara bada. (*Gitarra artzen du*). ¡Lastima! Prima falta dik. ¡Prima! Nagusiyak aituko balu esangoliake ez dala prima esaten Euskaras; leungusuba.

ALEJ. ¡Ja, ja, ja, ja!

JUAN Sayatukonak.

(*Kantari*) Ez oraiñ Alejandro
berriketan ari
egonikan keñuka
beti dirubari.
Irabazi diruba
nai badek ugari
ortarako biar dek
izan.....

ALEJ. ¿Zer? ¿zer?

JUAN izan pelotari.
Jai-alai gora-bera,
Jai-alai dek emen,

Jai-alai erdaldunak
baditek Madrillen.
Alde guztiyetan dek
Jai-alai zabaltzen,
pelotan ikastera
guazemak lenbailen.

BIYAK (*Kantari*) Jai-alai gora-bera, etc.

ALEJ. Ez dek gezurra, ez. Gaurko egunian diruba irabazteko ez dek ofiziyo charra pelotari izatia.

JUAN Ez; bañan gure ezurrak onezkero gogorrak zioztik ortarako.

ALEJ. Bai, ori. Ta ¿nun dek nagusiya?

JUAN Itzul egintziak soldatik pagatu gabe.

ALEJ. ¿Iri zer ajola zaik? Onezkero boltza ederra egiña izan biek.

JUAN Bai. Badiat Donostiyan eche bat, tellatubak, paretak, atiak eta biak eman ezkero palaziyo bat bezela geldituko litzakena.

ALEJ. ¿Bañan egiyetan atera dek?

JUAN ¿Echia?

ALEJ. Ez, nagusiya.

JUAN Bai; osaba bat ikustera jun dek eta emen niok dozena bat eguneko zer egiñ jakiñ gabe.

ALEJ. ¿Orremeste denborako?

JUAN Bai; nik berekiñ juan nainikan bañan... etziok.

ALEJ. Mutill, etzakala damurik izan. Oraingo kochian etorri dek jaun bat eta galdetu ziak arkituko luken emen laguntzalle bat besterik ez bada zortzi eguneko, len zubena bere echera egun batzubetako jun zayola ta....

JUAN ¿Zortzi eguneko bakarrik?

ALEJ. Bai, eta ondo pagatuko dubela.

JUAN Ez dek gaizki esana: konpontzen bagera... ¿Zenbat ematen du?

ALEJ. Ori etzekiat, bañan... deituko ziyuat.

ZORTZI-GARREN IRUDIA.

VIII.

Juan (*bakarrik*)

Nere nagusiya ez dek etorriko amar edo amabi egunian.... onek zortzi eguneako nai dik... bestien kalterik gabe egingo nikek ori... Bi gauza aurreratuko dizkiat. Erresago denbora pasa, eta chanpon batzubek bildu. ¡Ez alditek bitartian kofri' oyek itzul egingo!

BEDERATZI-GARREN IRUDIA.

IX.

Juan, Alejandro (*saku edo matelekiñ*) **eta On Liborio.**

ALEJ. Ona nunduben nere laguna.

LIB. Oudo da. Egun on.

JUAN Baita beorriyere.

LIB. ¿Echekua alda? (*Alejandrori*)

ALEJ. Ez jauna, bañan oraiñ nagusiya jun zayo egun batzubetako ta libre da.

LIB. ¡A! Ez du planta charra. ¿Zintzua altzera? (*Ẽseritzen da silloyian edo sillatzarrean*).

JUAN Nere ustian...

LIB. ¿Biziya?

JUAN Aldetan guztiya.

LIB. Guztatzen zait zure erantzuteko moduba. Orduban nerekiñ geldituko zera komeni bazazu.

JUAN Zortzi egun batzubetako esan ditanez...

LIB. Ori da. Eguneko bederatzi errialian... ¿nai aldezu?

JUAN Bai jauna, bai.

LIB. ¿Nola deitzen dizute?

JUAN Ojuka.

LIB. Ez. ¿Zér izenekiñ esagutzen zaituzte?

JUAN Neriekiñ.

ALEJ. Juan du izena.

LIB. Ongi da. Tori ondo portatziatik. (*Diruba emanik*).

JUAN Eskarrikasko jauna. (¡Aušcn da gizon ona!)

ALEJ. Ara nun duben beorren kuartua. Utziko diyot au or. (*Sartzen da gelan ta usten du saku edo maleta, aterarik beriala*).

LIB. Ederki (*Juan-i*). Ekarri nazu oraiñ gauza ariñ bat artzeko.

JUAN ¿Ariña?

LIB. Bai ariña. ¿Ez aldakizu zer dan gauza ariñ bat?

JUAN Ariña... ariña... Eltzien afarra, gauza ariñ bat.

LIB. Ez orren ariña.

JUAN ¿Salda?

LIB. Bai, katillu bat salda.

JUAN Beriala jauna.

ALEJ. Ator nerekiñ.

AMAR-GARREN IRUDIA.

X.

On Liborio (*bakarrik*)

Oraiñ pakia det. Mutill onek azkarra

diruri eta ez det suerte charra izan. Echetik kanpora atera ezkero saillta-sunak besterik ez dira sortzen alde guztiyetan kochi'oyetan sartuta chardiñak saskiyan bezela, nai bañan geruago inguratzen da bat biar duben lekura. Eta dagon beruekiñ eta autzekiñ iya ito giñan bidian. (*Alchatzen da*). Salda ekarri bitartian aldatzia izango det onena. (*Sartzen da bere gelan edo kuartuan*).

AMAIKA-GARREN IRUDIA.

XI.

Manuel (*chapela kendu ta izarditya legortzen*)

¡Au berua! ¡Ufff! ¿Zeiñ ibilli kanpuan ordu abetan? Eguzkiyak kiskaldu biar ditu baztar guztiyak. (*Kseritzen da len On Liborio zeguan sillatzarrean*). Obe izango det bigar goizeko freskurekiñ jutia. Nun ote dabill Juanito? Izarditan plei gelditu naiz eta lenbailen aldatu egiñ biarko det.

AMABI-GARREN IRUDIA.

XII.

Manuel eta Juan (*korrika plater ta kallubekiñ*).

JUAN Ona jauna, bero berua, koipe ederrekiñ. (¡Oi¡ ¡Arranna! neriak egiñ dik).

MAN. ¿Zer dek Juanito?
JUAN Be... bee... beee...
MAN. Arkume biyurtu alaiz?
JUAN Bee... Beorri altzan?
MAN. Uste diat bayetz. Bañan ¿zer dek orla larritzeko?
JUAN Mu... muu... muuu...
MAN. Iri papera egiten ari alaiz?
JUAN Mu... Mudatu egiñ da emendik ta...
MAN. ¿Zeiñ?
JUAN Beorri zuben asmuekiñ. ¿Beorri zan beaz?
MAN. ¿Zeiñ uste dek naizela bada, nere anaya? ¿Zer dek ori?
JUAN ¿Au? ¿au?
MAN. Bai.
JUAN Au... au...
MAN. ¿Oraiñ zakurrak bezela? ¿Mendiyabetako animali guztiyen gisak ikasi dituk? ¿Zer da ori?
JUAN ¿Au? ¿ta beorrek zer dan galdetzen dit?
MAN. Bai, Juanito, bai.
JUAN Bada ka... ka... ka...
MAN. ¿Zer ka, ka, ka?
JUAN Katillu'salda iduritzen zait jauna.
MAN. ¿Zeñentzat?
JUAN ¿Ze...?¿Zeñentzat? ¿Ta beorrek zeñentzat

dan galdetzen dit? (Jaungoikoak guarda bestia etortzia).

MAN. ¡A! Konturatzenak. Bazekiat.

JUAN ¿Bai e? (¿Zer ote daki ta zer ikusi biar ote det?)

MAN. Ikusi nak etortzen ta korrika ekarri dek... Eskarrikasko Juanito, eskarrikasko.

JUAN Nai ez duben eskero, eramango det...

MAN. Ez, ez.

JUAN Nola esan ditan eskarrikasko, charra izango lukela gogo gabe artzia nik ekarri detalako.

MAN. Etzakala ori uste. Ekatzak, ekatzak.

JUAN Bañan aza salda da ta...

MAN. Obe.

JUAN Aza berdiena.

MAN. ¿Ta zer?

JUAN ¿Zer? Badaki nola esaten dan: «Auntza baratzan, akerrak ezpata dantzan, janzuben aza berdia....»

MAN. Mutill, ago išillik.

JUAN Kir... kir... kir...

MAN. ¿Oraiñ kirkirra?

JUAN Kir... kirtena falta du katillubak eta berua dago ta...

MAN. ¡Y bai aizela kirtena! (*Katilluba ikutu-*

ta). Etziok orren berua. (*Salda artzen du*).

JUAN ¡Eta artu egiten du!

MAN. ¿Zer bada?

JUAN (¡Abek ištillubak!)

MAN. Ibilli ta izarditu naizenekiñ etziak gaitzik egingo saldachu' onek.

JUAN Guchiyago egingo diyo bestiari.

MAN. ¿Zeñi?

JUAN Artzen ez dubenari. Bañan ¿zerbait aztu altzayo orren aguro etortzeko?

MAN. Ez; beste asmo bat artu diat.

JUAN Beti ori egiten du.

MAN. Beru' onekiñ oñez ibiltzia fardela eskuban detala astakeri bat iduritzen zayak.

JUAN Egualdi sargoya dago jauna.

MAN. ¡Kochian jun banitz! Bañan nola oñez ibiltzia gustatzen zaitan...

JUAN ¿Kochian? Orrengatik besterik ez bada, aginduko det beriala jartzeko bat.

MAN. Bañan Juanito, ¿zer gertatzen zaik? Len alako pena ukan ni juatiatik eta oraiñ ¿nola deseatzen dek?

JUAN ¿Nik jauna? Ez, ez; beorren on biarrez esaten nuben. (Bestia azaltzen bada ¡a zer ištillubak!)

MAN. (*Alchatzen da*). Oraiñ...

JUAN Ku... kuu... kuuu...

MAN. Ku, ku, bai, kukuba. ¿Nola tan totela jarri aiz?

JUAN ¿Totela ni? Iduritu egingo zayo ¿Ku... kuartora jun nai aldu?

MAN. ¡Kuartora! ¡Kuartora! Gelara esaten dek.

JUAN Ala da jauna. ¿Ge...gelara jun nai aldu?

MAN. Bai; izarditan plei niok eta aldatzera niak.

JUAN Ar beza giltza. (*Ematen diyo giltza*).

MAN. Ezayela urruti juan; deituko diat aurki.

JUAN Nai dubenian.

AMAIRU-GARREN IRUDIA.

XIII.

Juan (*bakarrik*).

¡Bi nagusi nere gaiñ! ¡Abek iŝtillubak! Batek salda eskatzen dit, eta bestiak artzen du. Beste katillu bat ekarri biarko det. ¡Bi nagusi! ¿Eta nola utzi oraingo berriya? Etorri ta beriala eman dit propinacho bat. ¡Bi pezetakua! Ez da gaizki. Ta gañera eskeñi nazki bederatzi errial eguneko... Bañau ¿nola lagundu biyari batian? ¡Abek iŝtillubak!

AMALAU-GARREN IRUDIA.

XIV.

Juan eta On Liborio (*Manuel barrendik*)

LIB. (*Aterutzenda beste jantzi amerikana antzeko batekiñ eta lebita eskubetan dubela*). Juanito ¿zer ari zera? ¿Euliyak kontatzen?

JUAN Emen nago jauna.

LIB. ¿Egon? ¡Ez dakazu pachara charra! ¿Eta nere salda?

JUAN ¡A! ¿salda? ¿Beorren salda? (¡Abek istillubak!)

LIB. Bai, salda. ¿Aztu egiñ altzera?

JUAN ¡A! Ez jauna, ez naiz aztu, baña... baña... ez dago saldik.

LIB. ¿Saldik ez dagola?

JUAN Ez jauna, ez.

LIB. ¿Nolatan?

JUAN ¿Nolatan? Alatan. Aitu dalako.

LIB. ¡Neri gertatu biar zizaitan orire! ¡Zer egingo da bada!

MAN. (*barrendik deika*). Juanito.

JUAN ¡Jauna! (¡Ai! alezpanuartzen).

LIB. ¿Zuri deitzen aldizute?

JUAN Ez jauna, ez.

LIB. Nola deitu duten Juanito, eta zuk esau dezun ¡Jauna!

JUAN Iduritu egingo zitzayon.

LIB. ¿Iduritu?

MAN. (*Deika*). Juanito.

JUAN ¡Jauna! (¡Ai!)

LIB. Ara berriz.

JUAN ¡A! Bai jauna. Egiya; ta nik ¡jauna! esau det len ere... bai arrazoya du, ¿badaki? Nere lagun bati deitzen diyo, ta nik noiz nai erantzuten det arren ordez, ¿badaki? arri laguntziatik...

LIB. Ori ondo egiña da. Tori lebita au, autzez betia dago ta...

MAN. (*Deika*) Juanito.

JUAN Banua, banua. (*Lebita artu gabe juten*). (¡Abek iŝtillubak!)

LIB. ¿Nora zuaz? Ni bañon lenago izan biar aldu arrek?

JUAN Ez bañau... nere lagunen nagusiya errechin ŝamarra da ta, jokoluke... (Nagusiyak barka nazala).

LIB. ¿Bai e?

JUAN Bai jauna, eta ura da nere lagunik onena eta ura jotzia da ni joko baninuke bezela...

LIB. Zuaz bada, zuaz, bañan lebit' au...

JUAN Eskobillatuko diyot beriala. (*Artzen diyo lebita*).

MAN. Mutill ¿baalator edo ez?

JUAN Banua jauna.

LIB. Zuaz len bailen. (*On Liborio sartzen da gelan*).

AMABOST-GARREN IRUDIA.

XV.

Juan (*On Liborio eta Manuel barrendik*).

JUAN (*Juaten da nagusi Manuelen gelako atera atze aldian gorderik On Liborioeren lebita*). ¿Zer naidu jauna?

MAN. Garbizak au. (*Atetik emanik amerikana*).

JUAN Bai jauna. ¡Bi erropa batian eskobillatzeko. ¡Abek ištillubak! (*Eskobillatzen azten da presaka lebita*). Bañan ¿zer ajola zait? Bat biziya danian ni bezela... ¿Zertako etorri ote da nagusiya orren aguro? Pake-pakian nagusi berriyekiñ pasako nituben zortzi egun abek eta ¡orra! ¡zapla! Nere nagusi zarra agertu. Nai det esan, lengua, zergatik zarra ez da; gaztia da; nagusi berriya da zarra, zarra ez da berriya, berriya ez da gaz-

tia, gaztia da zarra... ¡A zer korapilluba zarra ta gaztiekiñ.

LIB. (*Deika*) Juan.

JUAN Banua jauna. (*Asten da juten lebitarekiñ On Liborioren gelara ta deitzen du Manuel-ek*).

MAN. Juanito.

JUAN Oraiñ bestia. Ta bere erropa garbitu gabe. (*Presaka utzi lebita ta asten da garbitzen amerikana*). ¡Abek iŝtillubak!

LIB. (*Deika*) Juan.

JUAN Bai jauna, bai. (*Dijua On Liborio-ren gela aldera*).

MAN. Juanito.

JUAN Banua jauna. (*Dijua Manuel-en gela aldera lebita ta amerikanarekiñ batera ta bestera dabill ta gero esaten du*). Au bai dala ibiltzia bulietan bezela, edo (*Kantari*) A la kinkirrinera, á la zamurrera, jirari beste aldera Juanito plaza berriko. (*Buelta ematen du*).

LIB. Juan, Juan (*Deika*)

JUAN ¡Jauna! Ar beza. (*Lebita eskutatzen du atze aldian eta ematen diyo amerikana aletik*).

MAN. (*Deika*) Juanito.

JUAN Baita, banator, banator. Tira, ar beza.

(*Atetik emanik On Liborio-ren lebita*). ¡Abek ištillubak! Eskerrak mutill biziya naizela, beztela, chautzen naute. Bañan ¿nola biyari batian laguntzen segitu? Nagusi berriya utzi egiñ biarko det. ¡Utzi! ¡Bañan aiñ nagusi ona da! Eskeñi nazki bederatzi errial eguneko eta asiyeran eman dit propinachua... Guchiyago utziko det bada beste nagusiya: ura da neretzat aurrena. Lagun bat bezela nauka eta nik egiten diyotan guztiya ontzat artzen du. Gañera zor naski soldata batzubek eta bere alde egon biar det. Beste nagusiyak berriz egun guchiko biar du nere laguntza....

AMASEI-GARREN IRUDIA.

XVI.

Juan eta On Liborio (*amerikana jantzita*).

LIB. Juan.

JUAN ¿Zer naidu? ¿Salda?

LIB. ¿Zer salda?

JUAN ¿Azarena?

LIB. Ezta porrubena ere. ¿Zer da au? (*Amerikana-rengatik*). ¿Nun dezu nere lebita?

JUAN (¡Ai! Trukatu egiñ dizkiat erropak. ¡Abek ištillubak!)

LIB. ¿Gortu egiñ altzera? ¿Ez aldezu aitzen?

JUAN Aitzen det jauna. Beorren lebita... beorren lebita... ¿ez alda ori?

LIB. ¿Au? ¿Moztu egiñ aldezu bada?

JUAN ¡A! Ez jauna, ez... bañan ¿badaki? bai... nola bero dagon ¿e? badaki bero aundiyekiñ nola arboletako ostuak igartzen diran ¿e? eta ori; beruekiñ lebitaren beko aldiak igartu egingo ziran.

LIB. Ez dakat nik chanchetako gogorik. Errop'au ez da neria.

JUAN ¡Egiya jauna. Oraiñ konturatzen naiz. Ez da ori beorrena, ez jauna.

LIB. ¿Zeñena da bada?

JUAN ¿Zeñena e? (¡Abek ištillubak!) ¿Beorrek jakiñ nai du zeñena dan e?

LIB. ¿Ez aldizut bada Euskeras, garbi esaten?

JUAN Bai jauna, bai. Euskeras oso garbi ta chukun ta ederki itz egiten du. ¡Zer gizon ona dan beorri!

LIB. Enazu churikatuko orrekiñ. ¿Zeñena dan erropa, jantzi edo soña au galdetzen dizut?

JUAN Bai jauna, bai. ¡Je, je! Zeñena dan. Ori. Beorrek zeñena dan jakiñ nai du... bai, bai, arrazoya du. Beorrek galdeera onak egiten ditu beti.

LIB. ¿Esango dezu, edo ez?

JUAN ¿Esan? Bai jauna, bai, ¿beorri esango ez diyot bada? ¡Alako propina ederra eman da gero...! Gizon prestuba da beorri, bai, beti esango det.

LIB. Bañan...

JUAN (¡Zer esango ote diyot!) Bada... zeñena dan errop' ori... ¡A bai! nere lagunen nagusiyena. Orra. Mesedes eskatu dit garbitzeko ta... lagun artian, badaki, gaur neregatik eta bigar zuregatik...

LIB. Tori bada. (*Amerikana erantzita*).

JUAN Uste gabian trukatu egiñ det.

LIB. ¿Eta nere lebita?

JUAN ¿Beorren lebita? (Bestia etortzen bada ¡a zer istillubak!) Obe du sartu kuartuan.

LIB. Bañan nere lebita...

JUAN Ekarriko diyot beriala. Bijua, bijua.

LIB. Ekarri nazu bada len bailen. (*Juten da*).

JUAN Bai jauna, bai.

AMAZAZPI-GARREN IRUDIA.

XVII.

Juan (*bakarrik*).

¡Aurki izango dira kontubak bestiekiñ!

¡Abek iŝtillubak! ¿Denborik eziñ pasako nubela? Etzait maratilla charra sortu denbora pasatzeko! Gezurra esatia etzait bada neri gustatzen bañau, saltza outatik ateratziatik.... ez deriyela beñepin iñoren kaltian izan. Oraiñ beste gezur bat sortuko banu... bañan ¿nola gezurra esan nere lengo nagusi kutunari?

EMEZORTZI-GARREN IRUDIA.

XVIII.

Juan eta Manuel (*On Liborio-ren lebila jantzita*).

MAN. Juanito.

JUAN ¡Jauna! (¡Ai, ai!)

MAN. ¿Ondo alnao?

JUAN ¿Beorri? ¿Ta noiz egoten da gaizki?

MAN. ¿Ikusten aldek au? (*Lebitarengatik*).

JUAN ¿Ori? Bai jauna.

MAN. ¿I noiz bait chikiya izango itzan e?

JUAN ¡A! Bai jauna. Chikitan chikiya nitzan ta gero aaaunditu.

MAN. Bai, ¿luzatu? Ta nere erropak mantendu egiten aldituk luzatzeko?

JUAN ¿Mantendu? ¡Je, je!

MAN. ¿Zer?dira abek? (*Faldoyengatik*).

JUAN ¿Oyek? ¡A! ¿Ta oyek zer diran galdetzen

JUAN (*Kantari*) (Arrapatzen bazaitut...)

LIB. Chory' onek jakingo du.

JUAN (*Kantari*) (Arrapatzen bazaitut...)

MAN. Juanito, ¿zer gertatu da emen?

JUAN ¿Zer?

MAN. Bai, ¿zer?

JUAN (*Kantari*) (Bertan, bertan ilko zaitut).

MAN. ¿Ez dek erantzuten?

JUAN Uste gabian trukatu egiñ ditutala beorren erropa eta jaun onena. Ar beza beorrena.

MAN. ¿Bañan nola? (*Bitarte ontan erazten du lebita, ematen diyo On Liborio-ri, jazten du onek levita eta Manuel-ek amerikana*).

JUAN Esantziran Alejandro-k, echi' ontako nagusiyaren illobak, jaun onek laguntza biartzubela zortzi eguneko zergatik bere laguntzallia juntzayon egun batzubetako echera ta...

LIB. Egiya, egiya.

MAN. Ta nola beorrek esantziran etzala etorriko amar edo amabi egunian, ta jaun onek zortzi egunerako nai zuben laguntza, denbora erresago pasatziatik eta chanpon batzubek irabaztiatik, eguneko bederatzi errial esantziranez, beorri kal-

terik egiñ gabe artu nuben egiteku'ori.

LIB. Egiya ori ere.

JUAN Gero bi erropak eskobillatu ta emateakuan, nastutu ditut. Jaun onek asiyerakuan emantziran propinacho bat...

LIB. Egiya.

JUAN Bai jauna. Nik egiya esaten det beti.

LIB. Gezurrik esaten ez dezunian.

MAN. ¿Gezurrak ere bai?

LIB. ¿Esan ez nazu len, jantziy' ori (*Manuelen amerikanengatik*) zure lagun baten nagusiyarena zala?

JUAN Zafatziatik jauna, zafatziatik. Barka bezait.

LIB. Barkatzen dizut, bai. ¿Ta zure lagunen nagusiya errechiñ šamarra dala ta jokolukela?

MAN. ¿Orire badegu?

JUAN (*Manuel-i*). Zafatziatik jauna, zafatziatik. Barka bezait.

MAN. Barkatzen diat Juanito. Ta beorri osaba ¿nolatan agertu da emen?

LIB. Banekiyen, emen ziñala ta ikusirik zu ezetozela neregana, gogoratu zait onera etortzia. Orlašen Manuel.

MAN. Eskarrikasko osaba. Bañan ni beorreugana juteko asmuetan atera naiz oñez,

ta aldapa gora asi naizenian beruak ikaratu nau ta biurtu naiz onera. ¿Echian ongi dira guztiyak?

LIB. Bai Manuel, Jaungoikoari eskerrak. ¿Ta zuk berri onak dituzu?

MAN. Bai osaba; osasuna dutela?

OGEI-GARREN IRUDIA.

XX.

Lenguak eta Alejandro (*karta batekiñ*).

ALEJ. On Manuel Aritzabeti.

JUAN ¿Karta, Alejandro? Bota. (*Karta artzen du ta juten da Alejandro*). Nagusi jauna. (*Karta emanik Manuel-i.*

MAN. Echekua.

LIB. Ongi, ongi.

MAN. Lizenziyekiñ. (*Karta irakurtzen*).

LIB. Bai. (*Juan-i*). ¿Kontentu altzaude nagusiyekin?

JUAN ¿Kontentu? Bai, jauna, bai. Sagarraren arbolaren adarraren puntaren puntan choriya kantari bañon kontentubago.

LIB. Obe, obe.

JUAN Ta beorri asko maite du nere nagusiyak.

LIB. Bai, bai.

JUAN Beti esaten zeguan: «osaba ikustera jun

biar det gaur, osaba ikustera jun biar det bigar, osaba ikustera jun biar det etzi... ta etsi egiten zuben. Bere paper Euskarasko zar oyekiñ naztutzen da ta denbora pasa egitentzayo.

LIB. Gogo aundiya du ortarako, bai. ¿Ta lagunduko alhazu gezurrik esan gabe?

JUAN Gezurren tantorik esan gabe.

LIB. Emango dizkitzut bada eguneko bederatzi errialak.

JUAN Eskarrikasko jauna.

MAN. ¿Osaba?

LIB. ¿Zer Manuel? ¿Berri onak?

MAN. Bai osaba: bañan paper bat firmatu biar detala bigar bertan, eta beriala juteko esaten dirate.

LIB. ¿Bai? Orduban nire bai. Alkarrekiñ jungo gera?

MAN. Ederki osaba, ederki.

JUAN ¡Au poša! (*Kantari*).

Guazen, aguro, guazen,
guazen Donostira...

LIB. ¿Kantalariya altzera?

MAN. Kantalariya ta bersolariya.

LIB. ¿Bai? Neri gustatzen zaizkit bada kantubak ta bersuak.

MAN. Tira, bada, kanta zak zerbait Juanito.

JUAN Nai badute...

LIB. Bai, bai. (*Juanitok gitarra artu ta kantzen asten dan bitartian, izketan bezela daude On Liborio eta Manuel*).

JUAN Guazen, aguro, guazen,
guazen Donostira,
biotzak pozturikan
guazen gure errira
Nun naitik emanikan
mundubari jira
alako Donostiyak
arkitzen ez dira.

IRURAK Guazen, aguro, guazen
guazen Donostira, etc.

(*Albada kantatzen dute bi bozetara edo irutara*).

(*Jeizten da burtiña*).

BUKAERA.

1894-garrengo Abenduaren 21-ko Donostiyako Euskal-festetan aurkeztatzekua da jostirodik' au.

M-27261
R-15626
ATV 10.207

ALMANAQUE

BILINGÜE

(ERDERAZ ETA EUSQUERAZ)

para el año de 1879.

PUDENTE

ÓPERA EN TRES ACTOS.

SAN SEBASTIAN:
Establecimiento Tipográfico de ANTONIO BAROJA.
1878.

ILL BACOITZAREN ESANGUIAC EDO ATZOITZAC.

ILL BELTZA.

San Vicente otzacquin ordago negua,
aurtengoac bestela ausi du burua.
San Vicente otza, neguaren biotza.

OTZAILLA.

Bero Candelarioz, Pazcoetan dardar;
cimaurric bicañena ur asco badacar.
Ganderalu otz, negua poz.
Ganderalu bero, negua Pazcoz guero.

EPAILLA.

Marchoan aicea, ta Apirillan busti,
urtea ez da izango iñolaz zapuzti.

APIRILLA.

Turmoy dambadac ez du Apirilla galtzen;
ill ontaco mastia ez da erraz saltzen.

ORRILLA.

Otzarequin Mayatza, cercho bat motela.
Beroarequin berriz escatu becela.
Mayatz eurite, urte oguite.
Mayatza otz, urtea poz.

GARAGARRILLA.

San Juan eta San Pedro, ta biac euriac,
loy asco, ardo guichi, ta aîn guichi oguiac.

UZTAILLA.

Uztan lecaciai, ta eraguin segari.
Madalenac mantalan inchaurrac ugari.

ABOSTUA.

San Lorenzoc badacar cerutic euria,
lurrac emango dio ongui etorria.
Jaun Done Laurenti
escu batean euria, bestean ilinti.

AGORRA.

Mayatzaren arreba da Agorreco illa,
Agorra da nescacha, Mayatza mutilla.

URRIA.

Zuhaitz adarrac escaz, zumoac ugari,
euli batec balio ditu oguei ta bi.
Sanct Simon eta Judaetan, onciac ainguretan.
Sanct Simon eta Juda, negua eldu da.

AZAROA.

Santu gucien urren egüerrietara
aiceac ta euri guchi : lecac gambarara.

ABENDUA.

Sua egüerrietan zura aundiacquin,
Pazcoetan eguizu adar chiquiacquin.
Onenzaroz leyoan, Pazcoetan sua.
Elur ascoco urtea, urte doatsua.

Á FÍLIS.

Escucha, Filis, rosa naciente,
ven á mi lado, junto á mí siéntate;
en dulces trovas mi númen quiere
hablar del Año setenta y nueve.
¿Sabes su *Epacta*, boca de mieles,
Filis esquiva? pues es el VII.
Tambien su *Áureo Número* tiene
y son tus años, clavel celeste,
pues 18 cumples por Reyes.
12 es el *Ciclo Solar* luciente,
como tus blancos, límpidos dientes,
(8 mas 4 colmillos..... cuéntense).
El lema ó *Letra* que le compete
es la *c chica*, cual tu pié breve,
y la *Romana Indiccion*, VII.
¿Gustas, mi Filis, entretenerte
con los *Eclipses*? Dime ¿lo quieres?
pues, oye, ninfa de estos vergeles,
arrayan fresco, lirio silvestre.
El primerito que el *Año* tiene
toca en Enero, por San Vicente,
de *Sol*, hermosa, como el que hiere
tras tus pupilas con rayo aleve,
pero invisible, como tus redes.
Otro hay por Julio y el 17
que es San Alejo (santo, en vascuence,
bajo escaleras descrito siempre);
mas este *eclipse*, tambien rebelde
como el primero, tampoco quiere
que nos salgamos al campo á verle:
muy mala sombra dicen que tiene.
Tambien hay otro allá en Diciembre
pero es de *Casta Diva in argente*,
¿sabes qué dia? el de Inocentes,
pero invisible ¡pícara suerte!
Y siguió Tirsis, muy elocuente,
contando á Filis *Las Efemérides*,
Las Cuatro Témporas, Bulas y *Breves*,
Las Abstinencias, *Dias de Viernes*,
Las Profecías y *Épocas Célebres*
hasta que Filis, génio vehemente,
más que aburrida, alzóse y fuese.
Por eso omito yo estos bieses
pues muchas Filis, Clodis y Hebes
con tanta ciencia cansarse pueden
y adios entonces mi alma-naquete,
nadie lo lee, ya no se vende,
y yo me quedo como un sorbete.

MERCURIO

Cillar bicia eusqueraz,
Azogue en buen castellano,
da metal bat, denetan
el más sorprendente y raro.
ura becela izanic
sin embargo es mas pesado
beruna ta zinc baño
y que el hierro y el estaño.
Ez du escuric bustitzen,
se desliza cual relámpago;
baña sartutzen bada
en el organismo humano,
píldora batzuetan
que llaman calomelanos,
ezur errayetatic
no hay forma de evaporarlo.
Beroarequin lasai,
con el frio acoquinado,
Célsio edo Reaumur,
ó en Farenhéiticos grados,
chincho marcatutzen du
si es Navidad ó Santiago,
gelatzen ari bada
ó si arde el mismo Zodiaco.
Igoalqui, goico aldera
anunciará tiempos claros,
nola bera badator
tormentas ó galernazo.
Gañera esango dizu
aunque en lenguaje algo bárbaro
itsusiya bacera;
¡Qué esperpento! ¡San Macario!
eta bacera gazte
de buen palmito y buen garbo,
esango dizu laister
¡Qué divina! ¡San Sandalio!
¿Bañan nun eta nola
de qué modo, cómo y cuando?
Ispilluan gordea,
que, aunque sabido, no callo
ispillu atzia dala
una amalgama de estaño,
ta amalgamac nai du esan
que anda el azogue aleado.
¿Cerian metal churi onec
no figura en primer rango?
Orra laneay guciac
de manómetros dotados,
cillar-bicia izanic
el atalaya indicado.
Colorcac badira
quien vence en bracura al majo
bermelloy gorriari,
que es mercurio incomodado?
(*sulfurado* esan nai det).
¡Y en venenos! ¿do dejamos
deitzen dioten hori
corrosivo sublimado
erreco lituquenac
las tripas del monte Abanto?
Bañan gure fortunaz
hay un antídoto á mano
¿badaquizute cer dan?
la clara del huevo. ¿Estamos?
Noiz bait ibilli omentzan
metiéndose en fulminatos,
ez baguendu becela
mil medios de acribillarnos.
Orain ernay dabilgu
en modernos adelantos,
miñac sendatu nairic
en globulillos y emplastos,
batzuetan herpeac
con precipitado blanco,
nola gorriarequin
padecimientos oftálmicos.
Usatzen da chit ere
en estirpar ciertos vándalos,
ortzac eta emplomatzen:
para el lacre, para baños.
cillartzeco metalac
por el método galvánico;
baña gueyen gueyena
la plata beneficiando.
Au da *Mercurio* bada,
un dios en tiempos pasados,
gaur metal esan dana,
que se saca del Cinabrio,
ta egusquiaren giran
el planeta más cercano.....
Batzuec an ta gu emen
el Romance se ha acabado.

Enero. Illbeltza.

1. Miér. ✠ *Urteberri. Cristoren Circuncisioa edo epaira.*
2. Juev. san Isidoro, s. Macario y la venida de N.ª S.ª del Pilar.
3. Vier. san Antero, san Daniel y santa Genoveva.
4. Sáb. san Aquilino, san Timoteo y santa Benita.
5. Dom. san Telesforo, san Simeon Stilita y santa Apolinaria.
6. Lun. ✠ *Erregue Santuen Adoracioa.*
7. Mart. san Julian mártir y san Teodoro.
8. Mier. san Luciano y compañeros mártires.

● *Illargui betea goiceco 11 eta 37 minutu-etan.*

9. Juev. san Julian mártir y santa Basilisa virgen.
10. Vier. san Nicanor y san Gonzalo de Amarante confesor.
11. Sáb. san Higinio papa y mártir y san Teodoro.
12. Dom. san Benito abad, san Victoriano y san Arcadio mártir.
13. Lun. san Gumersindo y san Leoncio.
14. Mart. san Hilario, san Félix y el beato Bernardo Corleon.
15. Mier. san Pablo primer ermitaño, san Mauro y san Máximo.

☽ *Ill bererdia goiceco 10 eta 51 minutu-etan.*

16. Juev. san Marcelo papa y mártir y san Fulgencio obispo.
17. Vier. san Antonio abad, santa Rosalina y san Sulpicio ob.
18. Sáb. La Cátedra de s. Pedro en Roma, stas. Prisca y Margarita.
19. Dom. El Dulce nombre de Jesus, san Canuto y san Mario.
20. Lun. san Fabian y san Sebastian márt.—*Donostiaco eguna.*
21. Mart. santa Inés virgen y mártir y san Fructuoso obispo.
22. Mier. san Vicente, san Anastasio y el beato Juan de Rivera.

● *Illargui berria goiceco 11 eta 40 minutu-etan.*

23. Juev. san Ildefonso arzobispo y san Raimundo confesor.
24. Vier. Nuestra Señora de la Paz y san Timoteo obispo.
25. Sáb. La Conversion de san Pablo apostol y santa Elvira.
26. Dom. san Policarpo obispo y mártir y santa Paula viuda.
27. Lun. san Juan Crisóstomo obispo y doctor y san Dácio.
28. Mart. san Valero obispo y confesor y san Julian obispo.
29. Mier. san Francisco de Sales obispo y confesor y s. Aquilino.
30. Juev. santa Martina virgen, san Lesmes y santa Aldegunda.

☾ *Ill gorerdia goiceco 11 eta 34 minutu-etan.*

31. Vier. san Pedro Nolasco fundador, san Julio y santos Saturnino, Tirso y Victor.

Febrero. Otza-illa.

1. Sáb. san Ignacio obispo y mártir y santa Brígida.
2. Dom. *Ama Virgiñar en Purificacioa edo chautea* y santos Cándido y Fortunato.
3. Lun. san Blas obispo y el bto. Nicolás de Longobardo.
4. Mart. san Andrés Corsino, san José de Leonisa y s. Isidoro.
5. Mier. santa Agueda vírgen y san Martin de la Ascension, *Guipuzcoaco semea.*
6. Juev. santa Dorotea vírgen y mártir y san Antoliano.
7. Vier. san Romualdo abad y san Ricardo rey.

● *Illargui betea goiceco ordubata eta* 31 *minutu-etan.*

8. Sáb. san Juan de Mata fundador, san Lúcio y san Ciriaco.
9. Dom. *Sept.* santa Polonia vírgen y mártir y san Fructuoso.
10. Lun. santa Escolástica vírgen, san Guillermo y san Ireneo.
11. Mart. san Saturnino, s. Desiderio y los siete siervos de María.
12. Mier. santa Olalla, santa Eulalia vírgen y san Melerio.
13. Juev. san Gregorio II, san Benigno y santa Catalina de Ricci.

☽ *Ill bererdia arratseco 6 eta 43 minutu-etan.*

14. Vier. san Valentin presbítero y mártir, el beato Juan Bautista de la Concepcion y san Raimundo de Peñafort.
15. Sáb. san Faustino y santa Jovita hermanos mártires.
16. Dom. *Sex.* san Julian y 5.000 compañeros mártires, san Elías y san Gregorio X.
17. san Julian de Capadocia mártir, san Pedro Tomás obispo y confesor y san Eutopio obispo y confesor.
18. Mart. san Eladio arzobispo de Toledo, san Simeon y santos Máximo y Claudio.
19. Mier. san Alvaro de Córdoba, san Gabino y san Conrado.
20. Juev. *Ostegun guiecn.* san Leon y san Eleuterio obs. y confs.
21. Vier. san Félix obispo y san Maximino.

● *Illargui berria goiceco 3 eta 52 minutu etan.*

22. Sáb. La Cátedra de san Pedro en Antioquía y san Pascasio.
23. Dom. *Iñauteriac.* santas Marta y Margarita y san Florencio.
24. Lun. san Matías apostol y san Modesto obispo.
25. Mart. san Cesáreo confesor y santos Donato, Justo é Irene.
26. Mier. *Austerri.* san Alejandro y Ntra. Sra. de Guadalupe.
27. Juev. san Baldomero confesor, san Leandro y san Julian.
28. Vier. san Roman obispo y fundador y san Macario.

Marzo.

Marchoa EDO Epailla.

1. Sáb. El santo Angel de la Guarda y san Rosendo obispo.

☾ *Ill gorerdia goiceco 7 eta 48 minutu-etan.*

2. Dom. *Garisumaco lendabicio igandea.* san Lucio y san Pablo.
3. Lun. santos Hemeterio y Celedonio mártires.
4. Mart. san Casimiro rey y confesor y san Pio arzobispo.
5. Mier. san Ensebio y compañeros mártires y san Adrian mr.
6. Juev. santos Victor y Victoriano mártires y santa Coleta.
7. Vier. santo Tomás de Aquino y santas Perpetua y Felicitas
8. Sáb. san Juan de Dios fundador y san Julian arzobispo.

● *Illargui betea egüerdiro 12 eta 59 minutu-etan.*

9. Dom. *Garisumaco bigarren igandea* santa Francisca viuda.
10. Lun. san Meliton y compañeros mártires.
11. Mart. san Eulogio, s. Ramiro, sta. Aurea y s. Constantino.
12. Mier. san Gregorio papa y confesor y san Pedro mártir.
13. Juev. san Leandro arzobispo, san Rodrigo y santa Eufrasia.
14. Vier. santa Florentina vírgen y santa Matilde reina.
15. Sáb. san Raimundo abad y fundador y san Longinos mart.

☽ *Ill berordia goiceco 5 eta 30 minutu-etan*

16. *Garisumaco irugarren igandea.* san Julian mr. y san Ciriaco.
17. Lun. san Patricio obispo y confesor y santa Gertrudis vg.
18. Mart. san Gabriel arcángel, san Alejandro y san Anselmo.
19. Mier. san José, Esposo de Nuestra Señora.
20. Juev. san Niceto obispo y santa Eufemia.—*UDABERRIA.*
21. Vier. san Benito abad y fundador y san Filemon.
22. Sáb. san Deogracias, s. Pablo de Narbona y san Ambrosio.

○ *Illargui berria arratseco 8 eta 54 minutu-etan.*

23. Dom. *Garisumaco laugarren igandea.* san Victoriano mártir.
24. Lun. san Agapito mártir y santa Catalina de Suecia vírgen.
25. Mart. ✠ *Virgiñaren berri onac, Jaincoaren Semearen araguiztea.*
26. Mier. san Braulio obispo, santa Eugenia vírgen y s. Teodoro.
27. Juev. san Ruperto obispo, san Juan mártir y san Lázaro.
28. Vier. santos Castor y Doroteo mártires y san Sixto III papa.
29. Sáb. san Eustaquio abad, san Siro rey y san Cirilo.
30. Dom. *Pasioco igandea.* san Juan Climaco abad y s. Régulo.

☾ *Ill gorerdia arratseco 12 eta 54 minutu-etan.*

31. Lun. santa Balbina vírgen y san Benjamin diácono.

Abril. Apirilla.

1. Mart. s. Venancio y la impresion de las llagas de Sta Catalina.
2. Mier. san Francisco de Paula y santa María Egipciaca.
3. Juev. san Ulpiano y san Pancracio obispos y san Benito.
4. Vier. *Doloreetacoa.* san Isidoro arzobispo de Sevilla.
5. Sáb. san Vicente Ferrer confesor y santa Irene virgen y mr.
6. Dom. *Erramuco igandea.* san Celestino papa y confesor.

☽ *Illargui hetea arratseco* 10 *eta* 14 *minutu-etan.*

7. Lun. san Epifanio obispo y mártir y san Ciriaco mártir.
8. Mart. san Dionisio obispo y el beato Julian de s. Agustin.
9. Mier. santa Casilda virgen y santa María Cleofé.
10. Juev. *Ostegun santu.* santos Ezequiel y Daniel profetas.
11. Vier. *Ostiral santu.* san Leon papa llamado el Magno.
12. Sáb *Larumbat santu.* santos Victor y Zenon mártires.
13. Dom. *Pizteco Pazcoac.* san Hermenegildo y san Justino ms.

☽ *Ill hererdia arratsaldeco ordubata eta* 58 *minutu-etan.*

14. Lun. santos Tiburcio, Valeriano y Máximo.
15. Mart. santas Basilisa y Anastasia mártires.
16. Mier. santo Toribio de Liébana obispo y santa Engracia
17. Juev. san Anacleto papa y la beata María Ana de Jesus.
18. Vier. san Eleuterio obispo y mártir y san Perfecto doctor.
19. Sáb. santos Hermógenes, Evodio y Calisto mártires y san Leon IX papa.
20. Dom. santa Inés de Monte Policiano virgsn y s. Teodoro.
21. Lun. san Anselmo arzobispo y san Simeon obispo y mártir.

● *Illargui herrea arratsaldeco ordubata eta* 15 *minutu-etan.*

22. Mart. san Sotero y san Cayo papas y mártires y san Leon.
23. Mier. san Jorge mártir, san Gerardo obispo y s. Adalberto.
24. Juev san Gregorio obispo y confesor y san Fidel mártir.
25. Vier. san Márcos Evangelista, san Aminio y san Herminio.
26. Sáb. san Cleto y san Marcelino papa y mártir, la traslacion de santa Leocadia y Nuestra Señora del Buen Consejo.
27. Dom. santos Anastasio y Toribio y san Pedro Armengol.
28. Lun. s. Prudencio, patron de Alava, s. Vidal y sta. Teodora.
29. Mart san Pedro mártir y san Roberto abad y fundador.

☾ *Ill gorerdia arratsaldeco 2 eta 6 minutu-etan.*

30. Mier. santa Catalina de Sena, san Indalecio y san Pelegrin.

Mayo.

Mayatza EDO Orrilla.

1. Juev. san Felipe y Santiago apóstoles y san Segismundo rey.
2. Vier. *Libertadea gatic Madriden illciranen eguna*. san Atanasio patriarca de Alejandría y san Segundo.
3. Sáb. La Invencion de la Santa Cruz y san Alejandro.
4. Dom. El Patrocinio de san José, santa Mónica y s. Ciriaco.
5. Lun. san Pio V papa y la Conversion de san Agustin.
6. Mart. san Juan Anteportam Latinam y Ntra. Sra. de Belen.

☽ *Illargui betea goiceco 6 eta 2 minutu-etan.*

7. Mier. san Estanislao obispo y mártir y san Augusto.
8. Juev. La Aparicion de san Miguel Arcángel.
9. Vier. san Gregorio Nacianceno y la Traslacion de s. Nicolás.
10. Sáb. san Antonino arzobispo de Florencia.
11. Dom. san Mamerto obispo y san Mayeul abad.
12. Lun. santo Domingo de la Calzada confesor.
13. Mart. Ntra. Sra. de los Desamparados y san Pedro Regalado.

☽ *Ill bererdia goiceco 2 eta 25 minutu-etan.*

14. Mier. san Bonifacio mártir y santos Vito y Corina.
15. Juev. san Isidro labrador, patron de Madrid y san Indalecio.
16. Vier. san Juan Nepomuceno mártir y san Ubaldo.
17. Sáb. san Pascual Bailon confesor y santa Restituta.
18. Dom. san Félix de Cantalicio confesor y san Venancio mr.
19. Lun. s. Pedro Celestino, sta. Pudenciana y s. Juan de Cetina.
20. Mart. san Bernardino de Sena confesor y s. Baudilio mártir.
21. Mier. santa Maria de Socors virgen y santa Victoria.

○ *Illargui berria goiceco 5 eta 40 minutu-etan.*

22. Juev. ✠ *Jaungoicoaren ceruratzea*, santa Rita de Casia viuda.
23. Vier. La Aparicion de Santiago apóstol y san Desiderio.
24. Sáb. san Robustiano mártir y san Juan Francisco Regis.
25. Dom. stos. Gregorio VII y Urbano papas y sta. María Magdal.
26. Lun. san Felipe Neri confesor y fundador y san Eleuterio.
27. Mart. san Juan, san Julio, santa Restituta y san Eutropio.
28. Mier. santos Justo y German obispos y confesores y s. Emilio.

☾ *Ill gorerdia arratseco 11 eta 26 minutu-etan.*

29. Juev. san Maximino obispo y confesor y santa Teodosia.
30. Vier. san Fernando rey de España.
31. Sáb. santa Petronila virgen y san Torcuato.

Junio. Garagar-illa.

1. Dom. *Pentecostesco Pazcoa*. san Segundo, patron de Avila.
2. Lun. santos Marcelino y Pedro y san Juan de Ortega cf.
3. Mart. san Isaac mártir y santa Clotilde reina.
4. Mier. san Francisco Caracciolo fundador y santa Saturnina.

☽ *Illargui betea arratsaldeco ordubata eta 25 minutu-etan.*

5. Juev. san Bonifacio obispo y mártir y san Doroteo.
6. Vier. san Norberto arzobispo y fundador y san Claudio.
7. Sáb. san Pedro y compañeros mártires y san Pablo obispo.
8. Dom. La Santísima Trinidad y san Salustiano confesor.
9. Lun. santos Primo y Feliciano mártires.
10. Mart. santa Margarita reina, santos Crispulo y Restituto mrs.
11. Mier. san Bernabé apostol y santos Félix y Fortunato.

☽ *Ill bererdia arratsaldeco 4 eta 45 minutu-etan.*

12. Juev. ✠ *SS. Corpus Christi*, san Juan de Sahagun y san Onofre confesores y san Leon papa y confesor.
13. Vier. san Antonio de Padua confesor y san German.
14. Sáb. san Basilio el Magno y santos Anastasio y Félix.
15. Dom. II. santos Vito y Modesto y santa Crescencia mártires.
16. Lun. san Quirico y santa Julita mártires y san Aureliano.
17. Mart. san Manuel, el beato Pablo de Arero y san Anastasio.
18. Mier. santos Marco, Marceliano y Ciriaco y santa Paula.
19. Juev. santos Gervasio y Protasio y sta. Juliana de Falconeri.

● *Illargui berria arratsaldeco 8 eta 9 minutu-etan.*

20. Vier. El Sagrado Corazon de Jesús, s. Silverio y sta. Petronila.
21. Sáb. san Luís Gonzaga, san Eusebio y san Pelagio.—*UDA.*
22. Dom. III. san Paulino obispo y confesor y san Acacio.
23. Lun. san Juan presbitero, santa Agripina y san Zenon.
24. Mart ✠ *San Juan Bautistaren jayotza*, san Fausto.
25. Mier. san Guillermo abad, santos Eloy, Próspero y Eligio.
26. Juev. santos Juan y Pablo hermanos mártires y s. Pelayo.
27. Vier. san Zoilo, s. Benvenuto y s. Ladislao rey de Hungría.

☾ *Ill gorerdia goiceco 5 eta 45 minutu-etan.*

28. Sáb. san Leon papa y san Paulo papa.
29. Dom. IV. *San Pedro eta san Pablo*, stos. Marcelo y Anastasio.
30. Lun. La Conmemoracion de san Pablo apost. y s. Marcial.

Julio. Uzta.

1. Mart. stos. Castos y Secundino, sta. Leonor y stos. Galo y Julio.
2. Mier. La Visitacion de Nuestra Señora y san Urbano.
3. Juev. san Trifon, santos Marco, Muciano y Paulo.

● *Illargui betea arratsero 9 eta 27 minutu-etan.*

4. Vier. san Laureano arzobispo y mr. y el bto. Gaspar Bono.
5. Sáb. sta. Zoa, el beato Miguel de los Santos y sta. Filomena.
6. Dom. V. sta. Lucía vg. y mr., sta. Dominica y s. Rómulo.
7. Lun. san Fermin ob. y mártir y el bto. Lorenzo de Brindis.
8. Mart. santa Isabel reina de Portugal y san Procopio.
9. Mier. san Cirilo obispo y mártir y san Zenon.
10. Juev. santas Amalia y Rufina, s. Cristobal y sta. Segunda.
11. Vier. san Pio I, san Abundio y santa Verónica de Julianis.

◑ *Ill hererdia goiceco 8 eta 44 minutu-etan*

12. Sáb. san Juan Gualberto fundador y santa Marciana.
13. Dom. VI. san Anacleto papa y mártir y san Maximiliano.
14. Lun. san Buenaventura ob. y doctor y s. Francisco Solano.
15. Mart. san Enrique emperador y san Camilo de Lelis fundr.
16. Mier. El Triunfo de la Santa Cruz, Nuestra Señora del Cármen y san Sisenando mártir.
17. Juev. san Alejo, san Leon IV, san Jacinto y san Liberato.
18. Vier. santa Sinforosa y sus siete hijos mártires.
19. Sáb. santas Justa y Rufina y san Vicente de Paul fundador.

● *Illargui berria goiceco 8 eta 55 minutu-etan.*

20. Dom. VII. san Elías profeta, santas Librada y Margarita.
21. Lun. santa Práxedes y santos Victor, Alejandro y Longinos.
22. Mart. santa María Magdalena penitente y san Teófilo.
23. Mier. s. Apolinar, s. Liborio y sta. Engracia.—*CANICULA.*
24. Juev. santa Cristina virgen y mártir y s. Francisco Solano.
25. Vier. ✠ *Santiago Apostolua, Españiaco Patroya* y s. Cristóbal.
26. Sáb. santa Ana, madre de Nuestra Señora.

◐ *Ill gorerdia goiceco 10 eta 25 minutu-etan.*

27. Dom. VIII. san Pantaleon y santas Semproniana y Juliana.
28. Lun. santos Nazario, Celso y Victor mártires.
29. Mart. sta. Marta. s. Félix II y stos. Simplicio, Faustino y Beatriz.
30. Mier. san Abdon, san Senén, santa Julita y san Rufino.
31. Juev. ✠ *San Ignacio Loyolacoa, Guipuzcoaco Patroya.*

Agosto. Abostua.

1. Vier. s. Pedro ad Vincula, s. Félix y los hermanos Macabeos.
2. Sáb. Nuestra Señora de los Angeles, san Pedro y s. Esteban.

Illargui betea goiceco 7 eta minutu bat-etan.

3. Dom. IX. La Invencion de san Estéban proto-mártir.
4. Lun santo Domingo de Guzman fundador y sta. Perpétua.
5. Mart. Nuestra Señora de las Nieves y san Páris obispo.
6. Mier. La Transfiguracion del Señor, santos Justo y Pastor.
7. Juev. san Cayetano fundador y san Alberto de Sicilia.

Ill bererdia goiceco ordubata eta 58 minutu-etan.

8. Vier. santos Ciriaco, Largo y Smarado mártires.
9. Sáb san Roman soldado y mártir.
10. Dom. X. san Lorenzo diácono mártir.
11. Lun. san Tiburcio mártir y santas Susana y Filomena.
12. Mart. santa Clara vírgen y fundadora y san Aniceto mártir.
13. Mier. santos Casiano obispo é Hipólito mártires.
14. Juev. san Eusebio presbitero y san Marcelo.
15. Vier. ✠ *Ama Virgiñaren ceruraco jasoera edo Asuncioa.*
16. Sáb. santos Roque y Jacinto confesores.
17. Dom. XI. san Joaquin, padre de Nuestra Señora.

Illargui berria arratseco zortzi-etan.

